

KONTZIENTZIA ERAGOZPENA ETA INTSUMISIOAREN GIZARTE MUGIMENDUA NAFARROAN: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

EGILEA: AINARA HERMOSO DE MENDOZA SAN JUAN

TUTOREA: FERNANDO MENDIOLA GONZALO



upna

Universidad Pública de Navarra
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

2020/21 ikasturtea

Eskerrik asko AMA

Sigue enseñándome. Seguiré aprendiendo.

Eskerrik asko Fernan.

Ze zorte nirea, duela 16 urte Biurdanako Historiako irakaslea zinela.

Maisu izan zara klaserik gabe.

Eskerrik asko Iturrama 1go Batxilergoko Nafarroako Geografia eta Historiako ikasleei.

Uste dut proposamen didaktikoa nahiko hobetu dugula.

LABURPENA: Bigarren Hezkuntzako DBH 4. maila eta 1. Batxilergorako Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisio Gizarte Mugimenduaren proposamen didaktikoa da hau, 2015eko Nafarroako Curriculum aintzat hartuta eta Gizarte Zientzien Didaktikaren gidaritzapean: ikaskuntza esanguratsua, bakearen hezkuntza, antimilitarismoa, lankidetzaren metodologiak eta pentsamendu historikoa uztartzuz, hiritartasun demokratiko eta globala eraikitze bidean.

Hezkuntza gizarte-aldaketa demokratikorako tresna den heinean, mundu globalizatuan, Nafarroako Intsumisio Mugimenduaren prozesu historiko lokalak, proposamen didaktiko honen bitartez, ikasleengan kontzientzia eta pentsamendu kritikoa sustatzea du helburu. XXI. mendearen arazo globalei, gerrak eta militarismoa kasu, aurre egiteko baliagarri eta eredu garriak izan daitezkeen XX. mendeko borroka ezbiolentoak azaleratuz, ulertuz eta horien enpatia piztuz. Ikasle eta ikastalde bezala euren ezagutza eraikiko dute; baina baita ikasleriak sujetu sozial eta politiko bezala haien burua eraikitzen joateko proposamena da. Betiere, Historiaren ikerketa eta berrikuntza historiografikoa ikustarazten ari den sujetu historiko berrien harira: pertsona intsumituen esperientziak, bizipenak eta utzitako ondare materiala eta ez-materialaren azterketa eginez iturri historikoak kontrastatu eta interpretatzeko gaitasuna bereganatuko dute, gogoetarako tartea utziz. Proposamen didaktiko malgu eta irekia da, Bigarren Hezkuntzako edozein irakaslerentzat moldagarria izatea baita asmoa. Dokumentuen analisirako fitxak modu ezberdinetan konbinatu daitezke, hezkuntza testuinguru eta komunitate ezberdinen egoeretara moldatuz.

HITZ GAKOAK: Kontzientzia Eragozpena, Intsumisioa, Gizarte Mugimendua, proposamen didaktikoa, Gizarte Zientzien Didaktika, bakearen hezkuntza, antimilitarismoa, ikaskuntza esanguratsua, lankidetzaren metodologia, pentsamendu historikoa, herritartasun eta hiritartasun demokratikoa, giza eskubideak, mundu globalizatua.

RESUMEN: Esta es una propuesta didáctica para 4º de la ESO y 1º Bachillerato en Educación Secundaria sobre el Movimiento Social de Objeción de Conciencia e Insumisión en Navarra, teniendo en cuenta el Currículum educativo de Navarra de 2015 y bajo la guía de la Didáctica de las Ciencias Sociales: ensamblando aprendizaje significativo, educación para la paz, antimilitarismo, metodologías cooperativas-colaborativas y pensamiento histórico, en el camino de construcción de una ciudadanía democrática y global.

Dentro del marco sociológico en el que la Educación se concibe como instrumento democrático para el cambio social en un Mundo Globalizado, los procesos históricos locales insertados en un mundo global, pretenden despertar conciencia y pensamiento crítico y hacer frente a los problemas globales del siglo XXI en el aula, tales como las guerras y el militarismo económico, social, político y cultural. En la actualidad, la no violencia puede ser un útil modelo de aprendizaje para el cambio social. Al visibilizar, comprender y generar empatía hacia la lucha no violenta y la desobediencia civil, colaboramos en la construcción de sujetos-alumnado formado en pensamiento sociohistórico, pero también en su configuración y articulación como sujetos sociales y

políticos. El patrimonio material e inmaterial legado por las experiencias y vivencias de las personas insumisas, es una fuente histórica que al conocer, analizar e interpretar, se transforman en evidencia histórica y las/os insumisos/as en nuevos sujetos históricos que la renovación e investigación histórica está visibilizando. Por lo tanto, en este devenir el alumado irá adquiriendo las competencias históricas necesarias para la vida.

Esta propuesta didáctica pretende ser flexible y abierta, mediante la utilización de unas fichas de análisis de documentos combinables de múltiples maneras, para que el profesorado las adapte y/o modifique en comunidades de aprendizaje diversas de Educación Secundaria.

PALABRAS CLAVES: Objeción de Conciencia, Insumisión, Movimientos Sociales, propuesta didáctica, Didáctica de las Ciencias Sociales, educación para la paz, antimilitarismo, aprendizaje significativo, metodologías cooperativas y colaborativas, pensamiento histórico, ciudadanía democrática, Derechos Humanos, mundo globalizado.

ABSTRACT: This is a didactic proposal for 4th ESO and 1st Bachillerato in secondary education about the social movement of conscientious objection and insubordination in Navarra, taking into account the 2015 Navarra Educational Curriculum and under the guidance of the Didactic of Social Sciences: assembling meaningful learning, peace education, antimilitarism, cooperative-collaborative methodologies and historical thinking, to create a democratic and global citizenship.

In a Globalised World, local historical processes inserted in a global world, through the didactic objective of awakening consciousness and critical thinking, aim to confront the global problems of the 21st century, such as wars and economic, social, political and cultural militarism. Today, non-violence can be an useful learning model for social change. By making visible, understanding and generating empathy towards non-violent struggle and civil disobedience, we collaborate in the construction of student-subjects trained in socio-historical thinking, but also in their configuration and articulation as social and political subjects. The material and intangible heritage bequeathed by the experiences of the conscientious objectors, is a historical source that upon knowing, analysing and interpreting, is transformed into historical evidence; and the conscientious objectors into new historical subjects that the renewal and historical research are making visible. Therefore, in this process, the students will acquire the necessary historical competences for life.

This didactic proposal aims to be flexible and open, through the use of document analysis cards that can be combined in multiple ways, so that teachers can adapt and/or modify them in diverse learning communities of Secondary Education, within the sociological framework in which education is conceived as a democratic instrument for social change.

KEY WORDS: Conscientious objection, insubordination, social movements, didactic proposal, Didactic of Social Sciences, peace education, antimilitarism, meaningful learning, cooperative and collaborative methodologies, historical thinking, democratic citizenship, human rights, globalised world.

AURKIBIDEA

1. ABIAPUNTU MODUKO HAUSNARKETA SOZIOPEDAGOGIKOA.....	7
2. MARKO EPISTEMOLOGIKOA	13
2.1. GARAPEN-OSTETIK TRANTSIZIOAREN DISKURTSOETARA _____	13
2.2. ZER DA EZBIOLENTZIA? _____	17
2.3. TEORIA ETA EKINTZA EZBIOLENTZOAREN BILAKAERA HISTORIKOA _____	20
2.4. INTSUMITUEN MUGIMENDUA ESPAINIAN _____	28
2.5. NAFARROAKO INTSUMITUEN MUGIMENDUA _____	59
2.6. ONDORIOAK _____	64
2.7. MILITARISMOA ETA MILITARIZAZIOA GAUR EGUN _____	67
3. MARKO DIDAKTIKOA.....	70
3.1. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKORAKO FITXAK _____	70
3.2. GIZARTE ZIENTZIEN DIDAKTIKA _____	71
3.3. BAKERAKO HEZKUNTZA _____	75
3.4. TALDEKATZE KOOPERATIBO ETA KOLABORATIBOA _____	77
3.5. AHOZKO ITURRIAK _____	79
4. MARKO KURRIKULARRA.....	80
4.1. NAFARROAKO CURRICULUM-A _____	80
4.2. GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK _____	87
4.3. LOMLOE (2020) _____	88
5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	89
5.1. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURU OROKORRAK _____	90
5.2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA _____	90
5.3. EBALUAZIO SISTEMA _____	137
6. ONDORIOAK	149
7. BIBLIOGRAFIA.....	151
8. ERANSKINAK.....	165

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Ezbiolentziaren korronteak	19
Taula 2: Gizarte Mugimenduaren fase kronologikorako proposamenak	32
Taula 3: KE eta Intsumisioaren kausak eta testingantzak	36
Taula 4: Gizarte Mugimenduaren ekintza kolektiboak eta iturri historikoak.....	44
Taula 5: Lankidetzeta taldeak	77
Taula 6: DBH 4. mailako curriculum xedapenak	80
Taula 7: Batx. 1go mailako Mundu Garaikidearen Historiako curriculum xedapenak.....	82
Taula 8: Batxilergoko Nafarroako Geografia eta Historiaren curriculum xedapenak.....	84
Taula 9: Bi etapetarako helburu orokorrak	86
Taula 10: Proposamen didaktikoaren TDF eta saioen egitura.....	89
Taula 11: Ebaluazio tresna eta bere portzentaia	138
Taula 12: Irakaslearen talde txikien behaketa fitxa	140
Taula 13: Ikaslearen autoebaluazio fitxa.....	141
Taula 14: Ikaslearen koebaluazio-fitxa.....	141
Taula 15: Taldeen arteko heteroebaluazio-fitxa.....	142
Taula 16: Proposamen didaktikoaren azken produktua ebaluatzeko errubrika	145
Taula 17: Pentsamendu historikoaren ebaluazio-errubrika.....	146
Taula 18: Amaierako produkturaren pentsamendu historikoaren errubrika	147
Taula 19: Irakaslea ebaluatzeko inbentarioa.....	147

IRUDIEN AURKIBIDEA

<i>Irudia 1: Legediaren bilakaera (1960-2001)</i>	<i>48</i>
<i>Irudia 2: Gizarte Mugimenduen elkarreragina</i>	<i>55</i>
<i>Irudia 3: Militarkuntza eta Antropozenoa</i>	<i>68</i>
<i>Irudia 4: Bloom-en taxonomia berrikusiaren zuhaitza</i>	<i>75</i>
<i>Irudia 5: MAL-eko garapen jasangarriaren helburuak.....</i>	<i>88</i>

1. ABIAPUNTU MODUKO HAUSNARKETA

SOZIOPEDAGOGIKOA

Proposamen didaktikoa aurrera eramango duen ikasleriak, Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren Gizarte Mugimeduak (1971-2002), ezbiolentzia eta desobedientzia zibilaren bidez, Nafarroan gizarte aldaketa demokratikoa sustatzeko (giza eskubideetan sakonduz) gai izan zen ala ez froga historikoen bidez ikertuko du. Gainera, memoria intsumituaren ekarpena orainalditik pentsamendu kritikoarekin aztertuko du.

Izan ere, bortizkeria ekintza politikorako tresna eraginkor eta arrakastatsua kontsideratua izan da Historian zehar. Bigarren Hezkuntzan aldaketa historiko sozial, ekonomiko, politiko eta kulturalaren baliabide nagusi bezala ikasi eta irakasten da. Alabaina, bortizkeriaren alternatiba edo/eta bidelagun den teoria eta ekintza ezbiolentzia ere betidanik erabili izan da Historian zehar; hainbat adibidek toki asko izan dute historia liburuetan (Gandhi, Luther King...), baina mitifikatutako heroi ezbiolentzia eta bakarti bezala ikasi dira.

Lan honen bidez, ezbiolentziaren paradigma deskribatu, berbalioztatu, ikustarazi eta ikasgelan aplikatuko da giza eskubideen lorpenerako aldaketa sozialaren tresna bezala. Biolentzia lez, ezbiolentziak ibilbide propio eta bereizgarria izan du, lekuan lekuko berezitasunekin baina baita prozesu global gisa ere. Ezbiolentziaren bidean, gainera, biolentziarekiko dikotomia faltsutik aterako gara, perspektiba poliedrikoa eta konplexuagoa argiztatuz.

Lehenik eta behin, ezbiolentziaren bilakaera historikoa pentsamendu historikoaren bidez jorratuko dugu: prozesu historiko orokorrak zein tokian tokiko gertakari historiko ezbiolentzia zehatzak, hitoak, epe luze, ertain nahiz motzeko prozesu historikoak, elkarreraginak, konexioak, prozesuen kutsaketak, aldiberekotasunak, gainjartzeak, jarraikortasunak, aldaketak, multikausalitatea, ondorioak, eboluzio historikoaren erritmo ezberdinak eta iturri historiko ezberdinak aztertuko dira; modu sistematikoan ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan txertatuz. Kasuan kasu, zenbaitetan ezbiolentziaren praktika eta teoria uztartzen dira, beste batzuetan korrante teoriko ezberdinak eta praktika historikoa bereizten dira, eta beste zenbaitetan teoria zein praktika bide ezberdinetatik doaz baina elkarreraginean betiere.

Esan bezala, iraganeko gatazka eta emantzipaziorako borroken konpromiso politikoak aitortza murriztua izan du. Are gehiago ezbiolentziaren kasuan, bai bere emantzipazio zentzuagatik baina baita emantzipazioa lortzeko modu ezbiolentziagatik ere. Enzo Traverso (Traverso, 2019) oso argi azaltzen du:

“El siglo XX no se compone exclusivamente de las guerras, el genocidio y el totalitarismo. También fue el siglo de las revoluciones, la descolonización, la conquista de la democracia y de grandes luchas colectivas. Esta memoria ha sido deslegitimada hoy en día, después de haberla ocultado y enterrado. Yo la llamo una “memoria marrana”, en tanto que es una

memoria oculta, clandestina, como la de los marranos en el Reino de España cuando la Inquisición”.

Era berean, Traversok memoria doilor, ustel edota zital hauek berreskuratzearen beharrezkotasuna goraiatzeko du “presentismoaren” kaiola hautsi nahi bada. Esaterako, Mendebaldeko langileriaren memoria eta memoria antifaxistaren ezabaketa ez errepikatzearen. XXI.mendearentzat gizadiaren proiektu berriak, utopiak edo/eta etorkizun taupadak eraikitze bidean, gaurko nerabeei datozkien erronka globalei (mundu mailako desberdinkeria soziokonomikoa, kolapso ekologikoa, antropozenoa, militarismoa, migrazio masiboak...) aurre egiteko harrimintak helarazi behar zaizkie: “El recuerdo de los movimientos colectivos adquiere una dimensión anti-conformista, quizá subversiva en una época neoliberal dominada por el individualismo y la competencia” (Traverso, 2019).

Lan honek memoria kolektiboaren aldaketarako baliabidea izan gura du. Desobediencia zibilean oinarritutako memoria intsumituek oztopo aunitz izan dituzte: “es muy larga la lista de desobediencias civiles que no constan en nuestra memoria colectiva. Y es que el impacto de las muy graves secuelas de la guerra y la violencia eclipsa experiencias más constructivas” (Agirre, 1998: 42). Beraz, ezbiolentziaren memorien kasuan, Traversoren memoria ustelen ezabaketa prozesu kontzientearen tesiari, biolentziaren ikusgarritasunaren tesia gehitzen zaio; ezbiolentziak ikustezintasunaren dimentsio bikoitza jasan du.

Gure kontzeptu nagusiak giza eskubideak, gizarte aldaketa, justizia soziala, ekintza kolektiboak, autonomia, hiritartasun eta herritartasun aktiboa eta demokratikoa izango dira. Castañar Pérezek (2013: 19) dioen bezala <<es la sociedad civil que transforma de abajo hacia arriba las instituciones>>. Behetik gora, gizarte zibilak giza eskubideak lortu eta mantendu behar ditu. Izan ere, Lourenzo Fernandez Prietori erreferentzia eginez, “desde la evidencia de varias generaciones, educadas en los Derechos Humanos, en los valores democráticos y en los derechos civiles, los derechos se consiguen y se pierden. Que no son eternos. Que se consiguen y se pierden” (Fernández, 2017: 01:28:33). Ikasketa hori proposamen didaktikoaren bidez egiaztatuko da eta ikaslerian uzten dituen aztarnak baloratuko dira.

Horretarako eta bigarrenik, Nafarroan XX. mendearen 1970ko hamarkadatik XX. mende amaiera arte jaio, hazi eta garatu zen gizarte mugimendu ezbiolento esanguratsua, Kontzientzia Eragozpena eta Intsumituen mugimendua, hezkuntza formalean klaseratuko da. Nafarroako gizartean sakonki eragin zuen baina orain arte ez du Bigarren Hezkuntzan lekurik izan, ez Institutuetan, ez Unibertsitateetan ezta beste Instituzioetan ere. Duela gutxi arte, Nafarroako Memoriaren Institutuak memoria subalterno hauek aldarrikatu, gorde eta zabaltzen hasi baita.

Nafarroako Memoriaren Institutua, 2018ko maiatzean sortu zen. Foru Erkidegoan, 2015ean aldaketa politiko handia suposatu zuen foru gobernua osatzeko akordio programatikoa (Geroa Bai, EH Bildu, Izquierda-Ezkerra eta Podemos-Ahal Dugu partido politikoek osaturiko

koalizioaren testuinguruan) esker. Nafarroako Administrazio Publikoaren barruan, Hiritar Harremanen Departamentuaren baitako erakundea da, Bakea, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Orokorren barruan kokatzen delarik. Azken urteotan, NMI-k memoria intsumituaren instituzionalizarioari ekin dio (Layana & Gastón, 2019). Intsumisioaren artxibo historikoa osatu eta jadanik martxan jarri dute. Bertan, 6.000 baina dokumentu gehiago digitalizatu dituzte: ahozko elkarrizketa kolektiboak grabatu dituzte, hemeroteka (egunkari, aldizkari lokalak eta nazionalak), kolektibo intsumitu nagusien dokumentazioa, karteleria eta pegatinak (Nafarroako Gobernua, 2019) besten artean. Hortaz, Intsumisioaren ondare materiala eta ez materiala bildu dute. Horrela, intsumisioak sujetu historikoaren kategoria bereganatuko du. Artxibo historiko honek, NMI-ren bi helburu garrantzitsuenak beteko ditu: intsumisioaren borroka bildu, gorde, kontserbatu eta digitalizatzea, nafar gizartean memoriaren zabalpena eta difusioa egin ahal izateko. Modu honetan, Pedro Oliver Olmoren esanetan, “las instituciones de Navarra, con esta iniciativa sobre la historia del movimiento de objeción e insumisión, están marcando un camino que no se había transitado nunca. Tiene un gran valor sociocultural y político, desde luego, pero también académico” (Iribarren, 2020), baita hezitzailea ere. Master amaierako lan honek, hain justu ere, politika publikoen urratsa emanda dagoenean, balio hezitzaile eta didaktikoaren erakuntzan lehenengo urratsa emango du.

Baina, zer dela eta balio soziala, kulturala eta politikoa? Gizartetik, gizarte zibilak, gizarteari eragin zioen giza eskubidea lortu zuelako, gizarte aldaketa gauzatu: “fue la desobediencia civil del movimiento antimilitarista y no el sistema de partidos políticos quien nos cambió el chip mental y nos convenció de que era posible eliminar la <<mili>>” (Agirre, 1998: 60), ez ordea, soilik egitura politikoetan aukera agertu zelako. Gizarte mugimendu honek utzitako aztarna ezabatzearen, Estatutik ahalegindu ziren botere politikotik ahalbidetutako lorpena izan zela zabaltzen. Desmemoria mekanismo hauen bidez, “lo que desaparece es el recuerdo, tanto en el discurso público como en la conciencia histórica, de una emancipación conquistada y no concedida” (Traverso, 2012: 314).

Aldi berean, ezin da ahaztu berriz ere Oliver Olmok (Iribarren, 2020) baieztatzen duena, gaztediari bere lekua emanez, Zygmunt Bauman (1925-2017) soziologoaren Mundu Likidoan (Bauman, 2007) hezkuntza erronka likidoei aurre egiteko tresna eta gaurko gizarte mugimenduen eredu, abiapuntu nahiz inspirazio izan baitaiteke:

“También se trata de construir la memoria (las memorias) de lo mejor de esta sociedad, aquella juventud que apostó por una sociedad desmilitarizada enfrentándose sin violencia a resortes del Estado muy poderosos y -no lo olvidemos- con una gran capacidad para generar persuasión, miedo y daño”.

Baina, zer dela eta balio akademikoa? Intsumisioaren Historia, memoria kolektiboa da, hau da, taldearen bizipen eta esperientzia afektibo eta kognitiboen transmisioan oinarritzen da, baina dagoeneko historizatua edota objetibizaturik dago. Lekukotasunak Historia bihurtu dira eta iturri historikoak ebidentzia bezala tratatuko dira: ikus-entzunezkoak, idatzizko

dokumentuak eta baliabide grafikoak Historiaren analisirako baliabide metodologikoak direlako. Bitartean, ikasleriak gai honen inguruan modu ez-kontzientean iraganeko oroitzapen eta gizarte irudikapen kolektiboen multzo eratuarekin dator ikasgelara, masa komunikabideek eta Transmedia Unibertsoak sortutakoak, gehienetan botere politiko eta ekonomikoek zabalduz dituztenekin bat datozenak. Aurrezagutza horietatik abiatuak gara (akats kontzeptualekin edo/eta akats kontzeptualik gabeak), aktibatu, zuzendu eta perspektiba zabaltzeko.

Baina, zer dela eta balio hezitzailea? Azken hamarkadetan, historiografian berrikuntza eta ekarpen handiak egon dira, hezkuntzan integratu eta moldatu behar direnak. Iturri historiko hauek instituzionalizatu ostean, hezkuntza sisteman aplikatzea errazten dute. Testuinguru historikoaren azterketa eta interpretazioa gauzatzeaz gain, lan honek norantza horren lehen pausuetan lagundu nahi du. Behin hezkuntza sisteman txertatuta, gizarte zibilean pentsamendu kritikoa, sortzailea eta mentalitate aldaketa ekar lezake; gizarte aldaketa behetik gora egin daitekeelaren kontzientzia eta praktikan lagundu dezake. Arazo global larriei aurre egingo dioten belaunaldi batzuekin lanean ari gara eta Antropozenoaren gizadiak iraungo badu, gizarte aldaketak herritar eta hiritarrarek burutuko dituzte, demokrazia parte-hartzailea bultzatuz.

Lan honek burujabetza borrokan espazioa izan nahi du. Pertsona intsumituak eta haien gizarte oinarria nola sujetu politiko eta historiko bezala eratu ziren aztertu nahi du. XX. mendearen amaierako gizarte mugimenduen baliagarritasuna aldarrikatzen du, utopia txiki eta handien amaiera baztertuz. Guzti hau, gizarte zientzien didaktikaren ikuspegitik, metodologia aktibo eta partehartzaileak integratuz. Izan ere, ikastetxearen eredu sistemikoan oinarritzen gara: institutua sistema irekia da, gizartearekin eta beste hainbat instituzio sozial eta formalekin elkarreragin etengabea dihardu, zentro eta talde bakoitza errepikaezina izanik (Apalategi, 2006).

Era berean, balio hezitzailea, Historiaren nozio aldaketatik dator. Historia, orainalditik eraikitzen dugun iraganaren diskurtso kritikoa da. Behin-behinekoa. Prozesu, gertakari eta ekintzak narrazio bezala berreraikiko dira. Iragan itxia den heinean, historialari-irakasleak urruntzea lortuko du eta Historiaren azterketa eta interpretazioa memoria historiko bihurtuko da. Nola? Kontrako memorien sinkronizazioa, osagarritasuna, aberastasuna eta beharrezko talka bilatuko da; ezagutza historiko egiazko eta pluralaren elkargunea bilakatuz. Iraganaren konplexutasunera hurbilduko gara. Azkeneik, ezin da ahaztu, historialariak irakasleak lez, memoria espazio zehatzen parte direla; distantzia kritikoarekin irakasle praktikan hori onartu beharko da (Traverso, 2012).

Irakaskuntza Masterraren alderdi praktikoari dagokionez, *Iturrama BHI* Bigarren Hezkuntzako Institutuan proposamen didaktiko honen lau saio burutu dira. 1go Batxilergo mailako Nafarroako Geografia eta Historia hautazko ikasgai jarri da praktikan, emaitza eta ondorio ezberdinak iritsiz. Hausnarketa horietatik abiatuz, proposamen didaktikoa hobetu eta zabaldu da, etorkizunean Bigarren Hezkuntzako irakasleriak erabiliko duelakoan.

Horregatik, paradigma soziokritikoari jarraiki, hezkuntza praktika eta ikerketa, bai hezkuntza bai gizarte aldaketarako tresna bezala ulertzen da. Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren Gizarte Mugimenduaren proposamen didaktiko hau proposatu, baloratu, ebaluatu eta hobetzea izango da master amaierako lan honen helburu nagusia, gizarte aldaketa demokratikoa eta etengabeko hobekuntza didaktikoa lortzeko asmoz.

Guzti hau azaltzeko eta garatzeko, MAL honetan aspektu ezberdinak jorratuko ditugu. Hasteko, master amaierako lan honen egitura honakoa izango da:

Lehenik eta behin, marko epistemologikoa azalduko da. Bertan ulertuko dugu zergatik merezi duen klasean gai hau lantzea, sozialki aipagarria den gaia delako. Kolapso ekologikoa, krisi klimatikoa... bor-bor dagoen problematika globala militarkuntzarekin erabat elkar erlazionaturik dago. Gainera, intsumisioak gizartea borroka sozial eta demokratikoaren eredia, aldagai etikoa bitarteko eta helburuetan barneratzen du. Testuinguru historikoaren errealitate konplexu sinkroniko eta diakronikoa maila lokalean, Estatu mailan eta Nazioartean islatzen du. Erritmo historiko ezberdineko prozesu historikoak daude, haien artean gainjartzeak, aldiberekotasunak, hausturak... denboraren geruza estratigrafikoaren irudia eraikitzen dute.

Segidan, material didaktiko hauek gaurko hezkuntza legedian nola integratzen diren azaltzen da, curriculum, konpetentzia historikoak, eduki historikoak, balio demokratikoak, kontzientzia kulturala, herraminta digitalak, etab. jorratuz.

Gero, oinarri pedagogiko eta didaktikoan sakonduko da, marko epistemologikoak pentsamendu historikoa eta bakerako hezkuntza lantzeko aukera sendoa eskaintzen baitu.

Proposamen didaktikoaren bidez, mota guztietako iturri historikoen erabilera sustatuko da eta lankidetzan sakontzeko aukera ematen da, transposizio didaktikoen fitxa konbinagarrien bidez ikas-komunitate bakoitzaren behar eta interesetara moldatzeko aukera zabalduz. Proposamen didaktikoa neurtzeko ebaluazioa jarraia zein sumatiboa izango da eta talde handia, txikia eta lan indibiduala neurtuko da. Ebaluatzailearen papera, ikasle eta irakaslearen artean banatuko da. Ondoren, ikasleria eta irakasleriak proposamen didaktikoaren ulermen eta prestaketarako lagungarria den glosario modukoa eskeintzen da; interesa duten gaietan sakontzen eta kontzeptuak argitzen laguntzeko asmoarekin egina dago.

Bukatzeko, ondorio batzuk plazaratuko dira, proposamen didaktiko hau ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren behin-behineko ekarpena baita. Hasiera bat besterik ez da, eta aplikazio didaktikorik gabe, horren inguruko hausnarketarik gabe eta horren ondoriozko hobekuntza kolektiborik gabe, proposamena funtzio sozial hezitailerik bete gabe soilik maila teorikoan geratuko litzateke.

Amaierako eranskinek, batez ere ariketa didaktikoak eta Iturrama Institutuan egindako praktketan ateratako emaitzak erakutsiko dira. Horrek, proposamen didaktikoa hobetzen lagundu zuen.

2. MARKO EPISTEMOLOGIKOA

2.1. GARAPEN-OSTETIK TRANTSIZIOAREN DISKURTSOETARA

Gaur egun, Mundu Globalizatuan bizi gara: globalizazio ekonomikoaren munduan, zeinetan merkatal-produktu zein kapitalaren zirkulazioa librea den, pertsonena eta ideiena mugatua, zigortua eta pribatizatua den bitartean. Mundu globalizatu hau arautzen duen sistema ekonomikoa, kapitalismoa bere fase neoliberaleran, garapenaren paradigman oinarritzen da. Garapena mito eta erlijio bezala. Gizartean garapen-maila hazkunde ekonomikoarekin identifikatzen da, eta hazkunde ekonomiko hori pertsona eta baliabide naturalen ustiakuntza etengabe eta amaigabean oinarritzen da; beraz, baliabide natural agorgarrien munduan hazkunde agortezina bilatzen da (Valle, 2013). Horretarako, kapitalismoak hiru zutabe nagusi ditu: militarismoa, politika neoliberalak eta patriarkatua.

Baliabide naturalak Hego Globalean (munduko populazioaren %80a) kokatzen dira eta horiek kontsumitzen dituen biztanleria Ipar Globalean (munduko populazioaren %20a) kokatzen da (La Editora, 2014). Hala ere, mundu aberastuaren Ongizatearen Estatuetan, bazterkeria prozesu geroz eta bortitzagoak sufritzen ari den populazioaren portzentaia geroz eta zabalagoa da (Standing, 2014: 147-184). Gastu sozialaren murrizketa etengabea zein bizi baldintza eta eskubideen urraketaren gorakada (Solidaridad Internacional Andalucía, 2016) eutsia da. Politika neoliberalen ezarkuntza hori, Estaturik gairikiko erakundeek (FMI, OMC, OCDE, BM) arautzen dute, herrialdeen merkatuak guztiz ireki eta gastu publiko soziala murriztu dezaten. Esaterako, Txileko 2019ko eta Kolonbiako 2021eko gizartearen protesta sozialak testuinguru horretan kokatzen dira. Beraz, Hego eta Ipar Globalaren nozioa ez da geografikoa, politikoa baizik.

Baliabide naturalak ustiatu eta horietaz profitatzen den Ipar Globaleko eliteak, ekonomia globala maneiatzen duten txotxongilolariak dira. Hego eta Ipar geografikoan bizi dira. Korporazio transnazionalen pribilegiozko-sistemaren eragile nagusiak hauek dira: finantzen jabe zein zuzendariak, korporazio transnazionalen kideak, baliabide naturalak ustiatzeko enpresen jabeak, industria-militarraren jabeak, *mass media* handien jabeak nahiz elite politikoak finantzatu eta kontrolatzen dituzten interes-taldeak. Mundu mailako interes-sare oligarkiko geroz eta murriztuagoa eratu dute. Ekoizpen bitartekoak populazioaren %1 honen eskuetan daude. Botere ikustezina da, ardura politiko eta ikusgarritasunik gabea.

Beraz, joera kezagarria topatzen dugu mundu mailan aberastasunaren banaketari dagokionez. Nahiz eta azken hamarkedetan BPG gehien hazi duten herrialdeen artean India eta, batez ere, Txina egon, munduko herrialde gehienetan ezberdintasun sozialak areagotzen ari dira, politika neoliberalen ondorioz.

Baliabide natural horien ustiakuntza ziurtatzeko, aipatutako erakunde supranazionalen politika ekonomikoaren inposaketak funtzionatzen ez badu, militarkuntza baliatzen da. Potentzia nagusiek (AEB, Errusia, Txina) edo potentzia erregionalek (Turkia, Iran, Saudi Arabia) baliabide naturalen ustiakuntzarako zonaldeen kontrol geostrategikoa (batez ere Ekialde Ertainean eta Asiako Hegoekialdean kokatzen dira) bilatzen dute. Irak (2003-2011) eta Afganistango gerra (2001-2014 eta 2014), horren adibide argiak dira. AEB eta bere aliatuentzat petrolioia ziurtatzeko gerrak izan ziren. Siriako Gerra (2011), Libiako Gerra (2011-2014 eta 2014), Yemengo gerra (2014), Somalia, Kongo eta Afrikako beste herrialdeetan gertatzen diren gudak ere interes ekonomikoak edozeren gainetik eskuratzeko bitartekoak dira: “países donde había gobiernos poco proclives a acatar la implementación del sistema global de gobernanza neoliberal; no se dudó en desestabilizarlos mediante intervenciones militares que ocasionaron guerras” (Ortega, 2019: 185).

Aldi berean, gudateen ondorio zuzenak migrazio masiboak dira. Alabaina, gerren osteko ondorio latzak saiestu edota zapaltzeko, potentziek militarkuntza erabiltzen dute. Alde batetik, gerra hondamendietatik ihesi doan biztanleria geldiarazteko asmoz, mugen sekuritazioa indartzen eta militarizatzen doa. Bestetik harrera-herrialdeetan etorkinak jasotzeko bortizkeria-neurriak sistematikoak dira. Mundu aberastuko eliteek, politikari eta masa komunikabideen eskutik, Estatu-Nazioaren abertzaletasunaren diskurtso erradikala aldarrikatzen dute (Segurtasun Nazionalaren beharrezko babesaren kontzeptuarekin lotuta). Krisi sistemikoaren aldagai hauek, krisi politikoan nabaritzen dira: Europako (Italia, Suedia, Alemania, Frantzia, Espainia, Polonia, Hungaria) eta beste hainbat herrialdeetan (Filipinak, Brasil, India, Myanmar) ultrasukuindar partiduen igoera lazarria da. Faxismo sozialaren politikak geroz eta sistematizatuagoak dira eta mundu mailako migrazio masiboak arazo global bilakatu dira.

Laburbilduz, “los siglos XX y XXI ejemplifican la dinámica intrínsecamente ecocida del crecimiento exponencial de la civilización humana, al mismo tiempo exhiben otra característica paralela: la proliferación sistemática de la guerra, la violencia masiva y las múltiples formas de genocidio” (Ahmed, 2019: 63). Gatazkak konpontzeko tresna nagusia bortizkeria sistematikoa da.

Kapitalismoak, militarkuntzak eta patriarkatuak elkarreraginean funtzionatzen dute. Mundu mailan kolapso ekologikoa eragin dute: “relación de opresión hacia la naturaleza que establecemos para mantener el modo de vida occidental y que ha provocado una crisis ambiental difícil de revocar si no se produce un cambio de paradigma económico y sistémico a gran escala (Centre Delàs d’Estudis per la Pau, 2021: 23). Paradigma ekonomizista honek, sistema ekonomikoa beste bi subsistemen (giza subsistema eta subsistema naturala) gainetik ezartzen den sinesmena finkatu zuen. Aitzitik, sistema ekonomikoa subsistema bat da eta giza subsistemarekin batera, biosfera sistemari esker funtzionatzen dute. Natura ez da mugagabea eta ezin da ekonomia mendebaldetarraren

menpean egon. Naturaren baliabideak mugatuak dira eta hazkunde ekonomiko mugagabearen paradigma deuseztatu behar da.

Mendebaldeko bizitza eta garapen-ereduaren azelerazioa XIX. mendeko Industrializazioan du jatorria. Gizarte industrialen garapen ustela bizitzaren iraungarritasunari muzin eginez inposatu eta esportatu zen. Klimaren asaldura eta bioaniztasunaren galera izugarria eragin dute, batezbestean urtero 30.000 espezie iraungitzen direlarik (Herrero, 2012). Horrela, fluxu ziklikoen energia modu itzuliezinean asaldatzen da, ekosistemen oreka hautsiz. Gainera, energia fosil merke agorgarrien ustiakuntzan oinarritzen da: ikatza, petrolio (jadanik gailurra gauditua dago) eta gas naturala bezalako lehengaien ustiakuntzan hain zuzen ere. Lehengai hauen gehiegizko ustiazkuntzak eskasia eragin du. Bestetik, naturaren azpiegiturak atzerabuelarik gabe kutsatzen ari direnez, “el agua dulce, los bosques, la pesca, los suelos fértiles, la fauna salvaje o los arrecifes de coral” bere eskasia progresiboa (Herrero, 2012: 41) eztabaidaezina da. Prozesu honek injustizia intergenerazionala sortu du, dagoeneko etorkizuneko belaunaldientzat gizadiaren biziraupena ez baitago ziurtatua.

Merkatuari dagokionean, imaginario kolonialean ohiko ekonomiaren gizarte ekintzaren oinarria dirudi. Erauztea – ekoizpena – banaketa – kontsumoa - deuseztapena ziklo (Storyofstuffproject, 2009) geroz eta bortitzagoa gauzatzen du. Aldiz, zorrez jositako sistema da. Merkatutik igarotzen ez diren lan ez monetizatuak esker (emakumeek burututako zainketa lanak) sostengatzen da eta biosferari esker sostengatzen da, ikustezinak baina biziraupenerako eta giza segurtasunaren nozioa ziurtatzeko funtsezko faktoreak dira. Horregatik, biosferarekin armonian, lana eta generoaren kontzeptualizazio berria burutzea eta gizarte erreproduzioaren lanei esanahi berriak ematea (Grupo de Feminismos de Desazkundera, 2013) beharrezkoa da.

Gauzak honela, Antropozenoa izeneko aro geologikoan kokatu gara. Giza jarduerak ekosistema globalean eginiko eragin esaguratsuen aroa izendatzeko komunitate zientifikoak asmatutako kontzeptua da. Kontzeptua sortu zutenek, hasieran XVIII. mendeko bukaeran kokatu zuten hasiera, industrializazio prozesuaren erregai fosilen erabilera masiboarekin batera. Hori dela eta, eta jakinik naturaren suntsipena kapitalismoaren garapenarekin lotuta dagoela, autore batzuk, J. W- Moore bezala, Kapitalozeno terminoa proposatzen dute.

Aurretik aipatu bezala, Antropozenoaren ekoizpena eta militarismoaren genozidioa binkulatuta daude: “Antropoceno, asociado a un aumento exponencial del consumo de combustibles fósiles y materiales, y al aumento de las emisiones de CO2, guarda conexiones con el incremento de los conflictos y la violencia mundial” (Ahmed, 2019: 57). Gaur egun, Antropozenoa datatzeko beste bi data proposatzen dira. Biek, hari geologikoa eta historikoa bortizkeriarekin josten dute.

Lehenengoa, 1610. urtea da: “Esta fecha marca el intercambio irreversible de especies tras la colisión del Viejo y el Nuevo Mundo», coincidiendo con «una caída inusual

asociada en el CO2 atmosférico capturado en los núcleos de hielo de la Antártida». Deriva del impacto medible de la agricultura en la colonización de América. La caída de CO2 en ese momento, visible hoy en día en los núcleos de hielo, se debió al «rebrote de la vegetación en tierras agrícolas abandonadas tras la muerte de 50 millones de indígenas estadounidenses (en su mayoría de la viruela traída por los europeos). La anexión de las Américas por parte de Europa también fue un precursor esencial de la Revolución industrial y, por lo tanto, se conecta a las oleadas posteriores asociadas al cambio ambiental” (Ahmed, 2019: 68).

Perspektiba historikoari dagokionez, Mendebaldeak bere lurraldea gainditu eta Aro Modernoan Modernizazioaren proiektua esportatu zuen garaia da. Antropozenoa Mendebaldeko Inperioaren bortizkeria intrinseko eta historikoarekin elkarlotzen da. Orain dela 500 urte baino gehiago, natura, pertsonak, diskurtsoak, imaginarioak eta adimenak kolonizatzen hasi zen (PensarEsGratis – Documentales, 2017). Esplotazio horrek sortutako soberakin ekonomikoa, kanporatu edo besteratzten hasi zen. Ondorioz, Amerikako kolonizazioa, espansionismoa, Irlanda eta Indiako gosete masiboak (1-12 milio hildako), esklabutza (65 milio hildako) edota Britainia Handiko Iraultza ahalbidetu zen: “se trata, pues, de un régimen internacional empapado en sangre que estaba inextricablemente vinculado a la formación de un sistema mundial capitalista” (Ahmed, 2019: 69).

Bigarrena, 1950. urtea da. Data horretan, “expansión industrial, la proliferación de productos químicos agrícolas y la invención y el despliegue de la bomba atómica, cuyos residuos radiactivos se incrustaron en los sedimentos y el hielo glacial convirtiéndose en parte del registro geológico. Todo esto demostró una huella humana inconfundible y sin precedentes en todo el planeta cuyos impactos serán visibles durante décadas, siglos y milenios” (Ahmed, 2019: 63). Gerra Hotzan, prozesua bizkortu zen. Bloke kapitalistaren etsai formala SESB eta Varsoviako Paktua (1955) ziren. Bloke sobietarra 1991an desegin zen eta “mehatxua” edota “etsaia” desagertu zen. Kontran, gastu militarrek gora egin zuten eta gerra gehiago daude. Zer dela eta? “El gasto militar no tiene nada que ver con la defensa de los pueblos. Y sin embargo, es un gasto extraordinario” (Fernando Quiles, 2013). Arcadi Oliveres-en arabera, gastu militarra inertzian, armagintzaren modernizazioan eta konplexu militar-industrialaren boterean oinarritzen da.

Laburbilduz, gure sistema, kapitalista, kontsumista, hetero-patriarkala, merkatuzentrikoa, militarista, energiajalea, biozida eta azeleratzaile entropikoa da. Krisi multmaila batera eramán gaitu.

Zorionez, Modernitatearen paradigma gainditzeko haustura hirukoitza burutzeko proposamenak agertu dira (gero zehaztuko dira, egileak barne). Lehenik eta behin, apurketa sinbolikoa-epistemologikoa, hau da, zibilizazio krisiari aurre egiteko imaginario kolektiboaren deskolonizazioa. Modernizazioaren porrota onartu behar da. Gainera, prozesu historiko horrek gaur egun duen prozesu ebolutibo, lineal eta progresiboaren adierazpena deuseztatu behar da. Hain justu ere, master amaierako lan honek horretan

lagunduko du. Bigarrenik, maila ekonomiko-materialean, desazkundera (Latouche, 2010; Orte, 2011) proposatzen da. Hirugarrena, haustura soziopolitiko da, aurrekoarekin estuki lotua: “se trata de pensar de otra manera para fomentar y/o crear unas estructuras socioeconómicas y políticas distintas” (Pérez, 2017-2018: 7).

Zentzu horretan, gizarte aldaketa behetik gora izango da: “las organizaciones de la sociedad civil tienen un papel esencial para forzar un cambio de sistema que intente resolver la crisis ambiental, dado que no están ligadas a los intereses dominantes. Tal como dijeron el año 2017 un total de 15.372 científicos de 184 países, el activismo de estas entidades es necesario para conseguir que los políticos se vean obligados a actuar haciendo lo que hay que hacer para resolver la actual crisis ambiental. La actual crisis ambiental requiere un cambio total de paradigma, desmilitarizando y en el que se aprovechen los recursos destinados a las estructuras militares, abordando, con una nueva perspectiva, opuesta al modelo neoliberal y capitalista, que entendemos que debe ser antimilitarista, feminista y ecosocial (Centre Delàs d’Estudis per la Pau, 2021: 73-74).

Horregatik, bilakaera historiko ertain eta luzeko ideologia eta praktika anitzek (ezbiolentzia, desobedientzia zibila, memoria intsumitua, anarkismoa, bakezaletasuna, feminismoak, *sumak kawsay* mundu-ikuskerak, etab.), epe motzeko trantsizioko diskurtsoen marko berriekin (desazkundera, ekologismo soziala, ekofeminismoa, urbanismo feminista, trantsizio-hiriak, etab.) batera, maila lokal eta globalean alternatiba berriak eraikiko dituzte.

2.2. ZER DA EZBIOLENTZIA?

Ezbiolentziaren kontzeptualizazioa anitza bezain zabala da: ez-biolentzia, ez biolentzia, ezbiolentzia, antimilitarismoa, bakezaletasuna, pazifismoa, pazifista, pazifikoa, erresistentzia pasiboa, erresistentzia aktiboa, erresitentzia zibila, ekintza ez biolentza, desobedientzia, intsumisioa, *ahimsa*, *satyagraha*... etab. Nolanahi ere, nahiz eta hitz bakoitzak espazio geografiko eta denbora historikoak baldintzatutako xehetasunak eta ezberdintasunak barnebiltzen dituen, lan honetan ez da kontzeptualizazioaren konplexutasunean gehiegi sakonduko. Kontzeptualizazio guzti horien muina edota mamia klaseratuko dugu: <<no es negar la violencia, sino un proyecto positivo de transformación radical de la sociedad y de nosotras nosotros mismos>> (Castañar, 2013: 19). Horretarako, gizarte transformazioak ahalbidetu zituen biolentziarik gabeko gertuko prozesu historikoa aztertu eta klasera ekarriko dugu, aipatutako Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren kasua.

Ez-biolentzia hitza, *a-himsa* sanskritoaren itzulpena da. Mohandas Gandhik (1869-1948) XX. mendearen 20ko hamarkadan Mendebaldeko zibilizaziorako moldatu zuen. Kontzeptua zabaldu eta mugimendu ezbiolento europartarren artean erabilera orokortu zen. Orduz geroztik, urteetan operatiboa izaten jarraitu du. Dena den, ezbiolentzia ulertzeko, Gene

Sharp (Castañar, 2013: 23) eta Jesús Castañar Perezek (Castañar, 2013: 26) ezbiolentziari eman zioten definizioaren birmoldaketa hau ezinbestekoa da:

- **Zer da?** Giza taldeek burutzen dituzten protesta, ez-kooperazio eta interbentzio metodo-teknika multzoa dira; zerbait egin edo egiteari utziz (boikota, ez-kooperazioa).
- **Zertarako?** Gatazka baten aurrean, ekintza soziopolitikoaren teknika erabiliz, gizarte aldaketa bat lortzeko.
- **Zergatik?** Giza Eskubideak zapaltzen direlako: egiturazko biolentziaren aurka borrokatzen da. Egiturazko biolentzia ez zuzena da eta normalizatu da. Instituzio-egiturek erreproduzitzen dute; injustizia sozialak mantentzen ditu eta halabeharrez ikustezina da. Modu horretan, gizarte mugimendu antimilitaristak antolaketa militarrik eta borroka biolentoak berarekin dakartzaten balio eta funtzionamendu moldeen azterketa kritikoa gauzatu zuten. Horretatik bilatu zen eskema horietatik kanpo beste alternatiba bat.
- **Nola?** Biolentzia erabili gabe borrokatzen dira. Ez dute bortizkeria instrumentalik erabiltzen, hau da, helburu bat lortzeko bitarteko bezala. Ez dute bortizkeria sinboliko edota komunikatiborik erabiltzen, hots, bortizkeria, agresibitatea, mehatxatu ala mintzearen intentzioaren adierazpena; ahalik eta gehien minimizatzen da eta balizko mina norberarengan desbideratzen da. Honek ekintzaren dinamika komunikatiboa transformatzen du: antagonistek eta gatazka kanpotik behatzen duten hirugarren parteek hura baloratzeko modua oso ezberdina da (Castañar, 2013: 24-25).
- **Nori?** “Etsaia”, aurre egiten duten erakunde, instituzio ala sujetu hori tratatzeko modua enpatikoa da: “actor social opuesto con el respeto de un ser humano pleno, no deshumanizado, frente a la concepción demonizadora que lo considera como un enemigo y, por lo tanto, alguien contra el que es legítimo ejercer violencia” (Castañar 2013: 22).

Honetaz gain, ezbiolentziak beste hainbat ezaugarri nagusi ditu:

- **Kausa sakonak.** Garrantzitsuena gatazkaren kausa sakonak bilatzea da, kontsentsu berria bilatzearen: bi aldeek egoera berria sortu eta horretara moldatu beharko dira. Ez dago irabazlerik ez galtzailerik; elkarrekiko transformazioa baizik. Gatazken aurrean jokatzeko modu honi gatazken gainditzea deritzo.
- **Erakundetu gabeak.** Mugimendu ezbiolentoak botere egituretan instituzionalizaturik ez egotea ezaugarri inportantea da. Nahiz eta erakundetze moduko berezizat har daitezkeen eta gizarte mugimendu ezberdinak erakundetze maila ezberdinak garatu dituzten, ez daude inongo interes ekonomiko eta politiko hegemonikoen menpe.
- **Teoria-praktika.** Giza talde hauek aurretik, ondoren, edo/eta bilakabidean talde kontzientzia eratzen joan dira. Gizarte oinarria zabaltzen doa praktika-teoria errotzen eta bata bestea atzeraelikatzen doazen heinean. Adibidez, mugimendu antimilitaristan filosofia eta estrategia ezbiolentoak bat egiten dute; aldi berean zilegitasuna eta eraginkortasuna bilatzen baitute.

- **Nazioartekotasuna.** Mundu mailako gizadi ezbertzaren komunitatea eraikitzeke grina sinkronikoa eta diakronikoa da, tokian tokiko eta garaian garaiko ezaugarriei baldintzatu. Hori dela eta, didaktikarako oso interesgarria da, ezbiolentzian oinarritutako gizarte mugimenduek pentsamendu historikoa jorratzen baitute, gizarte mugimendu eta korrante ideologiko-ezberdinen kutsaketa-ikasketa efektua oso eraginkorra delarik.
- **Korronteak.** Ezbiolentzian bi korrante nagusi bereizten dira. Bakoitza bi azpiataletan sailkatzen da:

Taula 1: Ezbiolentziaren korronteak

EZAUGARRIAK	ETIKOA-IDEOLOGIKOA		PRAGMATIKOA	
Bortizkeria	Ez da zilegia <i>per se</i> .		Bortizkeriari buruzko zilegitasunean ez da sartzen, zilegia izan daiteke ala ez, egoeraren arabera.	
Aldaketa	Gizarte osoaren transformazio sakona (kultura politikoa).		Elitea. Klase zuzentzailearen boterea eskuratzea helburua.	
Motak	SOZIOPOLITIKOA	HOLISTIKOA	TEORIKOA	HISTORIKOA
Ekintza politikoa	Aktiboa	Pasiboa	Esparru akademikoan Berrikuntza kolektiboarekin erlazionatzeko modu berrian.	Aktibistak-mugimenduak
Adibideak	Antimilitarismoa, feminismoa	Beganismoa	Mugimendu sozial berriak: ekologismoa, pazifismoa, feminismoa.	
Ezbiolentzia	Erabili	Izan	Erabili	Erabili
Helburuak eta bitartekoak	Koherentzia bitarteko-helburuen artean, konkordantzia eta justuak	Helburua bitartekoa bera da. Ezbiolentzia bizitzaren aspektu guztietan, helburuetatik independientea.	<ul style="list-style-type: none"> - Helburu politikoak lortzeko ezbiolentzia eraginkorragoa da. - Ahultasunagatik: etsaiak ahaldun bortiz oso boteretsua duenez, biolentzia erabiliz gero guztiz sarraskituko ditu. 	
Denboraren kudeaketa	Epe luzean, gizarte osoan iragazi.	Filosofia. Integrala.	Garaipena-porrota logika Helburuak lortzean desagertu.	
Demokrazia	Autogestioa, herriaren parte-hartzea Gobernuan: asanblearismoa, horizontalitatea eta kontsentsu bidezko erabakiak. Ezbiolentzia demokrazia bilatzeko modua baina borroka demokratikoa bera da.		Ordezkaritza parlamentarioaren sistema formala. Ezbiolentzia demokrazia bilatzeko tresna.	

Egileak moldatua. Iturria. Castañar, 2013.

- **Biografiak.** Gizarte Mugimendu ezbiolentoeke pertsonaia historiko (Thoureau, Gandhi, Leon Tolstoi, Martin Luther King...) konkretu eta entzutetsuak bildu ditu. Batzuetan lidergotza indartsuak burutu zituzten eta/edo beste batzuetan gizarte mugimenduak inspiratu zituzten ideologoak izan ziren. Haien bizitzak ikertuz, indibiduotik kolektiborako

bilakabidea jorratzen da. Didaktikaren esparruan, biografia pertsonalak kontestu diferenteen arteko kutsaketa efektuak aztertzeko oso interesgarriak dira.

- **Helburuak.** Helburuak erreformistak edo/eta iraultzaileak izan daitezke. Iraultza barnekoa edo/eta kanpokoak izan daitezke.
- **Mailak.** Maila ezberdinak daude, denbora eta espazio fisikoan eragin soziala eta politikoa non eta noiz gauzatzen duten arabera: norbanakoa (intrapertsonala), interpertsonala, soziala zein politikoa eta historikoa. Errealitate konplexuan eta didaktikan, nahasturik agertu eta irakatsiko dira.
- **Dikotomiak gainditzea.** Biolentzia/ezbiolentziaren dikotomia murriztailean, betidanik biolentzia aktibo ezaugarriarekin erlazionatu da. Ezbiolentzia, berriz, pasiboa izatearekin identifikatu da. Mito-estereotipo hori hautsiko dugu. Ezbiolentzia ez da pasiboa, ez da inakzioa, ekintza ezbiolentzia da.

2.3. TEORIA ETA EKINTZA EZBIOLENTOAREN BILAKAERA HISTORIKOA

Lehenik eta behin, mundu mailako bilakaera historiko orokorra burutuko da. Errealitate historikoaren laburpen bat azalduko da, errealitatea askoz konplexuago delarik. Ondoren, Estatu mailara iritsiko gara. Jarraian, Nafarroako XX. mendearen azken laurdenean garatu zen Kontzientzia Eragozpen eta Intsumituen Gizarte Mugimenduaren bilakaera historikoa jorratuko dugu. Autonomia Erkidego eta probintzia mailan, Hego Euskal Herrian garatutako Intsumituen Mugimenduak elkartruke intentsoa eta antzekotasun ugari izan zituen. Prozesu historiko euskaldun hori azpimarragarria da eta identitate nazional eta politiko horrek ibilbide propioa islatzeko atal propioa garatuko da.

2.3.1. Antzinarotik Aro Modernora

Gauzak honela, ezbiolentziaren ibilbidean, behintzat Antzinarotik Aro Modernora iturri historikoak heldu zaizkigu. Ezbiolentzia giza taldeen ohiko praktika izan da. Botere egiturek zergen bilketa ezartzean populazioak gehiegikeritzat hartzen zuenean, betidanik erresistentziak, ez ordaintzeak... betidanik gauzatu dira. Bestalde, erlijio askoren korrante gutxitu edo/eta erakundetu gabekoak ziren bitartean, euren doktrinan biolentziaren gaitzespena oso ohikoa izan da. Ezbiolentziaren arrasto hauek ezinbestekoak eta oso esanguratsuak dira, edozein epe historikorekin konexioa edota jarraikortasuna ezarri ahal izango dugu ikastaldearen behar eta nahien arabera.

Antzinarotik Aro Modernora ezbiolentziaren adibideen zerrenda luzea da. Historiako ikasgai ezberdinetan, garai historiko ezberdinetan ezbiolentzia lantzeko iturri historiko baliagarri batzuk daude (Castañar, 2013: 33-49).

2.3.2. XVI. eta XVII. mendeak

Politikaren kontzepzioaren eraldaketarekin batera ezbiolentzia garatuz joan zen. Bi prozesuen aldiberekotasuna azpimarragarria da. Garai honetan, boterearen teoria esentzialista zen. Ikuspegi honetatik, botereak berez obedientzia sortzen duela baieztatzen da. Boterea ezin da zilegitasun eztabaidan sartu, boterearen natura, esentzia, nolakotasuna, hots, boterea bera, obedientzia iturria baita.

Hala eta guztiz ere, XVI. mendean zehar idatzi eta teoria monarkomanoek Estatu baten lurraldean botere tiranikoaren kontra altxatzeko oinarri teorikoa ezarri zuten. Besteen arten, komunitate protestanteak (gutxiengo zirenean), katolizismoaren esparruan Juan de Mariana (1536-1624) jesuitaren kasua eta Humanismoaren eraginpeko Rotterdamgo Erasmoren (1466-1536) idatzizko dokumentu historikoak berreskuragarriak dira.

Are gehiago, Etienne La Boetieren (1530-1563) idatziak, domeinua jasaten duenaren baimena boterearen oinarria dela baieztatu zuen. *Discours de la servitude volontaire* idatzizko dokumentu hori oso baliagarria da ezbiolentziaren historian, testuinguru historiko ezberdinetan berreskuratu eta berrinterpretatu delako.

XVII. mendean zehar, botere esentzialistaren teoria monarkia erakundea eta instituzio publikoak zilegiztatzeko erabili zen. Hala ere, liberalismoaren garapenak ezbiolentziari bide berriak ireki zizkion gaurko politika sistema modernoaren oinarri teorikoa eraikitzen hasi zelako: “tomar conciencia de que el orden social era una construcción humana que podía cambiarse mediante actividad política” (Castañar, 2013: 49). Thomas Hobbesek (1588-1679), kontratu sozialaren eta indibidualismoaren ideiak landu zituen. Bukatzeko, John Lockek (1632-1704) kontratu soziala birformulatu zuen: gobernuaren boterea mugatua zen, bere konpromisoak haustean gizarteak kanporatzeko zilegitasuna teorizatu zuen (Castañar, 2013: 41-49).

2.3.3. XVIII eta XIX. mendeak

XVII eta XVIII. mendeetan ideia politikoen esparruan berrikuntza itzela eman zen. Botereari aurre egiteko ekintza politiko alternatibo aunitz sortu ziren, tartean ezbiolentzoak (Castañar, 2013: 57). Bi mende hauetan boterearen kontzepzioan ezinbesteko aldaketa gertatu zen. Boterearen borondatezkotasunaren teoria osatu zen. Boterearen azterketa eta analisisian “baimena” kontzeptua barneratu zuen: botereari uko egiteko edo onartzeko aukerakotasuna ireki zen, bi sujetuek eratzen duten harreman mota baita. Hortaz, sujetu batek badu bestea obeditu edo desobeditzeko aukera.

Liberalismoan sakonduz, Montesquieuk (1689-1755) sistema politiko parlamentarioaren ideiak Europa kontinentalean barreiatu zituen, botere banaketa legegilea, exekutibo eta judizialaren sailkapenaren bidez. Bere aldetik, Jean Jacques Rousseauk (1712-1778), boterearen zilegitasuna Estatuko hiritarren borondateari baldintzatu zion.

Ilustrazioaren berrikuntza soziopolitikoaren mugimenduak XVIII. mendean zehar barreiatutako ideiek, ezbiolentziaren epe luzeko prozesu historiko hau argitu zuen. Inglaterrako sistema parlamentarioan aldaketak, Iraultza Frantsesak (1789-1799) eta Amerikako Iraultzak (1765-1775) aldaketa historiko sakonak ekarri zituzten.

Iraultza Amerikarra eta AEBen Independentzia Gerrari (1775-1783) dagokienez, XVIII. mendean Inperio Britainiarraren 13 kolonietan ekintza ezbiolento ezberdinak suertatu ziren: erakunde propioak sortu zituzten (New Yorkeko Asanblada ilegala 1765ean, Kongresuaren hazia) eta metropoliaren produktu (azukrea, tea) baliotsuei boikota eta zerga nahiz epaileei boikota egin zieten, independentziarako bidea ezbiolentziaz jorratu zutelarik.

Frantses Iraultzari dagokionez, AEBetako prozesuaren eragin azpimarragarria izateaz gain, Erregimen Zaharra deuseztatzeko fasean, ezbiolentziak bere lekuak izan zuen: 3. Estatuaren ordezkariak Asanblada Nazionala sortu zuten edota soldadu eta guardia frantses askoren desobediencia masiboa izan zen.

XVIII-XIX. mendeetan, Estatu Batuetan bi pertsonaia historiko garrantzitsu nabarmentzen dira. Alde batetik, William Godwin (1756-1836) ingelesa. Teoria ezbiolentoaren garapenean sakondu zuen, sozialismo ezbiolentzian eta sindikalismo ingelesean eragin handikoa izan zen.

Bestetik, Henry David Thoreau (1817-1862) desobediencia zibilaren teorikoa da. Bere teoriak desobediencia zibilaren beharrezkotasuna azaltzen du: “situaba los principios morales por encima de las leyes o el Gobierno, poniendo de relieve la posible discordancia entre la legitimidad y legalidad” (Castañar, 2013: 69). Modu honetan, “las ideas morales de Thoreau sobre la revolución pacífica y, por supuesto, sobre la desobediencia civil como estrategia política para la revolución pacífica fueron recuperadas entre otros por Lev Tolstói, Bertrand Russell, Bart de Ligt, Mohandas Gandhi, que fue el que realmente puso de moda el término <<desobediencia civil>>, o Luther King, y aún siguen siendo directamente recuperados por muchos y muchas activistas que ponen en marcha actualmente campañas de desobediencia civil” (Castañar, 2013: 75).

XIX. mendean, praktika ezbiolentzian difusioa itzela izan zen. Manifestazioak, boikotak, grebak, erresistentzia pasiboa... biderkatu ziren: “Lo que marcó el uso de las formas de acción no violentas fue la idea de la necesidad de una transformación profunda de la sociedad que forjaron los distintos movimientos sociales, como los movimientos contra la esclavitud, por los derechos económicos de la clase trabajadora, por la participación política, por los derechos políticos de la mujer, etc.” (Castañar, 2013: 57).

Mende horretan, kontzientzia indibidualetik kolektiborako bidea gauzatu zen. Aldi berean, Estatu Nazioen erakuntzaren garaia izan zen. Gobernuaren erakuntzaren teorizazioan Estatu-Nazioak boterearen jatorria bilakatu ziren: “La noción del origen del poder, la soberanía, estaba cambiando radicalmente, ya que se empezaba a dejar de justificar la autoridad en un supuesto origen divino y se iba identificando con la nación, entendida en esos momentos como la comunidad que es la base del Estado” (Castañar, 2013: 51).

2.3.4. XX. mendeko eztanda ezbiolentoa

Ezbiolentziaren kontzientzia eraketa kolektiboa, teorikoa eta praktikoa, garaikidea da. Baina zergatik da ezberdina XX. mendea? Zertan? Zertarako erabili zen ezbiolentzia mende honetan? Nola azaldu ikasleei modu ulergarrian? Hona hemen, errealitate historikoaren beste laburpentxo bat, ikasgelan erabilgarria izango dena.

Aro Modernotik eratzen joan zen pentsamendu eta ekintza sortaren heldutasunaren garai historikoa da. Hala eta guztiz ere, ezbiolento garaikideek Aro Modernoko egileetara joko dute. Euren erreferente historiko bihurtu ziren. Ezbiolentziari gorputz teoriko sendoa eskainiz, testuinguru historiko ezberdinetan haien idatziak berrinterpretatu zituzten.

Ezbiolentziaren eklosioan epe luzeko bi prozesu historikok bat egin zuten: Estatu-Nazioaren erakuntza zein finkapena eta lehen gizarte mugimendu masiboaren (langileriaren mugimendua) sorrera, eraketa eta bilakaera. Horrela, bi prozesu historiko hauek ekintza ezbiolento garaikidearen ardatz nagusiak dira. Hortik aurrera, ezbiolentzia eztanda egin zuen. Mugimendu sozial ezberdinetan gorputzu eta artikulatzen joan zen, borroka globala eratzen joan zen, gizarte mugimenduen arteko intersekzioak (kutsaketa efektua, elkarreragina, harremanak, estrategia imitazioak, kopiaketa nabarmenak...) eratu ziren eta gorputz teorikoa eratzen joan zen. Logikoa da pentsatzea bukatu gabeko eta bukaerarik gabeko prozesua dela, denborak aurrera joan ahala gizartearen antolakuntzan forma diferenteak bereganatzen dituelako.

Era berean, XX. mendeko gerra ezberdinek, ezbiolentziaren garapenean berebiziko arrastoa utzi zuten. Nahiz eta epe motzeko prozesu historikoak izan, inpaktu ikaragarria izan zuten.

2.3.4.1. Gizarte Mugimenduak

XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera, Europako Mendebaldeko industrializazio prozesuen baitan ezbiolentziaren konfigurazioa garatu zen. Bi mugimendu sozial nagusitu ziren: aurretik aipatutako langileriaren mugimendua eta lehen olatuko feminismoa. Dena dela, beranduago garatutako gizarte mugimendu askok euren teknikak eta estrategiak testuinguru historiko ezberdinetan kopiatu, moldatu eta aplikatu zituzten. Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioak, ondare guzti hau oinordetzan jaso zuen.

2.3.4.1.1. Langileriaren mugimendua

Lehenik eta behin, anarkismoaren ekarpena baliotsuena eta aipagarriena da. Sozialismoak ez bezala, ez zuen adostasunik lortu biolentziaren zilegitasunaren inguruan herraminta politiko bezala erabiltzeko orduan. Biolentziaren erabilera, soilik egiturazko bortizkeriaren aurkako borrokan soilik izan zitekeen zilegia. Gainera, ideologia antimilitarista da. Intsumisioaren Gizarte Mugimenduak, anarkismotik ekintza zuzen ezbiolentoaren ikaspena jaso eta antzaldatu zuen.

Pertsonaia historiko esanguratsuak hiru esparruetan kokatzen dira: Piotr Kropotkin (1842-1921) aristokrata errusiarra eta anarkismoaren ideologo ezagunenetakoa, gizarte antolakuntzaren izaera kooperatiboa eta biolentzia oso muturreko egoeratan erabiltzeko aukera teorizatu zuen. Leon Tolstoi (1828-1910) Kropotkinen lagun mina eta bakezaletasunaren ideologo inportantea izan zen. Gandhirengan sekulako eragina eta harekin eskutitz harremana izan zuen. Domela Nieuwenhuis (1846-1919) oinarri kristauko Holandako anarkopazifismoaren eragilea izan zen.

Bigarrenik, sozialismo ezbiolento edo utopikoa kokatzen da. Gizarte kristau antiklerikalen sinesmenak eta gerraren aurkako sinesmenak (bakezaletasuna) batzen zituzten, metodo ezbiolentoen erabilera sustatuz. AEBetan komunitate-esperientzia ezbiolento ugari garatu zituzten.

Hirugarrenik, sozialismo biolentzia edo zientifikoa. Oro har, sozialismo mota honen barnean biolentzia borrokarako tresna gisa zilegiztatu zen. Ezbiolentzia burgesiaren tresna gisa interpretatu zuten, eta bakezaleak klase kontzientziaren traidoretzat hartzen zituzten. Dena den, sozialismo honen barnean disidentzia entzutetsuak egon ziren. Adibidez, Alemaniako K. Liebknecht (1871-1919) eta R. Luxemburgoren (1871-1919) ekintzaileen lidergopeko Liga Espartakista (1914-1919).

2.3.4.1.2. Feminismoaren lehenengo olatua

EEBBetan eta Britainia Handian, mugimenduaren nazioartekotasunaren baitan bilakaera eta ezaugarri ezberdinak garatu zituzten:

Batetik, AEBetako feminismoaren bilakaera propioa izan zen. Mugimendu antiesklabistan errefusatuak izan zirenez, emakumeen erakundeak-elkarteak sortzen hasi ziren. Esklabuen laneskua erabiltzen zuen produktuei boikota egin zieten. Handik teknika ezbiolentoak ikasi zituzten. Gero, beltz eta emakumeek boto eskubidearen inguruan artikulatu ziren. Gizon beltzek bozkatzeko eskubidea eskuratu zutenean (1870), emakumeek borroka espezifikoa garatu zuten. Bere ekimenen adibide batzuk, zergei boikota, 1868-1872 urteen artean bozkatzeko saiatzegatik atxilotetak jasan zituzten eta 1876. urtean Wilson (1856-1924) presidente estatubatuarren diskurtsoa eten eta eragotzi zuten. Beste ekintza asko buru zituzten: manifestazioak, desfileak, kontzentrazio masiboak eta bereziki gose grebak. AEBetako 1917an Etxe Zuriaren aurrean gauzatu zuten pikete handi ezbiolentzia gogoangarria izan zen.

Bestetik, Britainia Handian, *suffragette*-en ekarpena ezbiolentziaren bilakaera ulertzeko funtsezkoa da. Ekintza ezbiolentzia garatu zuten 1928an sufragio eskubidea lortu arte. Carmen Magallón-i erreferentzia eginez, “Las sufragistas de ambas ramas (moderadas y radicales) no se limitaron a reproducir las prácticas existentes en la política de su tiempo. Su acción política creció a través de prácticas creativas, de un hacer que ellas comenzarían y que más tarde cuajaría en la no violencia. No es de extrañar que Gandhi mantuviera que había aprendido las técnicas de la no violencia y de la desobediencia civil de las mujeres, en particular de las sufragistas británicas” (Castañar, 2013: 116-117). Adibidez, atxilotzen

zituztenean gose greba erabiltzen zuten. Poliziak teknika oldarkorrekin elikatzerara behartzen zituzten, poliziaren irudi publikoa okertu zelarik. Hori dela eta, Estatuak estrategia aldatu zuen: katua eta arratoiaren legea erabili zuen, oso ahul zeudenean aske utziz. Osasuna berreskuratzean aktibismo politikoa berriro ekiten zutenean berriz atxilotzen zituzten. Emmeline Pankhurstek (1858-1928) 1908.urtean esandakoaren arabera, “Estamos aquí no por quebrantar leyes, sino por nuestros esfuerzos por crear nuevas leyes” (Castañar Pérez, 2013: 112). Emmeline bera, jiu-jitsu arte martzialetan entrenatutako neskek babesten zuten eta mozorroak erabiltzen zituen atxilotu ez zezaten. Modu horretan, Asiako kulturen ikaspenak euren praktketan integratzen jakin zuten baina mugimendu feministaren ahalmen sortzailea erabakigarria izan zen.

2.3.4.1.3. Herrialde kolonizatutako deskolonizazio mugimenduak

XV. mendean hasitako Kolonialismoaren epe luzeko prozesu historikoaren baitaren azken epe historikoan, hau da, Inperialismoaren fase motzaren (1870-1914) aurkako erresistentzia ezbiolentoa adierazgarria da. Asia eta Afrikako Deskolonizazio politikoaren prozesuan (1945-1991) gauzatu ziren. Gandhiren (1869-1948) gidaritzapeko Indiako kasua (1915-1948) adibidea paradigmaticoa da, kutsaketa-efektu itzela eta ezbiolentziaren Historian memoria ezabaezina utzi baitzuen. Mendebaldeko komunikabideekin eginiko tratamenduekin kriston nazioarteko babesa lortu zuen, ezbiolentziaren ideiak munduan barreiatu baitziren. Besteak beste, kolonialismoaren kontrako beste borroka ezbiolentto batzuk ere oso esanguratsuak dira (Castañar, 2013: 89-96, 119-128, 145-162, 171-186, 215-228).

2.3.4.1.4. Mugimendu Sozial Berriak

Bigarren Mundu Gerra (1939-45) osteko Gerra Hotzaren (1945-1991) testuinguruan garatuz joan ziren.

Hasteko, Estatu Batuetako Eskubide Sozialen Mugimenduak (1956-1969), gizarte estatubatuarra aldatu zuen iraultza ezbiolentoa garatu zuen. Gizarte mugimendu honen sustrai historikoak epe luzeko esklabutzaren kontrako mugimenduan kokatzen dira. XX. mendean, FOR (oinarri kristauko *Fellowship for Reconciliation*), WRL (*War Resisters League*) eta CORE (*Congress of Racial Equality*) erakundeek antolakuntza sozial eta politiko horren aurrekariak ezarri zituzten.

Era berean, arrazismoaren kontrako Sudafrikako *apartheid*-aren kontrako mugimendua sozial eta politikoa (1955-1992) oso entzutetsua izan zen eta euren aktibistek errepresio bortitza jasan zuten. Nelson Mandela (1918-2013) pertsonaiaren biografia horren adibide paradigmaticoa eta mundu mailako ikono bakezalearekin erakuntzarekin identifikatzen da, hain zuzen ere gaztetan borroka armatuan aritu zenez bere barne-transformazioa oso mediatikoa izan zelako.

Alabaina, gizarte mugimendu berrien esanahia barnebiltzen dutenak, bigarren olatuko feminismoa, ekologismoa eta pazifismoa izan ziren. Aldiberekotasunean 1960-1980 hamarkaden artean eta mundu mailan garatu ziren. Ezbiolentziaren eta desobedientziaren praktika eta metodoak erabiltzen zituzten. Hemen, Kontzientzia Eragozpen eta Intsumituen protestaren ziklo historikoa (1971-2001) kokatzen da. Intsumituen mugimenduak ezker berriaren 3 mugimendu hauen ekarpen eta elkarreragin handiak partekatu zituen eta militantzia bikoitza oso ohikoa izan zen. Bitartean, Gerra Hotza bukatu zen eta munduko orden berrian aldaketak eta jarraikortasunak suertatu ziren. Espainiako erritmo historikoaren kokapen kronologiko berantiaragoak gizarte mugimendu horien ondare eta ikasketa multzoaren adierazgarritasuna ulertzeko aukera eskeintzen du.

2.3.4.1.5. Mugimendu antiglobalizatu eta alterglobalizatuak

Mugimendu antiglobalizatuak Globalizazio ekonomikoaren kontrako erreakzio bezala sortu ziren. Urteak aurrera joan ahala, alterglobalizazioan antzaldatu ziren (Bergantiños, 2007). Aipatutako gizarte mugimendu berriekiko jarraikortasuna eta konexio ugari izan zituen. XXI. mendetik aurrera trantsizioaren diskurtsoek (ekologismo soziala, feminismo poliedrikoak, Latinoamerikako ongi bizitzearen filosofia, kultura zein bizitza ereduak eta desazkudearen teoria) jarraikortasuna eman diete.

2.3.4.2. Erresistentzia ezbiolentoak gerra garaietan

Bestetik, gerrak, ezbiolentzia eta desobedientzia zibilaren bilakaeran epe motzeko gertakizun historiko erabakigarriak dira. Gizarte horietan garatzen ari zen mugimendu sozialen kontzientzia eta praktika ezbiolentoen dinamikak hausteko gai izan ziren. Mundu mailako bi gerrate nagusietan, sentimendu nazionala eta gerra edo nazioartekotasunezko langile kontzientzia eta bakea binomioa aukeratu behar izan zuten. Elkarrekin apurketak suertatu ziren, batzuk gerrari babesak eman eta beste batzuek pazifismoarekin jarraitu nahi zutelako.

2.3.4.2.1. Lehen Mundu Gerra (1914-18)

Lehen aldiz Historian gerraren kontrako nazioarteko mugimendu ezbiolento masibo bat eratu zen. Aurretik, *International Anti-Militarist Union* (IAMV) nazioarteko bakezaletasunaren erakunde aitzindaria Amsterdamgo Kongresu Antimilitaristan (1904) sortu zen. Beranduago, WRI (War Resisters' International) eratu zen. Zortzi milioi hildako eraginako gerraren aurkako erreakzio bezala 1921ean sortu zen. Atal nazionaletan antolatzen zen. Erakundearen ikuspegi kritikoa aipagarria zen, Sobietar Batasuneko Stalinen militarismoari kritika zorrotza egin baitzieten (Agirre, 2002: 43). WRI barruan funtsezko eragilea Bart de Ligt (1833-1938) gerren arteko garaiko pertsonaia historikoa izan zen. Ligt Plana (1934) idatzi zuen, hots, erresistentzia ezbiolentoaren metodoen sistematizazioaren plana, aurreikusten ziren ondorengo gerren aurrean prestatzeko (Zamarra, 2006). Erakunde

horrek gaur arte dirau. Gudetan parte-hartze eta prestaketaren aurkako lanean dihardu, nazioartean jende bakezaleen arteko elkargune nahiz kontaktuak sortzearen eta ekimen kolektibo saretu ezbiolentoak gauzatzeko.

Langileria mugimenduari dagokionean, mugimendu anarkistak gerra geldiarazteko proletalgoaren Greba Orokorra proposatu zuen baina ez zuen arrakastarik eduki.

Era berean, herri defentsa ezbiolentzia kontzeptuaren sorrera garai hartakoa da. Proiektu antimilitarista zen. Egitura militarra kolokan jarri eta defentsa eredu berria proposatu zen: biztanleria guztiari zabalduko erresistentzia ezbiolentziaren teknikak zabaltzea. Beranduago, mugimendu antimilitaristak plazaratutako galderak mahaigaineratu zituen: zer defendatu behar da? Nola? Nork defendatu behar du? Nolakoa izan behar da defentsa? Noren kontra? (Zamarra, 2006).

2.3.4.2.2. Espainiako Gerra Zibila (1936-39)

Espanian, mundu mailako bi gerrateak ez ziren bere lurraldean burutu, baina Bigarren Mundu Gerraren aurrekaria izan. Nazioartean, gerra zibil hau faxismo eta antifaxismoaren arteko norgehiagoka bezala interpretatu zen. Are gehiago B. Mussolini (1883-1945) eta A. Hitler (1889-1945) diktadoreen bando frankistaren aldeko parte-hartzea kontuan hartuta. Ondorioz, korrante bakezale eta antimilitaristen artean eztabaida etiko latza sortu zen: horietako askok borroka antifaxista irtenbide bakartzat hartu zuten eta gutxiengoak ezbiolentziaren bidea jarraitu zuen.

2.3.4.2.3. Bigarren Mundu Gerra (1939-45)

Ezbiolentziaren bilakaeran joera aldaketa izugarriak ekarri zituen. Antifaxismoaren baitan, biolentziaren salbuespenezko erabilera bakezaletasunaren aldeko ideologo, erakunde zein pertsonaia historiko aunitzen artean zabaldu zen. Ezbiolentziaren kontraesan teoriko zein praktikoan bezala interpretatu daiteke edota errealitatearen konplexutasunaren isla bezala.

2.3.4.2.4. Gerra Hotza (1945-1991)

Bigarren Mundu Gerraren ondorioz, bloke kapitalista eta komunistan oinarritutako superpotentzia antagonikoen geopolitika berria eratu zen. Bi bloke antagoniko hauek euren aldeko herrialde sateliteetan gerrateak garatu zituzten, lasterketa armamentistiko itzela eta militarkuntzaren erabateko propaganda sistema eratzean gain.

Ezbiolentziaren alorra, ordea, lantzen jarraitu zen:

- **Gizarte Zientziak.** Jakintza esparru ezberdinetatik ezbiolentzia aberastu zen. Soziologiatik Max Weber (1864-1920), Emile Durkheim (1858-1917) eta filosofiatik Michel Foucault

(1926-1984) intelektualen ekarpenei esker (Castañar, 2013: 257) baimenetik (kontzeptualizazio indibiduala) kontsentsurako (kontzeptualizazio soziala) aldaketa jorratu zen. Boterearen konplexutasun eta iragazkortasunari buruzko ikerketan ere asko sakondu izan zen.

- **Gene Sharp (1928-2018)**. *The Politics of Nonviolent Action* (1973) liburuan, ikerlari estatubatuar ekintza politiko ezbiolentoaren lan sistematikoa, doitasun edo zehaztasun akademiko handiarekin landu zuen, kutsu etikotik at ekintza politiko ezbiolentoaren eraginkortasuna egiaztatuz. Nolabait esateko, ezbiolentzia demokratizatu eta lurreratu zuen.
- **Antimilitarismoaren garapen teorikoa**. Egitura militarra ordeztu edota osagarri izango zen egitura ezberdinen zutoinak ezarri ziren. Herri defentsa ezbiolentoaren esparruan sakondu eta dibertsifikatu zen eta defentsa zibilaren teoria garatu zen, egitura militarren osagarri bezala, Ejertzitoaren zilegitasuna kolokan jarri barik.

2.4. INTSUMITUEN MUGIMENDUA ESPAINIAN

Lan honen marko politikoa Espainia Estatu-Nazioa da. Kontzientzia Eragozpena eta Intsumituen Gizarte Mugimenduaren gakoak perspektiba poliedrikoaz eraikiko dira. Pentsamendu historikoaren haria jarraituz, lehenik eta behin soldaduskaren sustrai historikoak azalduko dira. Bigarrenik, mugimenduaren bilakaera diakronikoa jorratuko da. Gero, soldaduskari edo/eta ordeztu zerbitzu sozialari uko egiteko kausa anitzak (multikausalitatea) azalduko dira. Hirugarrenik, sujetu historiko oso ezberdinen ahotsak agertuko dira, berrikuntza historiografikoaren sujetu historikoen biderkatzea aintzat hartuz. Segidan, gizarte mugimenduen arteko sinergiak aztertuko dira. Amaitzeko, Espainiako gizarte mugimenduaren indarra, eragin soziopolitikoa eta bereizgarritasuna analizatuko da, Europan gertatutako kontzientzia eragozpen mugimenduekin konparatuz.

2.4.1. Aurrekariak XIX. eta XX. mendeetan

2.4.1.1. Kintak

Zozketa bidezko erreklutamendu sistema behartu hau, aurreko mendeetan aurrera eramana zen. XIX. mendean, ordea, finkatu eta erregulatu zen. Karlos IV. are (1748-1819) azken ohorezko lebak, soldadu profesionalaren deuseztatzea eta kinten soldaduen hegemonia estreinatu zuen. Frantziar Iraultzak, gerra eredu aldaketa honetan erabat eragin zuen: “De la guerra caballerosa y limitada a la guerra total, donde la movilización del pueblo pasa a ser objeto principal” (Sagarra, 2018: 4). Ondoren, Independentzia Gerrak (1808-1814), “trastocó las ideas sobre la guerra y el ejército, apareció la guerrilla y el alzamiento popular como forma de lucha contra el invasor” (Sagarra, 2018: 4). Gerra hau sistema behartuen finkapenerako erabakigarria izan zen. Aurrerantzean, Estatu-

Nazioaren erakuntzak ejertzito iraunkorraren beharrezkotasuna justifikatu zuen, gerrak bata bestearen atzetik gertatzen zirenez lurralde fisiko hori defendatzea hiritarren betebeharra zelako. Barne politikan, Gerra karlistek (1833-1840, 1846-1849, 1872-1876) eta Iraultza Loriatsuak (1868) kontzientzia erakuntza horretan lagundu zuten. Kanpo politikan, Kuba (1895-1898) eta Filipinasetako (1896-1898) galera kolonialaren gerrak nabargarriak dira. Horrekin batera, ejertzito espainiarrak iritzi publikoan ospe kentzea bizi izan zuen.

Desparekotasunean oinarritutako derrigorrezko sistema bat bezala eratu eta egonkortu zen, soldadutza ez egiteko ordaintzearekin lotutako estrategia ezberdinak garatzen joan zirelako; bide legaletik edo korrupzioaren bidez. Hori dela eta, batetik ertain klaseen desagerpenaren kausa nagusia izan zen (zorpetzea handia hartzen zuten bere gain; %60ko interes tipoak ordaintzeraino). Bestetik, egoera sozioekonomiko eta politiko baxuko populazioak pairatzen zuen erreklutamendu sistema hau.

Soldaduek, gainera, bizi baldintza oso kaskarrak pairatzen zituzten eta Ejertzitoan lebaren herena zerbitzua egiten hiltzen zen. Horregatik, kinten erreklutamendu sistemaren kontrako protesta soziala handia izan zen; desberdinkeria soziala eta ekonomikoaren gunea baitzen (Sagarra, 2018). Erreakzio horren lekuko Nafarroako herri askotako esaerak eta herri abestiak dira.

XX. mendearen lehen hamarkadetan, langileria mugimenduaren antolakuntza zein Afrika iparraldeko kudeaketa txarrak, Marokoko Gudaren (1911-1927) kontrako mugimendua eta Bartzelonako Aste Tragikoaren (1909) erreakzio biolentoa ahalbidetu zuten, baina baita erantzun ezbiolentoa (greba orokorra) ere: ekintza kolektibo ospetsuenak anarkista eta mugimendu kristauen intsumisio kanpainak eta semeen joana galarazteko soldaduen amak trenbideetara botatzen ziren. Testuinguru horretan, gerraren aurkako jarreraren igoera eta inperialismoaren kontrako oposizioa hedatzen hasi zen, batez ere langileriaren artean. Esaterako, Lehen Mundu Gerran parte ez hartzeko milioi bat langileek sinatu zuten (Castañar, 2013: 126-127).

2.4.1.2. II. Errepublika (1931-1936)

Epe historiko honetan, mugimendu bakezale-antimilitaristen lehen saretze apala gauzatu zen. Aurretik aipatutako bi korronte horiek egin zuten topo: tokian-tokiko kinten ihesbidea eta langileria mugimenduaren antolakuntza. Langilerian zirkulua anarkisten indarra ohargarria izan zen. Marokoko kanpainaren kontra antolatu ziren eta Bartzelonako 1909ko Greba Orokorra prestatu zuten.

Bitartean, botere politikoak idatzitako Konstituzioan, Espainiako Historian lehen aldiz, 6. artikuluan, «España renuncia a la guerra como instrumento de política nacional» (Constitución Española, 1931) adierazi zen. Mota honetako adierazpen bakezalerik ez da inoiz gehiago errepikatu eta hito bat suposatu zuen.

Dena den, Casas Viejaseko errepresio bortitza (1933) eta Urriko Iraultzan (1934) ezkertiarrek erabilitako biolentziaren ondorioz, espainiar bakezaleek 2. Errepublikarekin etsipena ala ilusio-galtzea bizi izan zuten (Agirre, 2002: 33-47).

- **Olibondoaren Ordena (1932).** Antimilitarismoaren erakunde nagusi bezain xumea eratu zen. Jose Broccak (1891-1950) fundatu zuen. Nazioarteko Gerrarekiko erresistenteen erakundearen izenpetu ziren, Lehen Mundu Gerraren aurkako bakezalutasunaren ildotik. 1934. urte hasieran ehunka ekintzailez osaturiko talde ezberdinek osatzen zuten eta Olibondoaren Ordenak koordinakunde funtzioa bete zuen: difusio lanak, astekari baten argitalpena, ekintza publikoak, irratsaioak gauzatzen zituzten. Katalunian harrerarik hoberena aurkitu zuen (Agirre, 2002: 34-36).
- **Gerrarekiko espainiar Errefraktarioen Liga (1936).** Guda zibilaren testuinguruan antifaxistei laguntza humanarioa eskainiz eratu zen. Gerran bioletzia erabiltzea errefusatu zuten. Bere zuzendaria Amparo Posch y Gascón (1902-1968) izan zen (KEM-MOC, 2002: 38-47). Errefraktarioen Liga WRI erakundearen afiliatu zen. WRI erakundearen Espainiako Gerra Zibilak lehen krisia suposatu zuen. Faxismoaren gorakada eta krudelkeria ikusi eta gero, bakezaletasuna kolokan jarri zen. Bigarren Mundu Gerran, ezbiolentzian eztabaida teoriko klasiko hau bigarren aldiz errepikatuko zen. WRI estatubatuar sailak Nazioarteko Brigadisten bidalketan parte hartu arren, orokorrean ekimen inportanteena Espainiaren Laguntza Funtsa ezartzea izan zen. Nazioarteko dohaintzak jasotzen zituen. Beste ekimenen artean, laguntzaren bidalketak forma diferenteak hartu zituen: alde frankistan harrapatuta geratutako familiakide eta lagunei buruzko informazio bilketa, presoek elkartruketa erraztea edota ume errefuxiatuen harrera-etxeari (Prats de Mollo herri kataluniar-frantsesaren kokatua) babesa ematea. *Peace Pledge Union* sail britainiarraren papera bereziki aktiboa izan zen: hango euskal etxean erbesteratutako 60 ume euskaldun jaso baitzituen (Agirre, 2002: 40). Bestalde, CNT eta POUM partiduen alde agertu zela aipatzekoa da, PCE eta indar burguesek sustatutako milizien militarkuntzaren aurka (Agirre, 2002: 43).
Amaitzeko, antolakuntza antimilitarista honen memoria 1939an bertan behera geratu zen. Aztergai den protestaren ziklo historiko berriaren hastapenetan (1970eko hamarkada) memoria kolektibo hau oraindik ez zuten berreskuratua.

2.4.1.3. Frankismoa (1939-1975)

Huts egindako estatu kolpeak eta diktadura militarrek 40 urtez iraun zuten. Ofizialki, 1940ko abuztuan derrigorrezko zerbitzu militarra berrezarri zen. Ejertzitza erregimen faxistaren bizkarrezurra izan zen. Militarrek lurraldearen kontrola, barne segurtasun eta ordenaren ardura zuten, aparatu judiziala eta administrazioa barne. 1966ko Estatuaren

Lege Organikoak Estatua Armadarekin bete-betean identifikatu zuen (Ortega, 2019: 18), gizartearen epe ertaineko prozesu historikoaren militarkuntza legediaren bidez islatuz.

Gerraosteko aurrekontu publikoetan herena baino gehiago gastu militarretan gastatzen zen, oso diru gutxi egon arren; hori konpentsatzeko, militar goi karguen botere-sarea itzela zen eta pribilegio ugari kontzentratu zituzten: defentsarako hiru ministerio eratu ziren. Garai autarkikoaren baitan (1939-1959), INI (Instituto Nacional de Industria) sortu zen eta horretan industria militarra abian jarri zen. Hiru ekoizpen gune nagusi zituzten: ontzigitza, aeronautika eta lurreko ejertzittoa. 1945ean ikerketa militarren lehen zentroa ireki zen. Enpresa publikoetan, militarrek botere handia kontzentratzen zuten: “los militares estuvieron presente en todos los consejos de administración de empresas públicas y como ejecutivos en muchas de ellas. Ocuparon hasta un 40% de los puestos directivos, como Iberia, Aviaco, SEAT, Butano, Elcano, Telefónica, Tabacalera, eléctricas, petroleras, medios de comunicación, así como de las principales industrias militares más importantes de entonces, Santa Bárbara, Construcciones Aeronáuticas y los astilleros Bazán” (Ortega, 2019: 20).

Ejertzitook betetzen zuen barne-errepresioaren funtzioak 1960ko hamarkada arte iraun zuen. Miguel González-en arabera, “lo que no tenía era material, lo que no tenía era formación, instrucción. Era un Ejército que estaba diseñado para ocupar el territorio. Es decir, era un Ejército que estaba pensado, para, si en algún momento determinado había un levantamiento social, para aplastarlo” (Rompan filas, 2018: 00:27:30-00:27:48).

Horrela, 1960ko hamarkada amaieran Kontzientzia Eragozpenaren lehen urratsak eman zirenean, diktaduraren erantzuna oso gogorra izan zen. Jehovaren lekukoek aurrera eramane zuten; ezin zuten derrigorrezko zerbitzu militarra egin euren fedeari obediencia zor ziotelako. Legedi militarrek delitu hori betetzeagatik ezartzen zuen kondena kartzela zigorra zen, kondena bat bestearen atzetik betetzen zutelarik. Bestalde, anarkista talde batzuk DZM-ari intsumitu eta iheslariak ziren, Frantziara ihes egiten zutelarik. Horien artean ezagunena Perpignan hirian ezarritako taldea izan zen (Rojo y Negro TV, 2017: 0:10:30-0:10:38).

2.4.2. Faseak

Gaiaren ikerketa historikoari dagokionean, momentuz bi sailkapen kronologiko proposatu dira. Didaktikarako askoz erabilgarriagoa den Pedro Oliver Olmoren sailkapena oinarri hartu da (Oliver, 2021). Estatu eta Mugimenduaren dialektika aintzat hartzen du eta distantzia historikoaren hausnarketaren emaitza da. Nolanahi ere, Xabier Agirre Aranbururen sailkapenarekin (Aguirre, 1998) konbinatu da: gizarte mugimendurekiko hurbiltasun kronologikoa du eta mugimenduaren barne bilakaeran zentratzen da.

Taula 2: Gizarte Mugimenduaren fase kronologikorako proposamenak

AGUIRRE ARAMBURU (1998)			OLIVER OLMO (2021)		
FASEAK	BILAKAERA HISTORIKOA		FASEAK		ETAPAK
1	1971-1977	Pepe Beunza + lehen saretze politikoa (MOC)	1	70ko hamarkada: KE arazo politiko bezala	1. Mugimendu sozial antimilitaristaren hastapenak (1971-1976)
	1977-1984	MOC garatu, sendotu, finkotzea	2	80ko hamarkada: Gobernuari ordago kolektiboa eta KE Legeari boikota	2. MOC, Kontzientzia Eragozleen Mugimendua (1977-1982)
3	1984-1988	KE legea ez zen aplikatu			3. Mugimendu antimilitarista eta antimili (1983-1986)
4	1988-2001	Ordezko Zerbitzu Zibila betetzea edo errepresioa jasotzea	3	90ko hamarkada: intsumisioaren inpaktua eta erreklamendu sistemaren krisia.	4. Intsumisiorantz (1987-1988)
					5. Intsumisioa mugimendu bezala (1989-1996)
					6. Intsumisioa kuarteletan eta Eragozpenaren Mugimenduaren ziklo amaiera (1997-2002)

Egileak moldatua. Iturriak: Aguirre, 1998. Oliver, 2021.

DZM-aren kontrako protesta ziklo honek 30 urteko ibilbidea barnebiltzen du. Honen barruan 3 prozesu historiko kronologiko bereizgarri nagusi (bana hamarkada bakoitzeko) bereizten dira. Fase bakoitzaren barruan bi azpifase daude.

Hiru etapak ardatzen dituzten bi prozesu iraunkor nagusi daude: batetik, desobedientzia zibilarren metodo-estrategia ezbiolentoaren erabilpena nagusitu zen. Bestetik, gizarte mugimenduan MOC fundatze-taldearen jarraikortasuna eta lidergotza (Oliver, 2021) mantendu zen.

2.4.2.1. 1970ko hamarkada

Lehen kontzientzia eragozleen borroka burutu zen. Saretze txiki eta sakabanatuen garaia da, antolakuntza soziopolitiko sareturik gabea. Aukera politikoaren aukera sortu zen, Jehovaharen lekukoaren kontzientzia eragozpen erlijiosoak erregimenari sortutako arazoak konpontzeko kartzela zigor gogorrekin erregulatu zuenean; orduan beste motatako kontzientzia eragozpenaren borrokarako zirrikitua zabaldu zen. Fedeak eragindako borroka indibiduala izatetik, politiko eta publiko egin zen. Eragozle hauek, zerbitzu militarra ordeztuko zuen zerbitzu zibil alternatibo bat proposatzen zuten, eta eskubide hori erregulatuko zuen kontzientzia eragozpenaren lege bat aldarrikatzen zuten.

Pepe Beunza (1947) lehen intsumitu politikoaren inguruan sortu zen kanpaina paradigmaticoa izan zen. Bere ibilbide biografikoaren ikerketa historikoa Pedro Oliver Olmoren *La utopia insumisa de Pepe Beunza* (2002) liburuan xehetasunez azaltzen da. Pepe Beunzak 1971an soldaduska errefusatu zuen. Bere espetxeratzearen baitan nazioarteko antolakuntza politikoaren kanpaina eraman zen aurrera. Lehen fase hau

klaseratzeko oso pertsonaia eta biografia interesgarria da. Gaur egun gizarte mugimenduen militantzian dirau; besteak beste antimilitarismoan, elikagai-subiranotasunean eta Kataluniako erreferendumaren aldeko mugimenduan. Iraganean, antifrankismoa, gizarte mugimenduen borroka demokratikoa eta ezbiolentziaren nazioartekotasuna ardaztu zuen. Sindikatuan sartutako unibertsitateko ikaslea izan zen. Bere hasierako posizioen sustrai katolikoa antimilitarismorantz transformatu zuen. Era berean, Europako demokraziaren haize berriak Espainiako diktadurara iristear zirela demostratu zuen. Frantziako El Arca komunitate ezbiolentoa ezagutu zuen. Komunitate hori Lanza del Vasto (1901-1981) filosofo italiarrak fundatu zuen, eta berau Gandhiren jarraitzailea izan zen.

Bere hitzetan, horrela azaltzen du: “Yo conozco una comunidad de no violentos en Francia que se llamaba El Arca y me hablaron de objeción de conciencia. Que eran la gente que no hacia la mili, y en Francia en vez de la mili hacían un servicio civil. Y partir de aquí dije esto es la mía, ¿no? Y ahí fue como me introduje. Vuelvo aquí a Valencia. Empiezo a explicar todo esto. Tú es que estás un poco loco, y tal. Es que hay que negarse a hacer la mili. [...]. Hasta el 71 que me toca hacer la mili y digo. Aquí hay que decidirse ya. Ya me negué a hacer la mili. Entré en el calabozo. Y ahí empezó toda la campaña. Hay que decir que en toda Europa, en Francia, en Suiza, en Alemania, en Bélgica, la lucha contra el servicio militar obligatorio había sido muy dura en todos los países. Y los objetores de conciencia todos habían ido a la cárcel” (Garro, 2020: 09:51-10:46).

Protesta taktika ezbiolentok erabili zituzten. WRI erakundearen bidez, Beunzaren egoera salatzeko, Ginebratik Valentziara oinezko martxa bat antolatu zuten. Espainiako mugara iristean, dagoeneko 800 lagun bildu ziren. Hor, indar frankistek kargatu zuten eta errepresio biolento horrek nazioartean oihartzun mediatiko handia izan zuen.

Beranduago, 1975. urtean, Kataluniako Can Serra auzoan (Hospitalet hiria) seminarista talde batek zerbitzu zibil autogestionatuaren kanpaina antolatu zuen (Cooperativa de Cinema Alternatiu, 1975). Kongregazio erlijioso baten parte ziren eta pobrezia botoarekin, auzo txiroetan zerbitzu sozialak bete nahi zituzten. Beunza eta lehen eragozleekin kontaktuan zeuden. Hurrengo urtean atxilotu eta kartzeleratu zituzten. Ekintza kolektibo hau Estatuko beste hainbat lekutan errepikatu zen.

Kontzientzia eragozleen lehen belaunaldi honetan, Bartzelona, Madril eta Bilbo hiriak nukleo aktiboenak ziren. Bigarren belaunaldirako erreferente bilakatu ziren: eragozle eta intsumituei bidea ireki eta gizarte oinarria zabaltzeko funtsezkoak izan ziren.

Kontzientzia Eragozleen Mugimendua (MOC), 1977an eratu zen Estatuko koordinakundea eta aldi berean lekuan lekuko taldeentzako erabilitako izendapena zen. Antimilitarista eta bakezalea, asanblen bidez funtzionatzen zuten, modu horizontal eta demokratikoan. Bere baitan kultura politiko ezberdineko hainbat sentiberatasun (bakezale kristauak, anarkistak, ekologistak, feministak, marxista heterodoxoak, ikasleak...) elkarbizi ziren. Giza

eskubide bezala artikulatutako KE lege bat errebeindikatzen zuten. Antimilitarismoranzko bidean, diskurtso eta praktika ezbiolentean sakondu zuten (Oliver, 2021: 364-365).

2.4.2.2. 1980ko hamarkada

Gizarte Mugimenduaren hazkunde, erradikalizazio eta loratzea gertatu zen. Trantsiziotik Demokrazia formalera aldaketa sozial eta politiko sakon eta bizkorak gertatu ziren.

Barrutik, MOC gizarte mugimenduaren bizkarrezurrean, bere aniztasunezko ideologia eraikuntzaren barne eztabaida eta ekintza kolektiboen garaia izan zen. Gutun kolektiboaren kanpainak (1985), eragozpen kolektiboaren erradikalizazioa markatu zuen.

Gizarte mugimendua partidu politikoengandik aldendu zen. Zergatik? Pentsa dezagun 1980ko UCDren kontzientzia eragozpenaren lege proiektua, PSOE, PCE eta partidu nazionalisten babesarekin bertan behera geratu zela. Alabaina, PSOE gobernuan (1982) sartu zenean, 1984an prestatu zuen Kontzientzia Eragozpenaren legeak, eragozpena delitu kontsideratzen zuen, eta ez giza eskubidea. PSOE partiduak, boterea eskuratu zenean bere ikuspegia eraldatu zuen eta eragole askok traiziotzat hartu zuten. Orduan, mugimenduak Herriaren Babesleak konstituzio kontrakotasuneko helegitea jartzeko konbentzitu zuen eta legea ez zen 1988ra arte aplikatu, Konstituziozko Epaitegiak helegitea baliogabetu ostean.

Denbora tarte horretan, teorizazio-ekintza kolektibo mailan gizarte mugimenduak heldutasuna lortu zuen. Beste gizarte mugimenduekin aliantzak, sinergiak, batetik-bestera joateak zein elkarreraginak bizi izan zituen. Bereziki anti-OTAN mugimenduak (1986ko erreferendumaren inguruko gizarte antolakuntzari esker) indartzen lagundu zuen, ezker erradikal eta iraultzailearen gidaritza izan zuen mobilizazioa. Hor, Mili KK taldeen militantzia indartsua izan zen, gazteria nahiz ikasleria mugimendura erakarrit.

Carlos Angel Ordas ikerlariak esan bezala, soldaduskara joatea ala ez, edozein gizonezko gaztek bizi-prozesuan derrigorrez hartu beharreko erabakia zenez, gizarte oinarria aski zabaldu zen (Ordas, 2017). Zentzu berean, Juan Antonio Herrero Brasas ikerlariak, antimili eta antimilitarismo binomio batzuetan bateraezin eta beste batzuetan bateragarriaren ideia iruzkindu du: “el movimiento de objeción de conciencia era un movimiento antisistema, profundamente antimilitarista, que inflaba sus filas por así decir, con el descontento no necesariamente antimilitarista de cientos de miles de personas, jóvenes sobre todo, con el SMO” (Rompan filas, 2018: 0:33:34-33:51).

Ordurako, antimilitarismoa eta desobedientzia zibilaren aldeko hautu ideologikoa (AOC taldearen zatiketarekin) gizarte mugimenduaren gehiengoak gauzatu zen. Intsumisioaren kanpaina aurrera eramateko prest zeuden.

2.4.2.3. 1990eko hamarkada

Intsumisioen kanpaina (1989-2001). Mugimendu sozial sendo batean antzaldatu zen, berriz eklosioa eta dibertsifikazioa jasan zuelarik. MOC eragileak borrokaren gidalerro nagusiak diseinatu zituen. Bien bitartean, lekuan lekuko kolektibo ezberdinak sortu ziren, hala nola koordinakunde autonomikoak Katalunian, Andaluzian eta Euskal Herrian, gataska eta elkarlana tartekatuz. Euskal Herrian, ezker abertzaleak hasieran ez zuen mugimendu hau begi onez ikusten, baina fase historiko honetan borroka intsumitura batu zen (Ikusi [2.4.5.5. Beste botere publiko eta erakundeak](#)).

Estatuarentzat intsumisioa arazo politiko eta sozial garrantzitsu bihurtu zen. Zergatik? Intsumituek iritzi publikoan eta gizarte zibilean onarpena handia jasotzen ari zirelako. Hedabideetan problematika egunorokoan ateratzen hasi zen zen. Bai Armadaren beharrezkotasunaren inguruan bai Ejertzitoaren ereduari buruzko (derrigorrezkoa, mistoa ala profesionala) gizarte eztabaida ireki zen.

Ekintza kolektiboak anitzak eta jendetsuak ziren. Gizarte mugimenduaren lengoia oso bisuala eta ikusgarria zen, poztasuna nahiz alaitasuna transmitituz. Adierazpen kulturalak biderkatu ziren. Botere publikoek kontrastez eta kontraesanez beteriko erantzuna eman zuten, errepresio selektiboa eman zelarik. Onarpen maila hori lortzeko, intsumituen plantoaren estrategia (1993) erabakigarria izan zen. Erregimen penintziarioaren 3. graduan zeuden intsumituek, hau da, espetxera lo egitera joan behar zirenak, kondena hori modu kolektibo eta publikoan urratzeko erabakia hartu zuten eta 2. gradura pasatu ziren, erabateko kartzeleratzea pairatuz. Nafarroako lehen plantoa Txantreako Parrokian gauzatu zen: “tendría un impacto profundo e imparable en toda la sociedad española y en la política de Estado, lo que consiguió evitar la desactivación política del fenómeno insumiso y ayudó a incidir en la crisis del sistema de reclutamiento” (Oliver, 2020: 17). Estatuaren errepresio biolentoak, intsumituen ekimen ezbiolentoa eta konbikzio irmoarekin talka egin zuen. Beranduago, hirugarren etaparen amaieran, intsumisioa kuarteletan kanpaina (1997) gutxiengo batek egin zuen (Ordas, 2017: 0:08:48-0:21:03). Kasu horretan, ez zuen mugimendu antimilitaristaren berraktibaziorik lortu.

Nolanahi ere, Majestic-eko akordioetan (1996) PP eta CIUren gobernu osaketan DZM bukaera negoziatu zen. Derrigorrezko Zerbitzu Militarra 2001. urtean bukatu zen. Azken preso 2002. urtean irten zen espetxetik, protesta sozialaren ziklo historiko honi itxiera emanez.

2.4.3. Kausak

Zergatik egin kontzientzia eragozle? Zergatik egin intsumitu? Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren kausa anitzak dira, eta horrek prozesu historikoaren jaiotza eta hazkundearen multikausalitatea azalratzeaz gain, gizarte mugimendu honen aniztasun ideologiko, politiko eta sozialaren erakuslea da, perspektiba sinkroniko eta diakronikoan.

Beheko taulan, intsumitu izateko arrazoi nagusiak lehen mailako iturrien ahozko tasun testigantzetatik abiatzen dira. *Rompan filar* RTVE-eko dokumentala (2018), *Katebegia* ETB1eko telebista saioaren *Intsumisioa 30 urte* atala (2019) eta *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentaletik (2020) ateratako lekukotasun aipuak dira. Begibistaz ikusten den bezala, askotan pertsona bakoitzak intsumitu izateko arrazoi bat baino gehiago izan zuen. Pertsonen bizitzetan, maila ezberdinetako arrazoiak (kausa pertsonalak, sozialak, erlijiosoak, etikoak, sozialak, politikoak, emozionalak, lurraldeko problematikak...) nahasturik agertzen baitira.

Taula 3: KE eta Intsumisioaren kausak eta testigantzak

KAUSA	TESTIGANTZA
Fede erlijioari obediencia	<u>Julio Rigote</u> : “El testigo de Jehová, no es pacifista. No lucha activamente por la paz, porque cree y está convencido que esa paz solo provendrá del Creador, Jehová, el todopoderoso, por medio de su hijo Cristo Jesús. No somos pues pacifistas, porque predicamos la gran guerra de Dios todopoderoso en Armageddon. Sin embargo, somos pacíficos, de acuerdo con el deseo de Jesús, que declaraba felices a aquellos que son pacíficos” (Rompan filar, 2018: 0:14:04-0:14:28).
Ezbiolentzia Oinarrizko kristautasuna	<u>Kristau anonimoa</u> : “La razón de que yo sea objetor de conciencia la extraigo de mi fé. Porque yo creo que en el evangelio se vé que Jesús tiene una actitud, hacia todos los problemas de la vida, no violenta” (Rompan filar, 2018: 0:14:29-0:14:41).
Nazioarteko kanpaina kolektiboa KE legea edo Estatutua lortzea	<u>Pepe Beunza</u> : “Había toda una campaña preparada en función de que yo me negara a hacer la mili. Estaba un poco acojonado no solo por la represión y por los militares sino por la responsabilidad que tenía. Y esa era la expectativa mía. La lucha hasta que consiguiéramos un estatuto o una ley de objeción de conciencia. Era el objetivo que teníamos” (Garro, 2020: 11:14-11:40).
Antifrankismoa	<u>Pepe Beunza</u> : “Enfrentarse al franquismo era lo normal en gente que queríamos ser libres. No es que fuera una cosa rara. Aparte, claro, era muy arriesgado, pero todos lo asumíamos porque era la única forma de ser libre” (Garro, 2020; 11:40-11:51).
Erljioa/etika. Kausa sozialak, humanistak eta politikoak. Ordezko zerbitzu soziala betetzea	<u>Ovidio Bustillo</u> : “Junto a motivaciones de tipo religioso o ético, había con mucha fuerza en mí, motivaciones de tipo social, humanista y políticas” eta “Servir a la patria de una manera prácticamente nueva hasta entonces, es decir, ayudando a las tareas sociales del barrio” (Rompan filar, 2018: 0:09:57-0:10:05).
Fede frantziskotarraren bakezaletasuna eta ezbiolentzia	<u>Jexux Artola</u> : “Epaileari batez ere nire motibazio frantziskotarrak agertu nizkion batez ere. Hainbat arrazoi indarkeriaren kontra egiteko, bakearen alde apustu egiteko. Nire motibazioak beti fede aldetik izan dira” (Katebegia, 2019: 0:02:45-0:02:59).
Armadari beldurra Hierarkia eta aginduei errefusa	<u>Juan Kruz Lakasta</u> : “Erakunde hierarkiko bortitz hipermatxista horren beldur ikaragarria nuen. Aginduak eta hierarkiak eta sekula ez ditut ongi eraman izan eta ez dut jakin gainera ongi eramaten” (Garro, 2020: 06:48-07:05).
Egiturazko biolentzia azaleratzea	<u>Jaxin G. Viniestra</u> : “En todas las casas había una foto de la jura, o una foto de una cuadrilla de mili, de gente uniformada. A mí eso desde muy chiquito me ha

Barne-gogoeta	impresionado mucho. Cómo socialmente todo el mundo interiorizaba que era como un hecho meteorológico. Tocaba ir a la mili, la gente tenía que ponerse el uniforme. Asumía eso sin ninguna posibilidad de respuesta o resistencia” (Garro, 2020: 07:06-07:30).
Bizitza proiektua etetea Desobedientzia	<u>Iñigo Balbas Ruiz</u> : “Zure bizitza, zure lagunak, zure bizitza proiektua jaten zituen zulo beltza. Ailegatzen da egun batean, ailegatzen zaizula halako eskutitz bat eta hemendik hilabete batetara joan behar zarela El Ferrol-era. Baina ni zergatik joan behar naiz El Ferrol-era? Nik ez dut joan nahi” (Garro, 2020: 07:47-8:05).
Bizitza proiektua etetea Identitate galera Desobedientzia	<u>Fernando Mendiola</u> : “Niretzat soldaduska izan zen gauza bat nik argi nuena egin behar ez nuena. Eta soldaduskan ba guretzat izango zen ahaztu gure izenaz, ahaztu gure identitatetaz, ahaztu gure ametssetaz eta bapatean... Hori guztia ahaztu, eta obeditu” (Garro, 2020: 08:16-08:36).
Antimilitarismoa	<u>Fernando Mendiola</u> : “Ez ginen bilatzen ari konponbide pertsonal bat, Zu ez zoaz soldaduskara, eta listo. Ez, ez. Gu ez goaz soldaduskara, eta ez dugu Ejertzitorik egotea nahi. Eta orduan horren aurka borrokatuko dugu eta ez dugu onartuko sasikonponketarik. Gure laguntzarik eta gure konpliziterik ez duzue izango” (Garro, 2020: 13:06-13:28).
Antimilitarismoa Nafar independentismoa	<u>Gaizka Aranguren</u> : “Ni intsumiso egin nintzan ez nuelako Espainiar armadan zerbitzatu nahi, ez nuelako hiltzen ikasi nahi, ez nituelako Espainiar Armadaren oinarrizko baloreak barnetu nahi, haien kontrakoa naizelako, eta nafar independentista naizelako” (Garro, 2020: 12:32-12:52).
Antifrankismoa	<u>Jaxin G. Viniestra</u> : “El Ejército del Estado español sonaba absolutamente a lo peor del franquismo, ¿no? Quiero decir, era una de las representaciones más evidentes de lo que había podido suponer 40 años de dictadura y una transición pésimamente realizada (Garro, 2020: 13:51-14:10).
Gizarte ardur Injustizia Soziala	<u>Toñín</u> : “En esta vida no se puede ir uno escaqueando de las cosas. Tienes que tomar ahí. Si a mí me joden y me hacen de rabiarse pues yo más y además me gusta y me divierto. Jejejejeje. Me molesta y me revuelve las entrañas ver la injusticia claramente y encima el recochineo. Y eso es lo que no aguanto en la vida y lo que defenderé por mí y por los míos. Si hay que dejarse hasta la vida” (Garro, 2020: 14:58-15:30).
Sexu Indarkeria Homofobia	<u>C.S. Lewis</u> : “Cuando yo me doy cuenta que por el cuerpo que tengo, tengo que ir al Ejército, a mí se me viene un poco el mundo encima, porque yo me considero mujer. Sé que los ejércitos no sólo no imponen la paz sino que hacen la guerra y matan a mucha gente por distintas ideas políticas o por otros motivos. Pero alrededor de los ejércitos siempre hay mucha violación. Siempre hay mucha mujer que sale perdiendo. Y conocía muchas personas que habían comentado como en sus tiempos de mili siempre habían buscado algún chico en el que desfogar sus necesidades sexuales, en el que poder practicar sexo, no violaciones, nunca les llamaran violaciones, pero que los usaban como chicas. Y a mí me daba mucho miedo el ejército. Yo me metí en la pelea de la Insumisión con esta idea de salvarme a mí misma” (Garro, 2020: 49:54-50:48).
ETA	<u>Miguel González</u> : “Yo pensé que si hacía el servicio militar en el País Vasco, muy probablemente si se declaraba el estado de excepción, yo tendría que salir vestido de uniforme a la calle, ¿no? Y entonces, decidí que antes de llegar a ese momento, pues, me declaré objetor de conciencia” (Rompan filas, 2018: 0:21:12-0:21:30).
Bardeetako tiro- eremuaren kontrako	<u>Alfonso Ortiz</u> : “Éramos gente que habíamos crecido ya con la idea antimilitarista creada desde nuestra infancia. Contra esto llevábamos luchando desde críos.

jarrera	Entonces claro, cuando surgió todo el movimiento de Insumisión, nos sentíamos obligados a participar de él. Entonces, cuando íbamos a la cárcel, en el mismo juicio, yo por ejemplo, me declaré insumiso por el polígono de tiro. Les decía: no quiero participar con un Ejército que está bombardeando mi tierra” (Garro, 2020: 01:19:27-01:19:26).
Drogen Kontsumoa	<u>Jacinto Antón</u> : “Las borracheras también era algo bastante a la orden del día. [...] Beber o fumar. Hay gente que empezó a tomar drogas en el servicio militar eso es bastante claro” (Rompan filas, 2018: 0:17:25-0:17:35).
Praktikotasun falta	Denbora galtzea zela, zentzurik gabeko zerbait zela, gerrarik ez zegoelako eta egiten zuten entrenamedu militarra erabilgarria ez zelako (Rompan filas, 2018).

Egileak egina. Iturriak: Garro, 2020. Katebegia, 2019. Rompan filas, 2018.

2.4.4. Prozesu historiko eta gertakari nagusiak (1971-2001)

Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioaren Mugimendua ulertzeko, pentsamendu historikoa lantzeko ezinbesteko hainbat gertakari eta prozesu historiko nabarmentzen dira. Gai hauetan oraindik eztabaida historiografikoak pil-pilean dabilta, eta hau laburpentxo bat besterik ez da. Laburpentxo honetan, Pere Ortegaren *Dinero y militarismo* (2018) liburua eta batez ere *Rompan Filas* RTVE-eko dokumentalean oinarrituta da, proposamen didaktikoan landuko direlako. Gizarte Mugimendu honekin erlazionatuta agertzen diren garaiko prozesu historiko eta gertakari nagusiak hauek dira:

2.4.4.1. Trantsizio politikoaren garaia (1975-1982)

Garai honetan, ezegonkortasun politikoa, krisi ekonomikoa eta aldaketa sozial, politiko eta kultural azkar eta sakonak izan ziren. Testuinguru honetan, estamentu militarrek erreakzionatu zuen: “Las FAS se consideraban la salvaguarda del régimen, tras el asesinato de Carrero Blanco (1973), ante el temor de una sublevación interior, se hicieron fuertes en los cuarteles, elevando la altura de los muros, iluminando sus exteriores, situando almabradas y añadiendo garitas de observación. La brigada acorazada Brunete, cuerpo de élite militar armado con los tanques M-48, estaba en permanente estado de alerta para intervenir. Los reclutas dejaron de hacer el servicio militar en la región de origen y fueron enviados a otras provincias para impedir su vinculación afectiva con la población de donde eran originarios. Es decir, las FAS, tenían una insurrección pues conocían la desafección que sentían hacia ellas gran parte de la población española (Cardona, 2003)” (Ortega, Pere: 2019: 58).

Diktaturako botere faktikoek botere judiziala, militarra eta politikoa euren esku zuten: “La dictadura, además de tener el aparato judicial y tribunales especiales como el TOP, tenía el monopolio de la violencia en sus manos (policía y ejército). Mientras que la oposición política y los movimientos sociales solo tenía la fuerza moral de sus convicciones, pero no la fuerza suficiente para imponer la ruptura que se reclamaba desde las calles” (Ortega, Pere: 2019: 62).

2.4.4.2. Espainiar Konstituzioa (1978)

Konstituzioa, ordenamendu juridikoaren lege gorena da, eta beste lege guztiek bete beharreko arau eta oinarriak zehazten ditu. Hauxe, sektore erreformista frankistek idatzi zuten. Kontzientzia eragozpenaren erregulazioa iragartzen da eta ordezkero zerbitzu zibila ezarri ahalko dela esaten du, ezer zehaztu gabe. Eskubideak eta askatasunak arautzen dituen 2. kapituluaren, 2. sekzioaren 30. artikuluan agertzen da: “2. La ley fijará las obligaciones militares de los españoles y regulará, con las debidas garantías, la objeción de conciencia, así como las demás causas de exención del servicio militar obligatorio, pudiendo imponer, en su caso, una prestación social sustitutoria” interes orokorrak betetzeko ezarri ahalko da (Constitución Española, 1978).

2.4.4.3. Espainiako Estatu kolpea (1981)

Armada Estatu Kolpe saiakeraren eragilea eta protagonista izan zen. Horrek, demokraziaren aldeko biztanleriaren zati handian, frankismoaren sektore erreformistan eta iritzi publikoan Armadaren irudi txarra eragin zuen. Estatu Kolpe saiakeraren ostean kolpistei ezarritako zigor militar leunek, argi utzi zuten Armada frankista zela eta botere handiko erakundea zela.

2.4.4.4. Anti-OTAN mugimendua (1982-86)

Epe motzeko prozesu historikoa izan zen, baina gizarte mugimendu honen bilakaeran funtsezko eragina eduki zuen. Estatu-Kolpe saiakeraren ondorioetako bat, Adolfo Suarez (1932-2014) bigarren gobernua (1979-1982) 1982an NATO-n sartzea izan zen. Herrialdearen nazioarteko isolamenduaren ostean, Europako Komunitatean integrazioa lortzea eta Armada modernizatu eta demokratizatzea bertan sartzeko gobernua erabilitako argudioak izan ziren. Alabaina, Ortegak militarrei eginiko kontzesio bezala interpretatzen du (Ortega, 2019: 67).

Gizartean errefusatze handia sortu zuen, gizarte mugimendu ezberdinen antolakuntzak MC-MK (Mugimendu Komunista) eta LCR-LI (Liga Komunista Iraultzailea) ezker iraultzailearen lidergoan. 1983an CEOP (Erakunde Bakezaleen Estatuko Koordinakundea) sortu zuten. “Otan Ez” kanpainaren inguruan antolatuta ziren: horien artean antimilitaristak, eragozleak, intsumituak, ekopazifistak, feministak... gizarte oinarri horren parte izan ziren (Oliver, 2021: 366). Kanpaina horretan, partidu politiko ezkeriak guztiak batu ziren PSOE barne. Hargatik, PSOEk 1982ko urrian hauteskundeak irabazi zituen, hauteskunde kanpaina NATO barruan mantentzeko erreferendumaren ospatzearen konpromisoa hartu zuen. PSOEk gradualki posizioa aldatu zuen. Azkenean, 1986an ospatu zenerako, PSOE NATO-n mantentzearen alde agertu zen. Horren aldeko

gobernuaren kanpaina mediatikoa oso bortitza izan zen. Felipe Gonzalez (1942) presidentek ezetza irabazten bazuen dimisioa aurkeztuko zuela mehatxatu zuen (Ortega, 2019: 73-75).

Erreferendumearen urtean, gizarte mugimenduaren sormenezko ekintza kolektibo ugari (giza-kateak, base militarretara martxak, manifestaldiak, festak...) antolatu ziren. Baiezkoak irabazi zuen, Katalunian, Nafarroan eta Euskal Autonomi Erkidegoan izan ezik. Ondorioz, "la integración en la OTAN se puede considerar como el entierro definitivo de las esperanzas de las fuerzas sociales que habían luchado para construir un modelo de democracia más participativo que permitiera intervenir directamente en cuestiones de trascendencia. La prueba, es que nunca más en España se celebró un nuevo referéndum, ni se arbitraron mecanismos de participación democrática (Ortega, 2019: 76).

2.4.4.5. Demokrazia formalaren garaia (1982-2021)

Epe ertaineko Espainiako prozesu historikoa da. Bipartidismoaren aldizkatze politikoa PSOE eta PP partiduen artean gaur arte mantendu dute. Ordezkaritzazko demokrazia burguesa ala formala, NATOren erreferendumaren ostean finkatu zen, mendebaldeko bloke kapitalistaren beste herrialdeetako ereduaren antzekoa. Espainiako botere politikoak militarkuntzari zilegitasuna, publizitatea eta finantzazio etengabea ematen dio, orainaldian mantentzen den jarraikortasunezko prozesua delarik.

2.4.4.6. Gerra Hotza (1945-1991)

Epe ertaineko nazioarteko prozesu historikoa da. Bi blokeetan militarkuntza zutabe inportantea izan zen. Etsaia eta kanpo mehatxuaren erretorikari publizitate ikaragarria eman zioten, kanpo zein barne politikan indarkeria militarra justifikatzeko asmotan. Epe historikoan zehar, karrera armamentistikoa itzela izan zen eta mehatxu nuklearra mantendu zuten. Gerra Hotzaren amaieran, 1987tik aurrera, arma nuklearrak murrizteko akordioak sinatzen hasi ziren. Testuinguru horretan, mendebaldean mugimendu bakezaleak eta mugimendu antinuklearrak loraldia bizi izan zuten. Edonola ere, gaur egun arma nuklearren %93a AEB eta Errusiaren esku daude (Outrider, 2019).

2.4.4.7. Vietnamgo Gerra (1955-1975)

Gerra Hotzaren testuinguruan, epe luzeko gerra izan zen eta ondorio ugari izan zituen. Gerrate honek mundu mailako gerraren aurkako gizarte oposizioa (1963-75) eragin zuen. Masa komunikabideetan, batez ere telebista bidez, bonbardaketa masiboak eta krudelkeria transmititu zen lehen aldia izan zen. AEB barruan gerraren aurkako kausa

diferenteak plazaratu zituzten parte-hartzaile anitzeko mugimendua izan zen, lidergotzarik gabea: gazteria, unibertsitateko ikasleria, beltzak, hippiak, hezitzaileak, erlijiosoak, akademikoak, intelektualak, militar beteranoak, ezker berria, *liberals*, *radicals*... Ekintza zuzen ezbiolentoa eta desobedientzia zibila protesta metodo nagusiak izan ziren. Washington-eko martxa (1971) gogoangarria izan zen (Prina, 2007).

Horrekin batera, kontrakultura-mugimendu hippiaren garaia da. Bizitza estiloan aldaketa soziala proposatu zuten: besteak beste, bakezaletasuna, langileek gerra-industrian lan ez egitea eta kontsumismoa uztea.

2.4.4.8. Mundu Globalizatu berria (1991)

Bloke sobietarraren gainbehera eta bukaerak, sistema kapitalistaren fase berriari eman zion hasiera: mundu globalizatua. Lehen urteetan distentsio zein lurralde-integritatearen mehatxu sentsazioaren galera gauzatu zen. Aro Berria New York-eko Dorre Bikien atentatuaren (2001) ondorioz ireki zen, etsai global berria aurkitu zenean: terrorismo islamikoa. Beldurraren kultura hedatu zen. Hemendik aurrera, mundua ulertzeko edozein alternatiba edo disidentzia terrorismo bezala interpretatu eta kriminalizatu da (Valle, 2013).

Garai honen lehen urteetan, espainiar Armadak parte-hartu zuen eta Intsumisioaren kanpaina eragin zuten hainbat gerrate gertatu ziren:

- **Golfoko Gerra (1990–1991)**. Irak herrialdeak Kuwait anexionatu zuen. AEBen lidergopeko NBEen koalizio batek galarazi zuen, bertako erregai fosilen kontrola ziurtatzeko. Momentu hartan soldaduska egiten ari ziren hainbat soldadu espainiar korbata ontzietan hara bidali zituzten. Gertaera honek Espainiako gizartean errefusatze handia sortu zuen. Hainbat desertzio kasu egon ziren, Xanti Kiroga nafarrarena tarteko.

- **Balkanetako edo Bosniako-Hertzegobinako Gerra (1992-1995)**. NATOk 1995ean parte hartu zuen. Han, Armadak, bake misio, misio humanitarioa edota bake misioa izendapena hartu zuen marketing kanpaina burutu zuen. Guda honek Espainiako Armadaren irudia arras hobetu zuen (Aguirre, 1998: 131-132).

- **Somaliako Gerra (1991tik aurrera)**. Gerra hasi baina egun batzuk lehenago, Somaliako presidentek petrolioaren ustiakuntzarako kontsezioen kontrola Conoco, Amoco, Chevron eta Phillips konpainia estatubatuarrei eman zien, Somaliako herrialdearen bi herenetan. Presidentea postutik kendu eta egun gutxi barru gudari hasiera eman zitzaion. NBE erakundeak 1992-95 artean interbentzioa egin zuen.

(Ikusi [2.1. GARAPEN-OSTETIK TRANTSIZIOAREN DISKURTSOETARA](#))

2.4.5. Sujetu historikoak

2.4.5.1. Mugimendu aktorea

2.4.5.1.1. MOC

Mugimendu sozial gidaria izan zen. Espainiako zonalde guztietan, talde txiki deszentralizatu eta saretuetan antolatu zen, armiarma-sare trinkoa eratuz. Oso heterogeneoa izan zen, baina borroka ardatzen zuen hainbat helburu komun zituzten. Estatu mailako Kongresuak antolatzen zituzten (Landa, 1979; Madril, 1986). Orain dela urte batzuk *Alternativa Antimilitarista – MOC* izendapena hartu zuen. Hauek dira kolektibo garrantzitsu hauen gidalerro nagusiak:

- ❖ **Antimilitarismoa.** “Gizarte-etzabaida eragiteko helburuarekin, ejertzitoen existentzia bera kolokan jartzeko eta ejertzitoen desagerepenaren aldeko jarrera sorrarazteko (Bilboko KEM-MOC, 2010: 09:54-10:03) helburu antimilitarista zuen. Armaden existentziaren zentzugabekeria salatzen zuten: “¿De qué tenemos que defendernos con un ejército? Defendámonos del hambre, de la marginación, del analfabetismo, de la injusticia social. Esos son nuestros verdaderos enemigos” (Bilboko KEM-MOC, 2010: 03:35-03:48). Beraz, egiturazko biolentziaren kontrako borroka aldarrikatzen du.
- ❖ **Helburuak eta bitartekoak.** Haien helburua, aldaketa soziala arrazionaltasun politiko alternatiboaren bidez bilatzea zen. Izan ere, “no pretende el voto ni el poder formal sino implicar a la sociedad para que se convierta en el sujeto de su propia transformación” (Agirre, 1998: 37). Konkripzioaren desagerepena lorpena izan zen, epe motzeko helburua, baina ez xedea. Epe ertain eta luzeko helburuek, praktika eta egitura sozialean aldaketa sakonak eskatzen zituzten. Gizartearen desmilitarizazioa (balore-ideologia eta praktika militaristekin bukatzea, hala nola elkartasun eza, autoritarismoa, hierarkia, xenofobia, indibidualtasuna, patriarkatua, ingurugioraren jazarpena), Ejertzitoen abolizioa eta Ipar/Hego zein Zentro/Periferia arteko desberdinkeria desagerrarazteko gizarte berdinzalearen eraikitzea bilatzen zen: armagintza lantegien transformazioa ekoizpen zibilerako erabiltzea, objektio fiskala, bakerako hezkuntza... ziren bitartekoak, ezbiolentoak guztiak. Bortizkeriarekin bukatzeko ez zuten bortizkeriarik erabiltzen. Beraz, helburu eta bitartekoen arteko koherentzia mantendu zuten: ezbiolentzia eta desobedientzia zibilaren bidetik. Are gehiago, praktikan helburuak bitarteko eta bitartekoak helburu bilakatzen ziren. Jesus Castañar (2013) egilearen sailkapenean ezbiolentziaren korrante soziopolitikoan txertatzen da.
- ❖ **Antolakuntza saretua.** Kargurik gabe, liberaturik gabe, finantziario kanpo iturririk gabe funtzionatzen zuten. Ez zen instituzionalizatu, ez zen partidu politiko bihurtu edota partidu politiko batekin identifikatu. Partidu politikoak (denboran zehar posizionamendu aldaketa askorekin) alde edo kontra agertu ziren.

- ❖ **Funtzionamendua.** Asanblada. Lekuan lekuko talde autonomoetan, maila erregionalean eta estatalean batzarrak antolatzen zituzten. Erabakiak hartzeko ez zuten bozketarik erabiltzen; beti kontsentsua eskuratu arte lan egiten zen.
- ❖ **Proposamen metodologikoa.** Ekintza politikoaren bi estrategia nagusiak honakoak izan ziren:
 - Desobedientzia zibila. “Es un acto público, colectivo, sin violencia, relativo a una norma social y no a una cuestión particular, y que se vale de las sanciones previstas en la ley para hacer visible su inadecuación y convencer a la sociedad y al Poder formal de la necesidad de un cambio normativo” (Agirre Aranburu, 1998: 42). Botere formala, gehiengoaren baimena ematean oinarritzen da. Eliteen boterea guztion obedientzian datza. Orduan, desobedientzia demokratizaziorako tresna da. Desobedientzia herriaren boterearen zati bat berreskuratzea da. Gizarte partaidetza eta eragin politiko eta sozialaren bultzatzailea da.
 - Ekintza zuzen ezbiolentoa. Tradizio libertariorik ikasitako ekintza zuzena ezbiolentziaren bidez gauzatzen da.
- ❖ **Erradikaltasuna.** “Mezua garbia, erradikala eta negoziatiezina delako. Ejertzitoen eta egitura militarren abolizioa aldarrikatzen dugulako” (Bilboko KEM-MOC, 2010: 10:04-10:16). Posibilismoa, hots, Estatuarekiko akordioa ez zuten aukeratu.
- ❖ **Harremanak.** Beste aktore politikoekin harremanetan formaltasun eskasa izan zuten.
- ❖ **Etika-praktikotasuna.** Utopia-identitatea eta praktikotasuna aldi berean eman ziren. Identitatea, mugimenduaren balore eta esentziaren zatia zen baina eraginkortasun-efizientzia politikoa bilatu zuten.

2.4.5.1.2. Mili KK taldeak

Mili KK koordinakundeak 1980ko hamarkadan sortu ziren. Koordinakunde hauek ekintza kolektiboaren repertorioa erabat zabaldu zuten. NATOren kontrako mugimendua, ezkertiar sentiberatasun ezberdinen militantzia, ezkertiar abertzaletasunak barne (zentzu horretan Kakitzat koordinakundeak) eta gaztedia indartsua, gizartearen zati handi batek babesten zuena eta jada atzetik belaunaldi intsumitu pioneroa zuenak, gizarte mugimenduari bultzada berria eman zioten. Asko eta asko ideologikoki ez zuten ideario ezbiolentorik, baina praktikan, desobedientzia zibilean eta ekintza zuzen ezbiolentuan oinarritu zen ekintzailtza gauzatu zuten.

2.4.5.1.3. Eragileen ekintza kolektiboaren katalogoa

Mugimendu aktorearen ekintza kolektiboaren aniztasuna paregabea da. Ekintza kolektiborako teknika eta estrategia hauek (beheko taula honetan) gaurkotasunean erabiltzen dira eta XXI. mendeko borroka kolektiboetan izaera eredugarria dute. Ez daude Bigarren Hezkuntzako irakaslegoari estrategia-sorta txiki baten aukeraketa errazten zaio

eta iturri historikoa aurkitu ahal izateko erreferentzia egiten zaio, etorkizuneko proposamen didaktikoetan klaseratu ditzaten:

Taula 4: Gizarte Mugimenduaren ekintza kolektiboak eta iturri historikoa

ESTRATEGIA	ITURRI HISTORIKOA
Gizarte zerbitzu autogestionatuak	Can Serra auzoa, 1975 (Cinema Alternatiu, 1975).
Garapenerako boluntarioritza	Pepe Beunzaren ekimena (MOC, 2002: 54-57)
Eragozpen fiskalaren kanpainak	NMI (17 kartel), 1997ko kanpaina (Rois, 2002: 337-345)
Kuartel militarretan ekintza kolektiboak	KEM-MOC-eko 12 kideren atxiloketa Aizoango kuartelean Ejertzitoaren ate irekien jardunaldietan (Silver, 1988)
Jostailu beliko VS jostailu ez sexistaren kanpaina	Nafarroako Memoriaren Institutua (5 kartel)
Kartilla militarrek erretzea	Iruñea, 1988ko azaroa Iruñean 1990. urtean (Lacalle, 2020: 46)
Emakumea Armadan inkorporatzeari uko egitearen kanpaina	1988 (Colectivo de mujeres antimilitaristas del MOC, 2002: 137-140; Pie de Paz 10, 1988ko maiatza ekaina: 19)
Giza-kateak	1989an Iruñako espetxera (Lacalle, 2020: 30-31)
Enkarteladak	1970-1980. hamarkadetan (Marcilla, 2009: 4:04-4:34)
Kontzentrazioak	Iruñako Gobernu Militarren aurrean KEM-MOC eta KAKITZAT kolektiboen parkartekin (Lacalle, 44-45)
Intsumiso Eguna (Berriozar)	
Inutilaren Eguna	Etxarri Aranatz (Lacalle, 2020:192-194)
Gerra kontseiluaren ekintzei errefusa	Joseba Lazcano Tenerifen (Valdés, 1991)
Gose grebak	Espetxean 1993 eta 1995. urtean bi gose greba.
Hotz-greba (manta batekin hilabete bat)	Iruña, Donostia eta Zaragozako espetxeak. 1996ko maiatza.
Kartzelera martxak	Astero, AFOINak antolaturik. 1990ko hamarkada.
Kateatzeak	Nafarroako Gobernu militarren aurrean, Iruñako udaletxean preso jantzita (Lacalle, 2020: 34), Iruñeko espetxearen atean (Lacalle, 2020: 36-37)
Errepide mozketak	Eserketak, Portal Berrian esekitzea (Diario de Noticias, 1996; Marcilla, 2009: 13:47-13:52)
Txupinazo intsumitua	1993ko uztailaren 6an, Iruñeko espetxearen kanpoaldean (Vigor, 1993)
Itxialdiak	NUP (Marcilla, 2009: 12:14-12:27)
Jardunaldiak	NUP (Iribarren, 1995)
Erakundeen balkoien okupazioa	PSOE (1989ko maiatza, Hego Euskal Herriko 4 probintzietan aldi berean) Nafarroan 1994an (Lacalle, 2020: 53-54), UGT, Gurutze Gorria, ONCE.
Manifestaldiak	1992ko abenduan 5.000 pertsona baino gehiago

	1993an (Marcilla, 2009: 15:21-15:35)
Performance: sormena eta umorea.	Otxoa, 1994: 0:13-0:32 Iruñeko Gobernu militarrean Hezkuntza eta Osasun publikoaren KEM-MOCaren ekintza (Lacalle, 2020: 14-15)
Margo horiarekin ekintza	1994an Bilboko kuartelean (Antimilitaristas, 2013)
Kontzertuak	Anaitasunan erraldoia (1989-1990)
Kontzertuak epaitegien aurrean	Iruñeko Auzitegi aurrean Kojon Prieto y los Huajolotes (Lacalle, 2020:52-53) Donostiako Auzitegi aurrean Negu Gorriak musika taldearen kontzertu pirataren oroitzapena (Katebegia, 2019: 0:05:34-0:09:08)
Epaiketa herrikoiak	Luis Zulaikari (Otxoa, 1994: 25:05-28:08)
Autoinkulpazioak	(Otxoa, 1994: 19:00-19:36 eta 19:49-20:17) 40 pertsonen autoinkulpazioa Iruñean (Egin, 1989ko otsailaren 22a)
Plantoak	Lehen Txantreako San Kristobal parrokian 1993. urtean (Lacalle, 2020: 92-95) NUP-en bigarrena 1994an (Lacalle, 2020: 57) Plantoa Iruñako Gobernu Militarren aurrean (Lacalle, 2020: 138-139)
Mozio instituzionalak	Sindikatuak, partidu politikoak, Diputazioak, udalak (Ajangiz, 1998: 58-65)
Bardeen tiro-eremura martxak	1995. urteko VIII. martxa (Lacalle, 2020: 24-29)
Deserzioari babes	Xanti Kiroga nafarraren aldeko ekimenak (Lacalle, 2020: 62-65)
Manifestuak eta babes deklarazioak	<<Manifiesto por la Abolición del Servicio Militar>> 1989 (Ajangiz, 1998: 56-58)
Intsumisioa Kuarteletan (1997tik aurrera)	Taxio Ardanaz (García Salcedo, 1999)

Egileak egina. Iturriak: taulan zehaztuta.

2.4.5.2. Familiak

Soldaduskak familiengan sufrimendu handia eragiten zuen. “A saber dónde es el destino de mi hijo, porque es el único que tengo y estoy que no vivo” (Rompan filas, 2018: 01:50-01:53).

Era berean, kontzientzia eragozpenak eta intsumisioak, familiakideentzat prozesu zaila izan zen. Familiak hasieran ez zuten ulertzen. “<< ¡Toda la vida hemos ido!>>. << ¿Vas a ser tú diferente?>>. << ¡Eso no lo vais a conseguir nunca!>>. Esas y otras frases parecidas escuchábamos los jóvenes de los ochenta y los noventa cuando comunicábamos en casa la decisión de no hacer la mili” (Lacalle, 2020: 96). Hainbat familietan, gerraosteko

mentalitate militaristaren inertziak, seme-alaben mentalitate antimilitaristarekin talka egiten zuen (Mirar a la ventana, 2014: 0:14:00). Kontestu horretan, Kontxita Beitiak familiakideek pairatzen zuten informazio falta handiaren testigantza helarazi digu. Kontxitak, Gipuzkoan intsumisioari buruzko informazio talde batean parte hartu zuen, ia guztiz intsumituen amez osatutakoak. Behin, aita bat informazio bila etorri zitzaion: “Inork ez dit horrela, esplikazio sakonak ematen honi buruz, eta zuek jakingo dezute beharbada besteak edo nere lagunek baino gehiago. Esaidazute, zer egin dedan nik gaizki nire bizitzan, eta nere umea hezitzen, insumisioa izateko. Pentsa ezazu, ze sentazio zeukan gizon horrek” (Katebegia, 2019: 0:24:09-0:24:32). Bere buruari errua botatzen zion. Zorionez, dena azaldu ostean sekulako lasaitasunarekin alde egin zuen.

Gainera, familiakideek “el qué diran” sufritu zuten. Inguruan erreakzioak eta aurreiritziak oso ohikoak izan ziren. Testigantzetan, aitaren lantokian, arrebaren ikasgelan, herrietan... pairatu zuten mespetxua, barre egitea, umiliazioa... kontatzen dute. Testigantza batzuen oroitzapenean, euren seme, anai edota neben ekintzek familia nuklearrean izan zuten eragin txarra eta oroitzapen ezkorrak dirau (Mirar a la ventana, 2014: 0:18:00). Horregatik, intsumisioen jarrera familiakide batzuek berekoikeria lez bizi izan zuten. Beste kasu batzuetan kontrakoa gertatu zen, gizarte mugimendua perspektiba diakronikotik gogoratuta, parte-hartze aktiboagoa eta aldekoa izango zutela adierazten dute: “si volviera a pasar otra vez, que no pase... no me quedaría en casa desde luego” (Mirar a la ventana, 2014: 0:42:00). Bestetik, zenbait familiatan, intsumisioaren jarrera familia barruko herentzia antisfaxistaren memoriarekin lotzen zuten, arbaso batzuen II. Errepublika eta Gerra Zibileko militantzia sozial eta politikoarekin hain zuzen ere.

Maiz, familia batzuetan, jokabide-transformazioa bizi izan zuten. Jaime Iribarrenek, bere familiaren jarrera aldaketa deskribatzen du: “En muchos casos, el primer acto de rebeldía se daba ante nuestros progenitores, que, a la postre, se convertirían en los mayores defensores y altavoces de la causa insumisa” (Lacalle, 2020: 96).

Bestalde, presondegiaren gogortasuna gogora ekartzea bereziki mingarria da. Ama askorentzat, espetxeak beldurra, ezjakintasuna eta zalantza etengabea zekarren. Esango dit ala ez? galdetzen zioten euren buruei. Jakin bazekitelako semeek kartzelaren bizi baldintza txarrak jasan eta izkutatzen zizkietela (Mirar a la ventana, 2014). Ezin da ahaztu, espetxeko bizi baldintza tamalgarriak direla medio, Unai Salanueva txantrearrak bere buruaz beste egin zuela (Garro, 2020) eta 1997. Urtean Zaragozako presondegian Kike Mur preso intsumitua hil zela (Estella, 2018).

Pertsona intsumituek, euren erabakiaren inguruko gogoeta egiten zuten. Iñigo Balbasek argi eta garbi adierazten du: “Dudak izaten dituzu. Ze azkenean... alde batetik badago zuk badakizuna egin behar duzuna, ez? Alde batetik, zure buruari zintzotasun mail bat erakutsiz. Beste gauza bat da erabaki horrek ekartzen dituen ondorioak, ez? (Garro, 2020: 14:16-14:37).

Zentzu honetan, AFOINA intsumituen familiakideen elkarteak, senitartekoen gizarte ekintzailtza pertsonifikatzen du (Ikusi [2.5.2. AFOINA](#)).

2.4.5.3. Gizarte zibila

Gizarte zibilean dudarik gabe iragazkor izan zen gizarte mugimendua dugu. Elkartasun taldeak gizartearen esparru ezberdinetara hedatu ziren: “La insumisión ha segregado a su alrededor un denso tejido de solidaridades y complicidades procedentes de los sectores sociales más diversos, desde el ámbito periodístico, el judicial y el político hasta el universitario y los movimientos colectivos de ámbito social, alternativo y popular. Estos han sido tantos que no pueden ser citados exhaustivamente, y tan diversos que abarcan todo el espectro del movimiento pacifista, ecologista, feminista, de grupos alternativos, de barrio, asociaciones de vecinos, de grupos cristianos, internacionalistas, escuelas y movimientos de tiempo libre y animación socio-cultural, grupos de parados, estudiantes, okupas, prensa alternativa, radios libres y un largo etcétera. Fue lo que dió en llamarse el «colchón social» de la insumisión” (MOC de Cantabria, 2002: 259).

Jaxin G. Viniegra intsumituak, “colchón social” delakoaren berebiziko papera ederki iruzkintzen du: “El colchón social fue brutal. O sea, las manifestaciones que se sucedían en Iruña con frecuencia eran siempre de varios miles de personas, algunas de decenas de miles, y eso sobrecogía incluso a los tomadores de decisiones que estaban juzgándote y encarcelándote” (Garro, 2020; 32:46-33:06). Jaxinen aburuz, gizarte zibila mugimendu honen arrakastaren gakoak izan zela baieztatzen du: “la respuesta de la sociedad civil que fue formidable, es la que verdaderamente genera la palanca. Quiero decir: podíamos haber estado cientos de miles de presos encarcelados, que si no hubiese habido un colchón social formidable como lo hubo, al Estado le hubiera dado igual absolutamente” (Garro, 2020: 01:10:46-01:11:15).

2.4.5.4. Aktore instituzionala: Estatua, Armada eta botere judiziala

Aktore instituzionalak 3 botere nagusi ditu: Estatua, Armada eta botere judiziala. Sistema parlamentarioen oinarri diren Montesquieren botere banaketa (legegilea, exekutiboa eta judiziala), ez aurretik ez orduz geroztik gaur arte, Espainiako Konstituzioan ez da betetzen. Ez dago botere banaketarik. Estatu mailako botere publiko hauek elkarlanean eta elkarrekiko menpekotasunean arituko dira. Armadak bere erakunde propioak ditu (epaitegi militarrek, lege militarra, etab.) eta DZM berez jurisdikzio militarren barruan arautzen zen. Alabaina, Estatua Armada babesten saiatu zen. Arazo politiko eta sozialetik at mantentzen bere irudia ez okertzeko epaitegi militarretatik epaitegi zibilerara pasatu zen.


Gainera, gizarte mugimenduaren eraginak botere judizialean aldaketa sortu zuen. Epailen kasuan kasuistika oso anitza izan zen. Gizartean gaiarekin zegoen zatiketa epaitegian islatu zen. Hainbat eta hainbat epaileek zigor kondetzak txikitzeko atenuanteak bilatzen zituzten eta legea aplikatzen zutenek zigor gogorragoak aplikatzen zituzten.

Sententziek desberdinkeria handia sortzen zuten. Nafarroako Auzitegian kondena gogorak nabarmenak izan ziren. Aitzitik, Estatu mailan ez zen judicializazio tasa alturik eman. Nafarroaren horrenbesteko errepresioaren zergatiak konpondu gabeko galdera historiografikoa da: zergatik Nafarroan horrenbesteko errepresioa? Nafarroan probak egin ziren? Ez dago argiturik.

Edozein modutan, erabaki judizialek kontradikzio eta oso bestelako egoerak sortu zituzten: absoluzioak, iraupen oso ezberdineko kartzela-zigorak... (Oliver, 2020: 377-378). Demokraziarako epaileen C. Gómez bozemailearen esanetan, “resulta absolutamente contrario a los fines de un Estado social democrático de Derecho, tener a un elevado número de jóvenes en prisión, precisamente por una medida de desobediencia civil, por una cuestión que no es un verdadero delito, sino la oposición a una forma de organizar el servicio militar” (Otxoa, 1994: 10:14-10:34).

Legediaren bilakaerak (1960-2001), botere instituzionalaren hiru alderdien indarren arteko oreka eta desoreka prozesua aztertzeke balio du:

Kondenak katean. Hastapenetan espezifikoki arautu gabeko gaia izan zenez, anomalia juridiko bat gertatu zen: kondenak katean. Arazo hau epaitegi militarretan eta justizia militarren kodean enmarkatzen zen. Hortaz, epaketak gerra kontseiluak ziren eta kartzela zigorrak espetxe militarretan betetzen ziren. 1960ko hamarkadan Jehovahen lekuak kartzeleratzen zituzten, behin eta berriz kondena bat bestearen atzetik pilatzen zuten. 1970an 35 Jehova lekuko espetxeratuta zeuden. Matesa politika ekonomikoaren ustelkeria kasuagatik (1969) Pepe Beunzari lehen intsumitu ideologikoari indultua tokatu zitzaion.



Irudia 1: Legediaren bilakaera (1960-2001)

Lege frankista (1973). Kontzientzia Eragozpena espetxe zigor luzeekin zigortu zen. Franco diktadorearen heriotza (1975) baino lehen.

Haste atzeratua (1977). Manuel Gutierrez Mellado (1912-1995) Defentsa gaietarako Gobernuaren lehen lehendakariordea (1976-81) eta defentsa ministroak (1977-79), lege bat eratu arte, horren ostean konpondu beharreko arte arazoa *stand by* egoeran utzi zuen.

Amnistia Legea (1977). Trantsizio garaian gauzatu zen delituaren ahazte legala, preso politikoenak, altxamendu eta sedizioa. Urtebete lehenago indultu partzialagoa eman zuten. Hainbat delitu politikoengatik, preso politikoenak ere, pertsona asko kartzelatik atera ziren. Lege honekin, 1970ko hamarkadako hainbat intsumitu espetxetik atera ahal izan ziren, hala nola, Pepe Beunza eta Can Serra (1976) auzoan zerbitzu zibilak egin zituzten seminaristak. Ez da bakarria izango. 1989ko abenduaren 1an Gobernuak “amnistía encubierta” moduko bat dekretatu zuen: 21.490 eragozle zahar erreserbara pasatu ziren (Oliver, 2019: 13).

UCD partiduaren lege saiakerak (1978, 1980). Partidu honek 1978an bere kontzientzia eragozpen lege proiektua erretiratu behar izan zuen. Bi urte beranduago, 1980an, berriro UCDren lege proiektuak PSOE, PCE eta nazionalisten zuzenketa aunitz jaso zituen eta legeak ez zuen aurrera egin ahal izan.

Kontzientzia Eragozpenaren Legea (1984). PSOEren kontzientzia eragozpenaren lege proiektua 1983koa izan zen. 1984ko abenduaren 28an onartu zen. Herriaren babesleak konstituzioaren kontrako helegitea (1984) jarri zuen. Epaitegi Konstituzionalak helegite hau 1987an errefusatu zuen. Kontzientzia Eragozpenaren legea 1988az geroz aplikatu zen. Orduan, aipatu beharra dago, bai Jehovaren lekukoek (talde kopurutsua) bai Kontzientzia Eragozleen gutxiengo batek lege hau onartu zutela. Kontzientzia eragozleen gehiengoak, aldiz, ez zuten onartu. Antimilitaristen aburuz “legeak kontzientzia eragozpena zigortzen zuen eta Ordezko Zerbitzua sortu zuen, soldadutzaren iraupenaren halako bikoia. Ez zuen aitortzen kontzientzia-eragozpenaren izaera kolektiboa, politikoa eta antimilitarista, eta horrez gain, lanpostuak kentzen zituen. Soldadutza eta ejertzitza indartzeko diseinatutako legea zen” (Bilboko KEM-MOC, 2010: 06:25-06:42).

Legea aplikatzeko eta Kontzientzia Eragozpena Estatutik kontrolatzeko, gobernuak CNOC erakundea sortu zuen. Horretaz gain, Estatuaren ordezko zerbitzu sozialaren antolamendua ez zen batere eraginkorra izan. Kontzientzia eragozle aunitz zeuden, geroz eta gehiago, eta ez zegoen zerbitzu sozialak betetzeko plaza nahikorik.

Zerbitzu Militarren Lege Organikoa (1991). Soldaduska epea murriztu eta intsumisio kasuak epaitegi militarretatik jurisdikzio zibilera pasatu ziren. Kondenak luzatu ziren. Minimoa 2 urte 4 hilabete eta egun bat 6 urtera. Intsumisio kanpainari ekin eta bi urtera gertatu zen hau: “Soldadutzaren aurrean insumiso ziren 400 lagunei kartzela-zigorra ezarri zieten; espetxeratzerik ez zen gertatu, ordea. Lege berriarekin, insumiso gutziet

ezarri zitzairen 28 hilabeteko kartzela zigorra; ordura arte soilik zegokiena ordezko zerbitzuaren kontrako insumisoei. Eragozle guztiak jarri zituzten jurisdikzio zibilaren ardurapean. Saiatu ziren gure arteko zatiketa eragiten, borroka judizializatzen, eta arazoak eremu militarretik at kokatzen. Ejertzitoak eskuak garbitu nahi zituen. Baina ez dute lortzen, bateratuta jarraitu genuen desobeditzen, eta gure ekintzak gobernu militarretan, koarteleetan eta armagintza-enpresetan burutu genituen” (Bilboko KEM-MOC, 2010: 12:00-12:36). Hori dela eta, Estatua, ZMLO-ak mugimendua deskatibatzeko saiakera horrek funtzionatu ez zuenez, 1993. urtean, gobernuak intsumituentzat neurria bat dekretatu zuen, guztiei automatikoki hirugarren gradua emango zien, kondena edozein zelarik ere (Aguirre, 1998: 74). Intsumituek plantoarekin erantzun zuten eta gatazka are konplexuagoa bihurtu zen.

Kode Penalaren Erreforma (1995). PSOEren gobernuaren azken urtea izan zen. Kartzela zigorrak 2 urte baino gutxiagokoak zirenez, zigor administratiboek “heriotza zibila” zekarren: funtzio publikoan 8-12 urte bitartean lan egiteko ezgaitasuna, kargu publiko izateko debekua eta laguntzak edo bekak jasotzeko ezintasuna. EUDIMAK aplikatzeari uko egin zion.

Kontzientzia Eragozpenaren lege berria (1998). Aznarren lehen gobernuak (1996-2000) argitaratu zuen. Legedi honek epeak murrizten zituen, zerbitzu sozialaren iraupena... (El Pais, 1998).

Derrigorrezko zerbitzu militarren bukaera (2001). Federico Trillo (1952) defentsa ministroak (2000-2004) prentsaurrekoan iragarri zuen. Dekretu bidez egin zuten eta kinten azken zozketa 2000ko azaroan izan zen. Planteamendu hau Majestic-eko akordioak (1996) lortzeko bileretan adostu zen, PP eta CIU artekoak Espainiako gobernu eratu ahal izateko, PPK hauteskundeetan gehiengo sinplea lortu baitzuen. CIUko gazterien eskakizuna izan zen (Garro, 2020: 1:08:56-1:09:54). Azken intsumitu presoak espetxetik 2002. urtean atera ziren. Orduan, intsumisioaren delitua atzeraeraginezko izaerarekin despenalizatu zen.

Legediaren bilakaeran aspektu ezberdinak aipagarriak dira. Hasteko, etengabe lege-aldaketek funtzionatzen ez dutela adierazten du, eta horrek ezegonkortasun politikoa sortzen du. Legedi bakoitzak gizarte mugimenduarentzat aukera politikoa eragiten du; gizarte mugimendu hau aldaketa juridikoetara moldatzen eta erantzuten jakin izan zuen, bere akzio kolektiboa eraginkorra izaten jarrai zedin.

Legediaren aplikazioan militarrek eta esparru judiziala (epaileak, abokatuak, fiskalak) tartekatuta ziren. Hasieran, DZM jurisdikzio militarren zegokion, baina botere politikoa Armadaren irudi txarra eragiten zuela konturatu zenean, arazo politikoa judizializatu zuen. Epaitegi zibilean, gizartearen presioa eta inpaktua oso adierazgarria izan zen. Botere judiziala, gizartearen eraginarekiko iragazkorragoa zela egiaztatu zen.

Bukatzeko, erregimen politikoak zurruntasunez jokatu zuen. Diktadura militarretik, trantsiziotik igaroz, monarkia parlamentarioaren sistema batean... aldaketa politiko handia izan zen, baina KE eta intsumisioa delitu bezala ikustea jarraikortasuna izan zuen. Klase politikoaren aukera Ejertzitoaren babestea izan zen. Ez zen sekula giza eskubide bezala planteatu.

2.4.5.5. Beste botere publiko eta erakundeak

Partidu politikoei dagokienez, gizarte mugimenduarekiko eraldaketa handia izan zuten. Hasieran ez zuen agendan politikoetan eragin, baina gizarte mugimenduaren eragin soziala hazten zihoan neurrian, partidu politiko bakoitzean aintzat hartzeko gaia izan zen (1988ko hauteskunde kanpainan islatu zen DZM-ri buruz posizionatu baitziren). Diskurtso antimilitaristarekin guztiek bat egiten ez bazuten ere, partidu askok intsumisioaren despenalizazioa eta soldaduskaren ezabapena aldarrikatu zuten. Horien artean kokatu behar ditugu Euskal Herriko eta Kataluniako partidu abertzaleak (EAJ eta CIU izan ziren garai hartako nagusiak) eta IU-Ezkerra. Partidu honek, DZM-a deuseztu ala uzteko herri galdeketa proposatu zuen, baina proposamenak ez zuen aurrera egin (El País, 1990).

Bere aldetik, PSOE eta PP, bere aldetik, eta azken horren bazkide nafarra, UPN, soldaduska mantentzearen alde eta intsumituak zigortzearen alde mantendu ziren, PPren jarrera aldaketa arte.

Sindikatuak dagokienez, UGT izan ezik, beste sindikatu guztiak poliki-poliki intsumisioaren aldeko jarrera hartu zuten. Krisi ekonomikoaren garaia zen eta profesionalek bete beharreko lanpostuak soldada jasoko ez zuten bolondresak betetzeak intsumisioaren aldeko posizionamenduan lagundu zuten.

Aipamen berezia merezi du ETA eta ezker abertzalearen jarrera. Gai konplexua da, oraindik eztabaidagarria, baina garrantzitsua intsumisioak Euskal Herrian hartu zuen indarra aintzat hartuta. Aurretik, ezbiolentziaren balio eta estrategiek, ETA eta ezker abertzalearekin egoera gatazkatsu eta kritikoa kokatzen zuten (Oliver, 2019: 9). Mikel Kazalis intsumitu gipuzkoarrak horrela gogoratzen du: “garai hartan, ezker abertzaleko taldeak, Jarraikoek eta, ez zuten bat egiten historia harekin. Ni gogoratzen naiz herrian ikusten zirela Soldaduskarik ez pintada batzuk eta beste pintada batzuk soldaduska honi ez. Bazegoelako jendia, esker abertzalearen inguruan, etabar, ba beraien ideia zala, hobe zala soldaduskara joatea, armak erabiltzen ikasteko eta gero arma horiek erabili ahal izateko, Espainiaren kontra, ez? Baina haiek izan zuten holako bilakaera bat. Ikusi zuten ze indar hartu zuen mugimenduak herri mailan eta azkenean batu ziren pixkat gure estrategira eta aldatu zuten hasierako ideia hori, nahiz eta gero esan degun bezala ere intsumisioen mugimenduaren barruan joera ezberdinak asko egon” (Katebegia, 2019: 0:37:53-0:39:00).

Ezker abertzalearen gaztediarentzako *Jarrai* erakundeak, bere Garraxika aldezkarian insumisioaren garaiari dedikatu zion zenbakian, argi geratzen da erakunde honek Nazio zapalduen Askapenerako Mugimenduen baitan, eta klase borrokan aurrera egiteko, Euskal Armada herrikoia alde agertzen zirela. Dena den, jarreraren aldaketa (Jarrai, datarik gabe: 1-16) nabaria da. Gizarte mugimenduaren Intsumisio kanpaina (1989-2001) desobedientzia zibilaren baitan, 1990-1991. urteen artean ezker independentistak batu ziren, jadanik gazte euskaldun eta kataluniarrak borrokan integratuta zeudenean.

Zerbitzu militarren ordezkoko zerbitzu soziala eskeini zuten erakundeei dagokienean, gizarte mugimenduan nahigabeko protagonismoa eduki zuten. Nafarroan ordezkoko zerbitzu soziala eskeintzen zuten erakundeak ONCE, Cruz Roja, DYA eta Ilundaingo Abeletxe-Eskola ziren (Egin, 1989). Intsumituak egoitza horien okupazioak eta kateatzeak sarritan egin zituzten.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP), Gizarte Mugimendua babestu zuen elementu aktiboa izan zen. NUP-eko Asanblada Antimilitarista antolatu zen. NUP-en itxialdiak, plantoak eta jardunaldi intsumituak ospatu ziren.

EUDIMA, Euskal Herrian 1996. urtean udal batzuek intsumituen alde hartu zuten konpromiso politikoa islatu zuen mankomunitatea zen. Erakunde horren osoko bilkuran adosten zen (aldeko bozkek HB, EA, eta EAJ izan ohi ziren). Udal guztiek, gizon gazteek 18 urteak betetzen zituztenean sail bat zuten, eta zerrenda hori ezabatu egin zuten. Juan Carlos Goienetxea EUDIMA-ko presidentearen testigantzak, mankomunitatearen izaera antimilitarista aldarrikatzen du: “Guk erakundeetan, batez ere kontralatzen genituenetan, udaletan, erabaki genuen”. Horren ondorioz, zigortuak izan ziren: epaiketak jasan zituzten eta zenbait alkate ezgaitu zituzten (Katebegia, 2018: 0:43:27-0:48:49).

2.4.5.6. Komunikabideak

Gaur egun, masa komunikabideetan iritsi den intsumisioaren irudia, miliaren istorio goxotuak, kontakizun individual nostalgikoak izan ohi dira. Masa komunikabideetan ez da helarazten ez ekintza kolektiboaren lorpena ezta gizarte borrokaren eragina ere. Adibidez, “La Resistencia” Espainia mailako *late late night* saio ospetsuenean Antonio Resines (La Resistencia en Movistar+, 2019) eta Jesus Bonilla (La Resistencia en Movistar+) aktoreek soldaduskari buruzko solasaldian antematen da. Gainera, umorearen aldagaia agerian geratzen da, Jesus Bonillak Joaquin Sabinarekin soldaduska gogoratzen duen (La Resistencia en Movistar+, 2021) anekdota. Haien bizitza-zikloen parte izan zen eta pentsamendu kritikorako ez da uzten, soilik entretenimendua eta umoreaz ekartzen dira orainaldia. Telebistan, pertsonaia famatu batzuek ere Armada goraiatzen dute. Joaquin Betisko jokalariairenean adibidea aipagarria da (Sánchez, 2019).

Transmedia unibertsoan, Youtube plataforman, militarkuntzaren difusioa egiten duten hainbat perfil daude, SoldierSpain youtuberra eta Militarmente kanala kasu. Espainiako

Ministerioaren kanalaren bidez, instituzioetatik militarkuntzaren gizatasun aurpegiaren propaganda itzela egiten da.

XX-XXI. mende aldaketa urteetan, ordea, telebista zen komunikabiderik garrantzitsuena. Armada profesionalean izena emateko urtez urteko iragarkiek oso ongi transmititzen dute publizitate kanpainak bilatzen zutena eta gizarte zibilean errotu zena (Fuerzas Armadas, 2011) 1998-2003 artean horren erakusle dira. Indar armatuen eguna ospatzeko Defentsa Ministerioaren *spot*-ek islatzen dutena (Shackleton, 2008). Zer esanik ez, transmedia unibertsoaren (serieak, pelikulak, bideojokoak...) gaia. Bortizkeria naturalizatzen da eta ikasleriaren gizarte irudikapenei buruzko ikerketa didaktikoak egin beharko dira.

Dena den, 1990ko hamarkadan ez zen horrela izan. Ejertzitoaren irudi txarra (Rompan filas, 2018: 0:21:30-0:21:47) begibistakoa zen, eta geroz eta salaketa publiko gehiago egiten ziren. Telebista saioetan horretan testigantza ezberdinak heldu zaizkigu. Kontuan hartzekoa da une horretan, telebista komunikabide ikusiena zen. Soldaduskaren eragin txarrak komunikabideetan erakusten hasi ziren. Urtero, espainiar kuarteletan batezbestean 25 buruaz beste egite gertatzen ziren (Rompan filas, 2018: 0:30:07). Adibidez, 1984an kuarteletan 41 hildako eta 110 buruaz beste egite saiakera suertatu ziren (buruaz beste egitearen datuan, gizarte zibilean baino altuagoak ziren). Hildako eta istripuen zifrei dagokienean, 1980 eta 1985 artean istripuetan 848 soldadu hil ziren, “1983 y 1988, perdieron la vida 539 soldados, 800 resultaron mutilados, y más de 8.000 sufrieron heridas graves. Asimismo, cada año se producen en los cuarteles españoles, una media de 25 suicidios” (Rompan filas, 2018: 0:29:54-0:30:06). Antonio Muñoz Molinac (1956) gogoratzen du soldaduskan, iritsi berriak zirenei, “untxiak” deitzen zitzaizela eta mota ezberdineko tratatu txarrak jasaten zituzten: ur izoztuan bainatzean, ura tutu malgu batekin bustitzea, prakak jeitsi eta ipurdian zigilu bat jartzea...

Telecinco katearen “Esta noche Cruzamos el Missisipi” (1995-1997) *prime time*-eko late night ospetsuan hori salatzen zuten ama baten testigantza agertu zen (0:30:54-0:31:20). La1 telebista publikoaren saio batean, era berean, gazte talde ezagun baten perspektiba antimilitarista esplikatu zuten (Rompan filas, 2018: 0:37:36-0:37:59).

Antonio Flores (1961-1995) abeslari ospetsuak bere soldaduskaren testigantza TVEko programa batean azaldu zuen: “allí se aprende odiar bastante bien” edota “lo más es el daño psicológico que te hacen allí y la pérdida de tiempo” (Rompan filas, 2018: 0:19:31-0:20:06). Bere perspektiba antimilitarista, “No dudaría” (1980) abesti ospetsuan islatu zuen. Antonio izenburua zuen lehen diskoan argitaratu zuen.


Gobernuak oso ongi zekien. Ejertzitoaren irudi txarrari aurre egiteko, 1982an DRISDE (Dirección General de Relaciones Informativas y Sociales de la Defensa) organua sortu zuten, Luis Reverter politikariaren zuzendaritzapean. Zertarako? “Comprendan por qué han estado sirviendo al país en la FFAA” eta “Comprendan que esto es necesario”

(Rompan filas, 2018: 0:28:16-0:28:33). Azken finean, Armada gizartera hurbiltzeko eta Armadari gizartean beharrikoko funtzio soziala esleitzeko.

Prentsa idatzian, intsumisioaren kanpainak komunikabideetan egunero ateratzea lortu zuen, egunero bi albiste hainbat urtetan zehar, 1989tik 1997ra arte (Aguirre, 1998: 68). Mugimenduaren harraminta mediatiko hoberena ekintza zuzen ezbiolentoa izan zen: “este tipo de acciones originales, audaces, espectaculares y de cierto riesgo calculado, se adapta mejor al formato mediático que las manifestaciones de siempre. Y favor por favor, poque sin la presencia de la prensa, la represión de estas acciones sería mucho más rigurosa y difícil de soportar; de hecho, ha sido la cobertura de la prensa la que ha hecho posible que se exigieran y depuraran responsabilidades cuando así ha sido (Aguirre, 1998: 65-66).

2.4.6. Gizarte Mugimenduak

Gizarte Mugimenduak elkarreragin etengabearen garatu ziren. Adibidez, Iruñeko KEM-MOC kolektiboak, bere hastapenetan, auzoetan publizitate eta difusio lan itzela egin zuen euren kausa ezagutzera emateko. Haibat intsumitu ospetsu, oinarrikoko kristautasunetik (Espainiako herri-katolizismoaren klase mugimenduan) zetozen, klase ezaugarriak zituen eta Kontzilio Vaticano II. aren haritik loratu zen. Kasuaren, intsumitu gehien zituen kolektiboa bilakatu zen. Eta zer esanik ez Gizarte Mugimendu berriak diren feminismoa eta ekologismoaren kasuan, bakezaletasuna-antimilitarismoarekin elkargune asko zituelarik, Intsumituen baitan emakume eta LGTBIQ+ kolektiboak alor espezifikokoak, bere esparrua eta lekua konkretua zutelarik. Ekologismoaren inguruko borroka antinuklearrean, Lemoizeko garaipenak borroka intsumituak ere egon ziren. Beranduago, okupak eta gaztetxeen loraldia etorriko da eta borroka guzti hauen ikaspena bereganatuko dute.



Irudia 2: Gizarte Mugimenduen elkarreragina

Beraz, gizarte mugimenduek errealitate konplexuan opresio-domeinu sistema ezberdinei aurre egiten diete aldi berean, eta askapenerako gizarte mugimendu ezberdinen elkartruke eta sinergieiei esker bilakatzen dira denbora eta espazioan zehar.

2.4.6.1. Generoaren perspektiba

Kontuan hartu beharra dago feminismoaren bigarren olatua mundu mailan (60ko hamarkadatik 80 hamarkada amaiera arte) eta Espainian garai honetan garatuz joan zela, diktaduraren desfase kronologiko berantiarra kontuan hartuz.

Alde batetik, intsumituek emakume intsumituen papera aldarrikatzen dute. Jaxin G. Viniegraren esanetan: “al final equivocadamente podemos dar una imagen súper masculina de todo aquello. Desde luego, todo el tiempo andaba pensando en toda la aportación que habéis hecho las mujeres, ¿no? Compañeras que desde el principio... pioneras... que hemos aprendido de vosotras y con vosotras” (Garro, 2020: 16:26-17:05). Gizarte mugimendu honetan emakumeek edukitako presentzia edota protagonismo mailaren eztabaidatik haratago doa Idoia Loigorri. Bere esanetan, “sí, las mujeres también éramos y somos INSUMISAS. [...] otorgábamos a los principales afectados el espacio para autodefinir y organizar la lucha. Nosotras estábamos en la retaguardia, siempre dispuestas a la lucha colectiva por la insumisión. Eso es lo mismo que se espera de nuestros compañeros en nuestra lucha por el feminismo” (Lacalle, 2020: 126)

Emakume intsumituek, ezbiolentzia eta desobediencia zibilaren praktikan, espazio publikoan bereziki, gizonen baino arazo gehiago zituzten, emakume izategatik

matxismoa sufritzen zutelako. Mabel Cañadak gogoratzen duen bezala: “A pesar de que era un medio hostil, porque yo recuerdo que era un medio hostil, porque era de hombres, sobre todo a nivel de la difusión, o cuando hacías acciones en la calle. Muchos hombres te decían: ¿Y tú qué haces ahí, marimacho? Yo me acuerdo de todo esto (Garro, 2020; 17:51-18:06).

Era berean, Jaxinek Armada eta milia bera “escuela de machismo al peor de los niveles” bezala deskribatzen du, eta Mabel Cañadak definizio hori doitzen du: “es un sistema de humillación y dominación que luego se traspasa a las estructuras de pareja, de familia (Garro, 2020: 49:13-49:53). Feminismoak, instrituzio patriarkal honen analisia perspektiba feministara zabaldu zuen, DZM eta egitura militarra bera patriarkatu eta matxismoaren oinarritzko zutabe baitira.

Soldaduskari buruz, gazte batek dio: “Es una obligación que tenemos todos los españoles de cara a nuestra patria, España. [...]. Se puede decir que allí es donde realmente te curtes y sales siendo un hombre y no como llegas que eres casi un crío” (Rompan filas, 2018: 0:38:38-0:38:56). Alabaina, Gaizka Arangurennek maskulunitatea, gizontasuna ulertzeko modu oso murriztu bat dela irudikatzen du, gaurko ikuspegi feministatik gizonkeria: “Gizondu horrek zer erran nahi zuen: soldaduskara joaten denak zer ikasten du? Ordu jakin batean leku jakin batean altxatu behar duela kornetaren soinuaz, uniformeaz jantzi behar duela, danak berdin, tente tente jarri behar duela hierarkian goragoko baten aitzinean dagoenean, ilaran joan behar duela, eta ilaratik ezin duela aterara” (Garro, 2020: 06:09-06:48). Diziiplina eta obediencia eta hierarkiaren errespetua funtsezko baloreak zituen erakundea zen.

Eta ez hori bakarrik, gizonkeriaren ideia horri bortizkeriari (indarkeria fisikoa, tratatu txarrak, ahula edo ezberdina denaren umiliazioa, obediencia itsua, zigorrak, torturak, etab.) guztiz lotuta dago: “En la mili siempre se ve mucho las típicas putadas que incluso han llegado al suicidio, a los accidentes graves, y a grandes depresiones psicológicas a los reclutas” (Rompan filas, 2018: 0:18:12-18:21). José Jiménez: Estábamos allí limpiando los hangares, y esta cuadrilla, pues bueno, me cogió, me ató de pies y manos, me roció con gasolina o un líquido inflamable no quiero decir exactamente que fuera gasolina porque no puedo asegurar, y nada, me aplicaron un mechero, y me pegaron fuego (Rompan filas, 2018: 0:18:45-0:18:57). David Molina: “Nos levantaron de la cama a las 03:00 a puñetazo limpio, y después a hacer 100 y doscientas flexiones y uno pegándome patadas en el costado. O como ponerme una pistola en la cabeza [...] el cabo Ruiz, y decir si tenía miedo a la muerte. Y apretar el gatillo” (Rompan filas, 2018: 0:19:15-0:19:30).

Azken finean, Antonio Muñoz Molinak soldaduskaren mamia bereziki ongi definitzen du “Era la fabricación de una masculinidad, bárbara, ¿no? (Rompan filas, 2018: 0:19:02-0:19:05). Matxismoa, patriarkatua eta drogen kontsumoa: O. Bustillo: “No me veía yo como un machote entre machotes bebiendo hasta caer en un coma etílico y haciendo burradas para ser más que otros (Rompan filas, 2018: 0:17:56-0:18:12).

Antimilitarismoak eta feminismoaren bigarren olatuak Espainian gogoeta eta borrokagune antzekoak zituzten eta Mabel Cañada horren testigantza helarazten du: “Creo que el militarismo a las mujeres nos ha hecho mucho daño. A todo el mundo. A la Humanidad. [...] Hace 45 años [...] ya hablábamos las mujeres que de alguna forma la cultura militar era una cultura que deriva en una violencia muy grande hacia las mujeres. Porque igual puedes decir: <<no, es que yo me hice hombre>>. Pues vaya tipo de hombre, cari” (Garro, 2020: 49:13-49:53).

Aipagarria da 1988an MOC-ek abian jarri zuen kanpaina, emakumea Armadara inkorporatzearen kontrakoa. Aintzat hartzekoa da berdintasunaren diskurtsoaren interpretazio ez ekitatiboari begira, ikuspuntu honek zentzua izan dezakeela: “Y las chicas que vayan a la mili. Las chicas también. Sí, señor” (Valdes, 1991: 13:04-13:22). Horregatik, Estatuak 1988an emakumeak Ejertzitoan sartzeko eskubidea eskuratu zuen (Ministerio de Defensa, 2018).

Emakumeen lekukotasunek ere emakumea intsumituekiko zuten harreman bezala artikulatzen da, ama, bikote edota arreba bezala bizi izan zutenaren testigantza. Errepresio mota leunago edo ikusezinago bat islatzen du, borroka ahulagoa zen Estatuko hainbat lekutan familiaren babes falta. Gizarte errepresioa oso iragazkorra da, irudia, amatasuna kolokan jartzea, semearen hezkuntza ez ote zen egokia izan, txutxumutxuak... (Mirar a la ventana, 2014).

2.4.6.2. LGTBIQ+ ekarpena

Nazioarteko LGTBIQ+ Gizarte Mugimenduaren hastapenak 1960ko hamarkadan kokatzen dira, AEBetan, Stonewall (1969). Horrek, 1990ko hamarkadan zehar borroka intsumituan oihartzuna izan zuen. Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduaren (EHGAM) 1978an klandestinitatean jaio zen eta 1982an legeztatu zen. Xabier Sanchez Goronaetak ederki adierazten du intsumisioaren papera hemengo LGTBIQ+ mugimenduarentzat zer suposatu zuen: “Así como en otros lugares fue la crisis del sida lo que politizó a los gais, en Euskal Herria fue la insumisión la que nos llevó a interiorizar el discurso *queer* y a crear un sujeto marica empoderado” (Fernández, 2021).

Nafarroan, Intsumisio marika edo arrosa 1997an hasi zen. Nafarroako taldeak Ejertzitoaren matxismoa eta homofobia salatu zuen, heteropatriarkatuaren gunea, gizonkeria ulertzeko modu oso murriztailea zuena. Era horretan, aukera izan zuten “armarnos de ideas para, una vez más, visitar los lugares donde fuimos excludixs, donde fuimos cuerpos violentados, esculpidos de manera de que pudiéramos ser como los otros” (Lacalle, 2020: 189). Estatuko jardunaldi intsumitu marikak 1995. urtean Euskal Jai gaztetxean antolatu zituzten eta Sanchezen iritziz, Iruñeko gaztetxea, ezker politikoaren konfluentzia lekua (Alternatiba, 2021) bihurtu zen.

Nafarroan, lehenik eta behin praktika egin zuten eta gero teorizazioa etorri zen. Teorizazioaren oinarria José Decadiren *Levanten nalgas* dossiera, Madrilgo *Radical Gai* erakundea eta Kataluniako mugimendua izan ziren. Bertatik asko ikasi zuten, hala nola “marica” eta “maricón” hitzen eta diskurtsoaren berjabetzea eskatzen zuen eta pertsona askori, mugimendu barrutik ere, ikaspen apurtzaile horiek integratzea asko kostatu zitzairen.

Emakumeek jasan zuten bazterkeria prozesu bera da. Armadak, emakumeak eta marikak errefusatzeko zituen erakundea zen. Egoera horretan, antimilitarismoaren ideologiatik haiek aldarrikatu zuten haiek zirela Armada errefusatzeko zutenak, emakume eta mariken giza eskubideen aurkako portaera zela medio. Lehen aipatu lez, ahalduntze prozesu kolektibo honi “reapropiación del discurso” deritza. Honetan datza: “Según el reglamento del Ejército español, los homosexuales no tenían la obligación de hacer la mili si probaban <<su enfermedad>> ante un tribunal psicológico”. Xabier Sánchez Goronaetak, berriz, bere epaiketan (1996ko ekainaren 11an) aldarrikatu zuen “lxs marikas no aceptamos que el Ejército diga de nosotrxs que somos enfermxs, y es por eso que nos negamos a aceptar la salida que se nos ofrece. Nosotros somos quienes repudiamos esa institución” (Lacalle, 2020: 189).

2.4.7. Aldiberekotasuna Europan eta Espainiaren salbuespen historikoa

Derrigorrezko Zerbitzu Militarren borroka fenomeno europartarra da eta gerraren eraldaketarekin lotu behar da (interbentzio azkarrak, teknikoki konplexuagoak...). Hainbat herrialdeetan, Frantzia, Suitza, Belgika... kontzientzia eragozpenaren mugimendua handia izan zen eta pertsona intsumituak kartzeleratuak izan ziren. Aldiz, Europako beste herrialde batzuetan Espainian ez bezala, KE legeak onartu zirenean mugimendu intsumitua despolitizatu zen.

Espainian, partidu guztiek bere posizioa aldatu zuten. Frantzia, Holanda eta Belgika ez, oraindik konspikzioaren aldeko partiduak daude. Korrante ideologiko ezkertiarrekoak batez ere, sozialistak, komunistak eta frantziar berdeak horren alde kokatzen dira. Macron Frantziako presidentek soldadutza itzultzeko proposamena egin du (Bassets, 2019). Espainian jarrera politiko hori pentsaezina da, horrelako proposamena VOX partidu ultrasentimentalaren egin du orain dela gutxi (DF Global Press, 2017).

Zergatik izan zen Espainia salbuespen historikoa? P. Oliverren tesiari kaso egingo diogu. Egilearen arabera, UCDren lege proiektua blokeatzeko desobediencia zibila eta beste partidu politikoekin laguntza erabili izan ez balitz, eta legeak aurrera jarraitu izan balu, KE orduko arauketatik eragozle erakundeak europartarragoak izango lirateke, ez erresistentzialistak eta are gutxiago intsumituak: “Hubiera sido demasiado temprana para la incipiente movilización antimili” (Oliver, 2019: 11). Aldiz, arazoa orduan ez zitzaion

interbidea aurkitu aldeko presioagatik, kontrako norantzan, Ejertzitza eta MOC kolektiboarena.

Bai, Frankismoak bai Demokrasiak, ez zuen inoiz giza eskubide bezala tratatu gizarte mugimendu honen eskakizuna, kontzientzia, beharra, baizik eta Estatuaren arazo bezala, delitu bezala, DZMren “exención” bezala, “restricción” bezala eta zigor bezala arautu zuten. Izan ere, Ejertzitzaaren barneko erreakzio kontserbadore antidemokratikoarekin talka egin zezakeen (Oliver, 2020: 357): “en parte derivada de la presión del ejército durante el proceso de democratización, que contribuiría sobremanera, a diferencia de lo que ocurría en otros países europeos, a la radicalización del movimiento de objetores en un sentido anti mili pero también antimilitarista” (Oliver: 2020; 385).

2.5. NAFARROAKO INTSUMITUEN MUGIMENDUA

Nafarroako Foru Erkidegoan, intsumisia oso ahalsua izan zen: bai intsumituen zifretan, bai intsumituen proportzioan, bai gizarte babes eta elkartasunean, baita jasandako errepresio bortitzean ere.

1980ko hamarkada hasieran Nafarroa nabarmentzen hasi zen: 1980-1982 urteen artean urtero 10 eragozle deklaratu ziren bitartean, 1982-1984 urteen artean 76 izan ziren (Oliver, 2019: 10). Gutun kolektiboaren kanpaina (1985) KEM-MOCek 167 sinadura bildu zituen (Oliver, 2019: 10-11); 1987ko azarorako ordea, 570 sinadura ziren, ia laukoitza epe motzagoan. Intsumiso kanpaina (1989) gobernu militarren aurrean Nafarroan 10 intsumiso agertu ziren, eta Estatuan osotara 57 (Oliver, 2019: 13). Jada 1990. urtean, ia 3 gazteetako 1ek, kontzientzia eragozle deklaratu zuen bere burua (Oliver, 2019: 14).

Horregatik, Nafarroa Estatu mailako gizarte mugimendu honen adibide paradigmaticoa da. Proposamen didaktiko honetan, errealitate soziopolitiko eta kultural horretan kokatuko gara eta Nafarroako xehetasunak didaktikoki aprobeztatuko ditugu.

2.5.1. Kolektibo nagusiak

Iruñeko KEM-MOC (1977-78). *Kontzientzia Eragozpenaren Mugimendua – Movimientos de Objeción de Conciencia.* Hasieran *Objetores de Conciencia de Navarra-Nafarroako Kontzientziako Batzordea* deitzen zen. Estatu mailako MOC koordinakundeari (1977) deritzo, baina baita Estatu zonalde ezberdinetan ezarritako lekuan lekuko kolektiboaren izendapena da. Gizarte Mugimendu antimilitarista eta antimiliaren gidaritza, ziklo historiko guztian zehar mantendu zuen 1990ko hamarkadatik aurrera Kakitzat koordinakundearekin konpartituz. Bere gizarte oinarriaren jatorri ideologikoa anitza izan zen: oinarriko kristautasuneko jendea, unibertsitateko ikasleria, antimilitaristak, langileria, gazteria... besteen artean. Nafarroan, Arrosadia auzoko *Bizibaketsu* hiri komunan kokatu zen. 1980ko hamarkada hasieran Nabarrera kalean informazio-bulegoa ireki zuten.

Kakitatzat (1986). Euskal Herrian 1980ko hamarkadan osatu zen taldeen koordinakunde antimilitarista izan zen. Bere sustatzailea Nafarroako Ezker Erradikala izan zen, anti-OTAN kanpainaren esperientziak ahalbidetu zuelarik. Orduz geroztik KEM-MOC-ekin gizarte mugimendua koordinatu zen, erakunde horrekin lehiakortasun-afinitate harremana proiektatuz. Ikasle-aria-gaztediaren mobilizazioan funtzio itzela bete zuen. Bere teoria eta ekintza kolektiboaren ardatzak perspektiba antimilitarista eta informazio emailearen funtzioa izan ziren.

Nafarroa Intsumitua. Koletibo berantiarragoa, Intsumisioaren kanpainaren baitan 1990ko hamarkadan sortu zen. Koordinakunde bokazioa zuen. Ezker abertzalearen identitate ideologikoa eta taldeak barnebiltzen zituen. KEM-MOC eta Kakitatzat kolektibo nagusiekin identifikatuta sentitzen ez ziren taldeak biltzen zituen (Oliver, 2019: 18). Honetaz gain, mugimenduaren deszentralizazioari ere erantzuten zuen, auzo eta herri mailako dinamikak sortuz.

Grupo Antimilitarista de Sakana (GAS). Sakanako antimilitaristen taldeak 1986tik aurrera borroka honetan ahots propioa lortu zuen. Nafarroako hainbat herrietako intsumisioaren indarra eta antolakuntza propioaren erakuslea da.

Asociación de Familiares de Objetores e Insumisos (AFOINA) (Ikusi [2.5.2. AFOINA](#))

EHGAM (Ikusi [2.4.6.2. LGTBIQ+ ekarpena](#))

2.5.2. AFOINA

Nafarroako intsumituen Familiakideen eta Lagunen elkarte (Asociación de Familiares y Amigos de insumisos de Navarra) 1992. urtean eratu zen. Mugimenduan protagonismo handiko sujetua izan zen, intsumisioaren problematika modu eutsi eta tinkoan kalera eta instituzioetara eraman zuelako (Oliver, 2019: 15). Familiakideak ideologikoki are anitzagoak ziren. Mugimenduarekiko transbertsalitate, enpatia pizte eta hedatzerako funtsezko elementu bilakatu zen, zainketa eta afektibotasunaren gunea izan baitzen: “Había familias que venían de una tradición política, de militancia, muchos. Y había otras que no venían de ahí y que se implicaron más. (Garro, 2020: 36:36-36:49).

Conchita Salinas intsumitu baten amaren arabera, “allí todos éramos iguales. Hicimos de muchas familias, una gran familia. Y bueno fue para mí el poder hablar, el poder reunirnos, el confrontar ideas, el vamos a organizar esto para que no se sientan solos, bueno, fue algo estupendo, porque empezamos a trabajar desde ya. (Garro, 2020: 31:55-32:45). Fuencisla Manrique Antonio de la Puerta intsumituaren amak ere, elkartearen elkartasuna azpimarratzen du: “Fuimos a tope a tope a colaborar con todo el movimiento que había, que desde luego era un movimiento maravilloso el movimiento de AFOINA y el

MOC también. [...] A luchar por todos. Es lo bueno que tenía ese movimiento (Garro, 2020: 35:11-35:44). Zergatik sortu zuten familia handi hori? Idoia Loigorri Villares intsumitu baten arrebaren iritziz, “formamos una gran familia porque estábamos todo el día en la calle movilizándonos, protestando, hablando con políticos, con el Defensor del Pueblo, con Jueces para la Democracia” (Lacalle, 2020: 186). Testigantza guzti hauek, erakunde honen izaera proaktibo nahiz aktiboa eta gizarte-partaidetzaren ezaugarri ezinbestekoaz mintzatzen dira, maitasunez jositako sarearen erakuntzaren ideia hain justu ere.

AFOINAK Iruñeko Espetxera asteroko deialdia egiten zuten. Horretaz gain, beste hainbat ekintza sorta bultzatzen zituen. Idoia Loigorri esanetan, “todos los jueves acompañábamos a los insumisos que estaban en tercer grado desde la plaza de Recoletos hasta la cárcel de Iruñea a donde tenían que ir a dormir. Los viernes, Eguzki irratia cedió un espacio radiofónico a los familiares y se hacían los Agurrak, para saludar, mandar mensajes y ánimos a los insumisos presos. Acompañábamos a los presos cuando hacían el plante, cuando los sacaban a juicio por quebrantar el tercer grado, en las protestas que se hacían ante el Gobierno Militar, en los cortes de carretera para hacer visible su situación. En la apertura del curso universitario. Tiramós el txupinazo alternativo en sanfermines, nos subimos al muro de la cárcel, cortamos la Vuelta ciclista par que la repercusión fuera máxima... Se hizo una caravana insumisa por Europa para dar a conocer la situación de los encarcelados...” (Lacalle, 2020; 186). Bestetik, Antonio de la Puerta eta Gaizka Aranguren intsumituek ere gogoan dute, Toñinen aita Iruñako kartzelako azken sakabanatua atera arte, goizero, lanera joan aurretik, kartzelako atera joaten zela dotore-dotore korbatuz jantzita, kartzela zuzendariari, funtzionarioei, egun on esatearekin batera haien semeen egoera gogoraraztera (Garro, 2020; 35:52-36:13).

Intsumituek sufritzen zuten errepresioa familiakideek ekintza kolektiboetan parte-hartzen zutenean ere pairatzen zuten. Fuencisla Manriquek, egun horietako baten bizipena helarazi du. Bere semea Toñin Iruñeko udaletxearen atean kateatuta zegoen eta poliziak kateak apurtu ostean porrakadak jo zituen. Indarkeriaren aurrean, Biolentzia, semea furgonara sartu arte nola mantendu zen hor kontatzen du, nahiz eta poliziak joateko esan: “eran cosas que hacías... yo no sé de dónde nos salían las fuerzas... lo hice yo y muchas madres lo hemos hecho. No creas que yo era especial” (Garro, 2020: 37:44-37:52). Errepresioaren irudi honek, ezbiolentziaren bidez gizarte mugimendu baten gizarte oinarriaren zabalpena ulertzen laguntzen du. Mugimendu ezbertitz bateko protagonisten gurasoek errepresioa jasotzen, eta gainera maitasunaren sinbolo gorena: ama. Nafarroako gizartearen gehiengorako, hori justifikatzea oso zaila izan zen.

Azkenik, Conchita Salinasek adierazten duen bezala, intsumisioak erraztu zuten belaunaldien arteko lotura, familiakideengan borroka intsumituaren helburu eta bitartekoen arteko koherentziak familien inplikaziorako kutsakorra izan baitzen: “un algo de sentirnos unidos a nuestros hijos porque la idea de ellos era la paz y que no existieran

los ejércitos. Sabemos que es una utopía, pero las utopías han movido el mundo en toda la vida. Si no se mueve por las utopías, no se mueve por nada. (Garro, 2020: 30:46-32:45).

2.5.3. Euskal Herriaren berezitasunak

NATOren kontrako antolakuntza sozial eta politikoak (1982-1986), Euskal Herria mailan, kontzientzia eragozpen zein intsumisioaren antolaketa moduan eraldaketa eragin zuen. Aipatu beharra dago, Nafarroan, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Katalunian, erreferendumean ezetzak irabazi zuela (Kireev, 2006). Euskal Herriko Mugimendu Intsumitua saretu zen. Dibertsifikazio ideologikoa indartsua izan zen: Kakitzat, Erriberako Kakitzat, GAS, Nafarroa Intsumitua... Estatuko Mili KK kolektiboak euren baliokideak izan ziren. Orduz geroztik, mugimendua eraberritu eta konplexutasuna bereganatu zuen.

Euskal Herrian, Estatuko mobilizazioaren zifra altuenak izan ziren. Goranzko joera jarraitu zuten. “El 52% de los 1.383 jóvenes que se han declarado insumisos entre 1989 y 1990 procede del País Vasco y Navarra” (Oliver, 2019: 15). 1991. urtearen hasieran, Estatu osoan intsumituen kopurua 1633 pertsonetara heldu zen. Bizkaian 207, Gipuzkoan 197, Nafarroan 182 eta Araban 96 intsumitu zeuden (Oliver, 2019: 15).

Errepresioaren zifrak Euskal Herriko probintzia bakoitzaren barruan kontraste handikoak izan ziren. Auzitegiak probintziara jarrera bateratua izan zuen. Gipuzkoan, esaterako, gehienak ez zituzten kartzeleratu. Nafarroan, aldiz, kontrakoa gertatu zen (Katebegia, 2019: 0:32:31-0:32:36). Jon Sarasua intsumitu gipuzkoarrak horrela interpretatzen du: “segur asko Nafarroan eta beste leku askotan kartzeleratzen ari ziren bezala, ba Gipuzkoan ez zutela bide hori hartuko. Nolabait gain hartzen zien estrategia baten aurrean pixka bat beraien erantzuna hori zela, masiboki ez kartzeleratzea” (Katebegia, 2019: 0:36:40-0:36:59).

Espainiako Gobernuak komunikabideetan zabaldu zuen mezu orokorra “insolidarios” izan zen, baina bereziki Euskal Herrian intsumituei terrorismoa leporatu zieten. Gizarte mugimenduaK ETA erakunde militararekin konektatu zuten, mugimenduaren kriminalizazioa eta zilegitasuna ezabatzeko asmoz: “Estatuak, gero, ikusi zuenean konponente politikoa hor zegoela, beraiek saiatu ziren esaten hori zela euskaldunen, edo abertzaleen, edo ezker abertzalearen estrategia bat, ezta?” (Garro, 2020: 59:37-59:58). Zergatik aukeratu zuten Euskal Herria? Fernando Mendiolaren esanetan, “horregatik aukeratu zuten Euskal Herria, alde batetik mugimenduak indarra zuen toki batean geldiarazteko, baina baita ere errepresioa justifikatzeko Estatu mailan” (Garro, 2020: 1:00:22-1:00:32).

2.5.4. Iruñeko Kartzela

Iruñeko espetxe zaharraren kanpoaldean, ekintza kolektibo ugari ospatu ziren, bereziki AFOINA kolektiboaren eskutik. Bere kideek elkarretaratzeak astero egiten zituzten,

megafonoekin, eskutitzekin, akanpaldiekin, etab. AFOINAK espetxeratuei hurbiltasun eta elkartasun etengabea erakusten zien, memoria lekuaren aldagai emozionalaren garrantzia azpimarragarria izanik. Besteak beste, gogoangarriak dira espazio honetako San Ferminetako txupinazo alternatiboen ospakizunak (Lacalle, 2020, 135; 148-149).

Espetxe barruan, egoera oso intentsoa izan zen. Batetik, presoek 2/3ak intsumituak izatera iritsi ziren. Iruñeko espetxea masifikatuta zegoen: ia kolapso egoeran egon zen. Bestetik, barnean lege penitentziarioa ezarrita zegoen. Intsumituek, beste preso guztiek bezala, kaleko eskubideak galdu zituzten (adierazpen askatasuna, biltzeko askatasuna...). Nahiz eta eskubiderik ez eduki, kartzelan kolektibo bat izaten jarraitu zuten. Intsumituek presoek kartzelako asanblada eratu zuten eta kontsentsu bidez hartutako erabakiei esker, ekintza politiko ezberdinak burutzen zituzten. Ondorioz, zigorrak noiznahi jasotzen zituzten: isolamenduak, parteak, mehatxuak... Zigorrik gogorrena sakabanaketa izan zen. Intsumituen jokabide txarra aitzakitzat hartuta, 8 intsumitu Estatuko espetxeetan dispersatu zituzten. Erabaki errepresibo honi emandako erantzuna oso potentea izan zen. Aurretik, 1993an beste gose greba bat egon zen, motzagoa. Bi gose greba antolatu ziren 1995. urtean: lehenengoa 15 egunekoa maiatzean eta bigarrena 21 egunekoa urrian. Gainera, hilabetez hotz greba orijinala burutu zuten, Gaizka Arangurenek IRAko presoak H blokeetan preso zeuden ideia hartu eta hemen aplikatzeko erabakia hartu zen. Sakabanaketaren oihartzuna handia izan zen, Juan Cruz Alli (1942, Iruñea) Nafarroako lehendakariak (1991-1995), Belloch ministroari sakabanatuak itzultzeko egindako eskakizuna kontuan hartzen badugu.

Ondorioz, Estatuaren bortizkeriaren erabilpen sistematikoak, iritzi publikoan irudi txarra eratuz joan zen. Espetxeko kolektibo intsumituak transformazio horretan paper aktiboa eduki zuten.

Esperientzia kartzelario honen testigantza, Gaizki Aranguren kazetari intsumituak jaso zuen. Gau batean, kartzelan kamara bat sartu ahal izan zuen. Bera bezala 2. graduan zeuden presoak grabatu zituen. Hori, lehen mailako iturri historiko paregabea da (Ikusmira, 1996). Horrekin batera, NMIko artxibo historiko digitalaren Dokumentazio atalean eskuragarri dagoen intsumitu presoek ekoizpen-idatzia oso aberatsa da. Espetxean idatzi aunitz egin zituzten, bereziki prentsan argitaratzen ziren iritzi artikulua edota entseguak. Gainera, *Giltzapeko paranoiak* aldizkari-fanzinea argitaratu zuten, borroka horren gogoetarako tarte artistikoa irekiz.

Euren borroka intsumituaz gain, intsumituek preso sozialek pairatzen zituen bizi baldintza kaxkar eta giza eskubideen urraketaren salaketa gauzatu zuten. Kartzela-zigorrak betetzen zituzten pertsonen ezaugarriak (pobrezia, HIESA, drogen adikzioa) ezagutu zituzten. Presondegian aporofobia kontzientzitzen zen eta presoak euren klase kontzientzia antisisteman sakontzeko aukera eduki zuten. Nolabait, preso politiko haiengan borroka antierrepresiboaren kontzientzia piztu zen.

Gaur egun, Iruñeko espetxea izandakoaren gunea (2012an eraitsia) Memoria Lekua da. Kartzela zegoen lekuak “Intsumisioaren Plaza” du izena, intsumisioaren borrokaren omenez aurreko legegaldian (2015-2019) Iruñako udalak oroitarri batekin Intsumituen Mugimendua omendu baitzuen (Navarratv, 2018). Borroka demokratiko honen oroimenak espazio publikoan bere lekua izatea lortu du. Azken urteetako Nafarroako politika publikoen norantza aldaketaren erakusle hioa da.

2.5.5. Kultura adierazpenak

Gizarte Mugimendu honek Nafarroako kultura isla ikusgarria eduki zuen. “En Navarra la base social de apoyo a la insumisión es tal, que está presente, en muchas fiestas populares” (Rompan filas, 2018: 0:37:59-0:38:11). Intsumisioaren himnoa Kojon Prieto y los Huajolotes (1993-1995) napar mex estiloko musika taldearen “Insumisión” abestia izan zen, gaur egun herri kultura iraun duena.

Intsumisioaren kontrako musika ekoizpen eta adierazpena, hau da, kanta-sorta itzela da, bai gaztelaniaz bai euskaraz (HardxCore Punx x Ever Canal, 2018). Abestiek gaztediaren, kaleetako sentipenarekin bat egiten zuen. Horretaz gain, garai hartan era askotariko kultura adierazpenak agertu ziren, hala nola fanzineak eta irrati libreak-independienteak (Eguzki Irratia). Beranduago, kultura kaletarraren orbitan, gaztetxeen eta okupazioaren mugimenduak honi guztiari jarraikortasuna eman zion. Estatu mailan “El Jueves” aldizkariaren “Historias de la puta mili” (1986) Ivà historietistak, asmatutako espainiar armadako soldaduen parodia satirikoa argitaratu zuen, 1992-1997 artean “Put a mili” 264 zenbakietara iritsi zen asteroko komikiak segitu zuen.

Are gehiago, Intsumisioaren inpaktua, Roger Blasco kazetariak azaldutakoaren arabera, 1983ko urriaren 22ko anti-OTAN manifestazio batean, Tuteran, Euskal Rock Erradikala sortu zen. Jaialdi haren iragarkiarene ondotik Egin egunkariaren Plaka Klik orrialdean Euskal Rock Erradikalaren manifestua idatzi zen. Jaialdi hartan batu baitziren, besteak beste, RIP, Eskorbuto, Zarama, La Polla Records eta Hertzainak taldeak (Katebegia, 2019: 0:49:09-0:50:29).

2.6. ONDORIOAK

Derrigorrezko zerbitzu militarren abolizioa, Espainiako Historian prozesu epikoa izan zen. Gizarte borroka eta eztabaida sozialeko urte luzeak izan ziren (Rompan filas, 2018: 00:46:48-00:47:18). Estatua (gubernua, botere judiziala eta Ejertzitua barne) eta Gizarte Mugimendua (intsumituen gizarte oinarria barne) izan ziren protagonistak eta urteetan zehar oreka indarrak bilakatzen joan ziren. Ideologia antimilitaristako giza-talde gutxitu batek, 1970ko hamarkada bukaeratik atxikimenduaz lortuz joan zen, 1990ko hamarkadan barrena hedabideetan ateratzen zen eta azkenean babes sozial handiko oso mugimendu

sendo eta dibertsifikatua bihurtu zen. Indar politikoek ez zuten xurgatu, ezta neutralizatu; baina urteak aurrera joan ahala, alderdi politiko eta sindikal askoren babesak jaso zuen. Zeri esker? Desobediencia zibilaren estrategia-protesta teoria-metodo ezbiolentoiari esker. Desobediencia zibila bada <<una conducta abocada a moverse siempre en el borde entre la legalidad y la ilegalidad, ante la que el carácter democrático del sistema no tiene por qué concretarse necesariamente en una solución condenatoria ni exculpatoria, sino en el hecho de que sus mecanismos penales <<chirrien>>, se resientan y provoquen, en suma, un proceso de reflexión social que lleve a un cambio de las leyes>> (Aguirre, 1998: 117). Ekintza kolektiboaren tresna etiko bezain eraginkorra izan zen. Pedro Oliver Olmo historialariaren hitzetan:

“Fue sobre todo un movimiento proactivo, eso marcaba una diferencia, la propia desobediencia civil lo lleva en sus principios y naturaleza, no es reactiva, aunque no descuida -todo lo contrario- la respuesta represiva del Estado. [...] tomaba la represión como un componente de su acción, una realidad política que debía resolverse, por un lado, protegiendo y cuidando al disidente (con grupos de apoyo, autoinculcados, abogados, apoyo institucional, etc.), y por otra, como una oportunidad para provocar avances en el devenir del conflicto con el Estado” (Iribarren, 2020).

Gizarte mugimenduak epe motzerako helburua lortu zen (DZMaren bukaera), baina ez zuen epe luzerako helburua lortu: ejertzitza ez zen desagertu, profesionalizatu zen eta gaur egun gizartearen onespina du. Soziologiaren ikuspegitik, aldaketa partzial honek ez zuen gizarte aldaketa iraunkorrik eragin.

Hala ere, gizarte zibilean utzi zuen memoria-aztarnak iraunkorrak dira: “la insumisión se convirtió en un fenómeno social que creó una cultura política genuina y perdurable, que ha ofrecido toda una experiencia y una caja de herramientas a otros muchos movimientos sociales radicales y desobedientes (los antiglobalización, el 15M, etcétera), y que -tampoco lo olvidemos- en el contexto de la sociedad vasca y del conflicto vasco, promovió o ayudó a promover un lenguaje político necesario, el de la necesidad de la desmilitarización mental y social de toda la sociedad y también de quienes dicen luchar por ella, y la apuesta por formas de lucha que humanicen la lucha misma (Iribarren, 2020). Zentzu berean mintzatzen da Pepe Beunza: “Yo pagué un precio muy alto pero estoy muy satisfecho, porque hay que situarlo en aquella época. Yo tenía amigos, que se metieron en la lucha armada” (Rompan filas, 2018: 0:11:54-0:12:00). Jexux Artola intsumituak ere Euskal Herriaren Historiarako gogoeta-gune ikusten du: “indarkeria armatuaren kontrako inflexio puntua suposatu zuen Intsumisioak (Katebegia, 2019: 0:42:32-0:43:17).

Carles Campuzano, CIU-ko gaztediaren kidea garai horretan, derrigorrezko zerbitzu militarren gaiarekin emandako gizarte aldaketaren funtsa Gizarte Mugimenduaren eta horren ondoriozko Estatuko eragile batzuen arteko prozesua bezala irudikatzen du: “Al final los cambios, son fruto de la combinación de quienes desde la sociedad desafían el

sistema y quienes dentro del sistema son capaces de cambiar las leyes. Sin los primeros seguramente no se consigue generar un clima social que haga posible que ese éxito se consiga, pero sin las reformas legislativas que se producen dentro del sistema, esos cambios no se pueden producir” (Garro, 2020: 01:10:22.-01:10:45).

Gizarte mugimenduaren gogoeta oso interesgarria da gizarte-partaidetzaren garrantzia eta ahalduntze prozesua agerian uzten duelako (Garro, 2020: 1:24:29-1:26:38): Jaxin Viniegraren ustez, “la gente que entró en la mili, probablemente en 9 meses, año y medio o lo que fuera se olvidó de aquello y para nosotros aquello fue un aprendizaje que nos lanza mucho más adelante”. Nolabait, Fernando Mendiolak esaten duen bezala, “guri espetxeak askatasuna eman digu bizitza osorako”. Askatasun horrek, Mabel Cañadaren esanetan, gaitasun sortzailea ahalbidetzen du: “hemos creado muchas cosas, que no sabíamos que podíamos crear. Y esta lucha nos lo ha permitido. Claro, cuando tú pruebas que eres capaz de crear tanto. Dices, esto también lo puedo hacer en otros territorios. Lo puedo poner al feminismo, a la agricultura, a la ganadería. Puedo realmente diseñar y transformar”. Guzti hori demokrazia parte-hartzaile, demokrazia-egileen gizartera garamatza. Balore demokratiko horiek bitartekoetan daude, eta ez soilik helburuetan: Gaizka Arangurenek dioten bezala, “ni ez nintzen intsumitu egin irabaziko genuelakoan. Berdin zitzaidan. Nik egin nuen nire buruarekin lasai, kontent eta zorientasunaren bila nembilelako”. Nahiz eta sistemaren egiturek, behin eta berriz zanpatu, Lesbosen errefuxiatuak laguntzen dituen C.S. Lewisen testigantza antzekoa da: “¿Valió la pena la insumisión? ¿Vale la pena estar aquí cuando las estructuras pueden hacer lo que quieran en un momento dado de un codazo te apartan y les van a tratar mal y les van a deportar? Sí”.

Balio eta praktika demokratikoen uztartzea mugagabea da, desobediencia zibila eta ezbiolentzia mundua ulertzeko modu alternatiboa, zure eskubideen ardura zu parte zaren gizartearena baita. Pepe Beunza jarraituz, “cuánto dura la dignidad de una persona, ¿no? hasta que se muere, cada día la tienes que defender. Pero cuando has sentido el impulso de la libertad, lo que es la libertad... eso no se olvida nunca”. Horrela, XX. mende amaiera eta XX. mendearen hasierara heltzen gara. Maila kolektiboan Iñigo Balbasek dioten bezala, “gure mendekua izan dela orain dela gutxi sortzen ari diren borroka dinamikak. Badutela, nik uste, Intsumisioaren argia behintzat hor gainean” Euskal Herria mailan, Bardeetako tiro-eremuaren kontrako borroka 1951. urtean ezarri zutenetik, Itoizko urtegiaren kontrako borroka (1996), AHTaren kontrako borroka, “La Manada” kasuaren kontrako borroka feminista (2016-2019), Altsasuko gurasoen borroka (2016) edota Lekarozeko Aroztegiaren kontrako borroka (2021) aipagarriak dira.

2.7. MILITARISMOA ETA MILITARIZAZIOA GAUR EGUN

Derrigorrezko Zerbitzu Militararekin bukatu zuen Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren Gizarte Mugimenduak, baina militarkuntzat jarraitzen du: mugimendu antimilitarista horren hainbat eskakizun, proiektu eta salaketa bere horretan dira.

Lehenik eta behin, objekzio fiskalaren aferak gastu militar erraldoia salatzen du. Estatuak gastu publikoaren zati esanguratsua Armadak mantentzeko, arma eta ekipo berrien ikerketa eta garapena sustatzeko (I+D+i militarra) eta industria konplexu militarra osatzen duten enpresak mantentzeko erabiltzen dute. Espainian PEA (Programa Especial de Armamento) programak diru hori desbideratzeko tresna nagusia dira. Inbertsio publikoa alor pribatura transferitzen dute. I+D+i militarra eta zibilaren arteko desoreka gizarte zibiletik eta komunitate zientifikotik hainbatetan salatu izan da.

Horretaz gain, aurrekontu militarren faltsukeria SIPRI eta NATO erakundearen datuei esker agerian geratzen da. Gastu hori estaltzeko, beste ministerio batzuetan partidak kokatzen dituzte, gehienbat aurrekontuetan zehaztu gabeko diru kopuruak hain zuzen ere. Gero, enpresa horiek berriro Estatuari armak eta equipo bukatuak saltzen dizkiete. Industria militar horrek, monopolioa 5-6 enpresa erraldoien eskuetan uzten du. Beraz, salneurriak ez dira batere lehiakorrak, garesti ordaitzen da eta aberastasuna ez da banatzen.


PSOE eta PPren politika gastu militarri eta Ejertzitoari esleitzen dion paperaren inguruan beretsua izan da, itxuraz desberdintasun ideologikoa egon arren: “aumentaron el gasto de manera invariable en todas las legislaturas, y en general estuvieron de acuerdo en mantener un elevado gasto militar, sin que existieran razones geopolíticas que lo justificaran (Ortega, 2019: 176).

Negozio honen irabazleak enpresa militarren exekutibo eta akzionistak, gerrak gertatzen direnean eskuratzen diren baliabide naturalen ustiatzaile eta espotatzaile diren korporazio handiak eta transnazionalak eta soldata jasotzen duten enpresa horien langileak dira. Galtzaileak, ordea, zergak ordaintzen dituzten hiritar eta herritarrak eta armen erabilera sufritzen duen biztanleria. Gainera, are galtzaileago dira Hego globalean: “las armas, se fabrican, se venden, se gana dinero con ellas en el Norte, se sufren, se pagan, en el Sur” (Fernando Quiles, 2013: 48:24-48:31). Beraz, opresio militar hori, Hego-lpar ardatzak zeharkatzen du.

Injustizia eta desberdinkeriaz beteriko mundu batean, “no hay 50.000 millones de dólares al año para luchar contra el hambre, pero hay un billón 600.00 para preparar la guerra. 32 veces más. Este es el gran absurdo y es el gran crimen del gasto militar” (Fernando Quiles, 2013: 30:11-30:27). Injustizia eta desberdinkeria mantendu nahi da eta gudaren prestaketarekin eta gudarekin berakekin negozioa itzela baita. Hori da mandatarien eta

boteretsuen lehenetasuna, interes ekonomiko: “el gasto militar no tiene nada que ver con la defensa de los pueblos. Y sin embargo, es un gasto extraordinario” (Fernando Quiles, 2013).

Mundu mailan, militarkuntzaren zirkulu bertutetsuak marko epistemologikora itzularazten gaitu, zikloa itxiz.



Irudia 3: Militarkuntza eta Antropozenoa

Egileak moldatua. Iturria: (Ortega, 2019: 169; 184-186)

“Defentsa”-ren prestaketaren atzean, lengoia, esanahi eta sinboloen esparruan lanketa sakona egin behar da. Ovidio Bustillo eragotzlearen esanetan: “el lema si quieres la paz prepara la guerra nos está llevando al abismo. Cada vez estamos más armados, cada vez hay más armas nucleares, y nadie nos garantiza que no se vayan a usar” (Rompan filas, 2018: 0:47:51-0:48:05).

Horrekin batera, botere formalak, borroka kolektiboak transformatu eta horietaz jabetzeko gaitasuna dute. Adibidez, Dolores de Cospedal (Madril, 1965) Defentsa ministroaren (2016-2018) hitzek hori adierazten dute: “La tecnología, junto a la supresión del servicio obligatorio y la integración en misiones internacionales, ha sido el tercer eje vertebrador en el salto al siglo XXI de los Ejércitos y la Armada, de su profesionalización y su preparación. También del prestigio actual que atesoran los militares españoles allá

donde sirvan” (Ministerio de Defensa, 2018). Zalantzarik gabe, intsumisioaren borroka kolektiboa ezabatzen duten diskurtsoak boteretsuak dira, eta horregatik da hain garrantzitsua diskurtso horiek, espazio publikoetan (hezkuntza eta kaleak kasu) ebidentzia historikoen bidez kolokan jartzeko gaitasuna geureganatzea.

Amaitzeko, militarkuntza guztioi eragiten digun eta guztion ardua den negozioa dela esan dezakegu: “comienza en nuestras mentes porque la consentimos sin resistencia; en las poblaciones porque votamos políticas de gobiernos que las llevan a cabo; en las escuelas y universidades donde se educa sin pensamiento crítico; en centros de investigación donde científicos desarrollan nuevos artefactos para matar; en las industrias donde los obreros las fabrican sin objeción; en la sociedad donde unos y otras no cuestionamos las causas de las guerras” (Ortega, 2019: 186).

3. MARKO DIDAKTIKOA

MAL honetan aurkezten dudan proposamen didaktikoak oinarri ezberdinak ditu, eta merezi du horiek azaltzea. Hasiko gara Gizarte Zientzien Didaktikan emandako ekarpenekin, eta horren ostean gure proposamenaren ardatza den transposizio didaktikoarekin jarraituko dugu. Horren ostean gai honekin guztiz lotuta doazen ikasketa kooperatibo eta bakerako hezkuntzaren oinarriak azalduko ditut. Bukatzeko, gure proposamenean garrantzi berezia duten ahozko iturrien tratamendu didaktikoa aipatuko dut.

3.1. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKORAKO FITXAK

Proposamen didaktikoaren ardatza dokumentuaren analisirako fitxak izango dira. Iruñako UNED Unibertsitaterako Iñigo Mugueta irakasleak prestatutako orria da. Iruñako artxibo historikoaren hainbat material idatzien transposizio didaktikoa burutzen du: “modificar y contextualizar los saberes históricos en función de la etapa educativa, el contexto educativo y los diferentes actores sociales que ejercen presión para dar forma al saber escolar” (Massip, 2020: 170). Fitxa hau, Historia Sozialaren eta Nafarroako esparru geografikoaren erakargarritasunean oinarritzen da. Iturri historikoaren erakargarritasuna eta egunerokotasuna, ikasleriaren denbora pertsonala, sozialarekin eta haientzat esanahitsuak diren arazo edo/eta gaiekin elkarreragina harituz burutuko da.

Horrela, fitxa hau oinarri hartuta, fitxaren moldaketa propioa egin da. Fitxa hauek berez, aldez aurretik aditu baten proposamena aztertutik, orijinalak dira. Masa kulturako lehen edo bigarren mailako iturri historiko bat aukeratu da (dokumental baten zatia, abesti bat, testu idatzi bat, kartelak, ikus-entzunezkoak). Transposizio didaktikoaren fitxa izendapena hartu du. Fitxa honek, hasteko, egileak prestatutako testuinguru historikoa modu didaktikoan kokatzen du. Gero, ikerketa historikoaren metodoa aplikatzen da, iturri historikoa ebidentzia edo proba bihurtuz. Oso garrantzitsua da testuaren luzera orrialde bat baino luzeago ez izatea.

Fitxa teknikoa, eduki sustantiboen-historikoen deskribapen motza (eduki sustantiboak; garaia, lekua, pertsonaiak...), dokumentuaren zailtasunak, erreferentzia bibliografikoak, testu iruzkinerako pentsamendu historikoaren garapena (multikausalitatea kausak eta ondorioak, ideia nagusiak, aldaketa eta jarraikortasuna, dimentsio etikoa eta perspektiba historikoa) testu zatiaren aukeraketa, material gehigarriak eta ikasgelan lantzeko 1-3 ariketa didaktiko proposatzen dira. Ariketetan konplexutasun kognitiboaren progresioa gauzatuko da talde kooperatiboetan metodologia aktiboak erabiliz eta lan indibiduala nahiz taldekakoa uztartuz. Prozesu hau ebaluatzeko errubrikak eta herraminta

kualitatiboak erabiliko dira, autoebaluazioa (abilezia metakognitiboak azaleratzeko), koebaluazioa (talde txikietan taldekideen arteko lana baloratzeko) eta irakaskuntza praktikak ebaluatzeko errubrika, irakaskuntzak esperimendazio eta bideragarritasuna neurtuz hobekuntzak sartzeko asmotan. Hortaz, metodo induktibo-analitiko-sintetikoak (datuak bilatu eta deskubritzeko gaitasuna) eta hipotetiko-deduktiboak (datuak interpretatzeko gaitasuna) tartekatuko dira, ikasleak historialariak garatu beharreko konpententzietan entrenatuz (Mugueta, 2020:13-36).

Fitxa hauetatik abiatuta unitate material didaktikoak osatuko duten saioak antolatuko dira. Dokumentuaren analisirako fitxak eraginkorrak dira, alde batetik, transposizio didaktikoa burutzen baitute, hots, iturri historikoa ikasleriarentzat ulergarri eta egingarria bilakatzen dute eta beste aldetik, pentsamendu historikoa lantzen dutelako. Aldi berean, hainbat iturri historiko ezberdin plazaratzea, polifoniak sinesgarritasuna ematen dio diskurtsoei, perspektiba subjektibo ugari azaleratzean eta bata bestearen kolokan jartzeko ahalmena ikasleriak ikusi ahal izatea oso aberasgarria da.

Eraginez, Bigarren Hezkuntzako edozein irakaslearentzat, osorik ala zatika, erabilgarria izango da. Horregatik, fitxa bakoitzak berezko osotasuna du, baina beste fitxekin konbinatuta koherentzia eta kohesio handiz errealitate historikoaren konplexutasuna erakutsiko dute. Moldagarritasun honen xedea institutu ezberdinen eskola testuinguru zein ikaskuntza prozesua ezberdinen errealitatera moldatzea izango da.

3.2. GIZARTE ZIENTZIEN DIDAKTIKA

Gizarte zientzien didaktika zientzia independientea da; ikerketa historikoarekiko ezberdintasun garrantzitsuak ditu. Gizarte Zientzien Didaktika, didaktika orokorraren (psikologia ebolutiboa eta ikaskuntzaren psikologia, ikasleek prozesu ebolutiboa eta burmuinaren ikasteko moduei buruz) ikerkuntza, curriculum diseinua eta ezagutza zientifikoa bateratzen ditu.

1980ko hamarkadatik aurrera, Gizarte Zientzien Didaktika zientzia gisa sistematizatu eta asko hazi zen. Hezkuntza etapa guztiak, hezkuntza formala, ez formala eta irakaslearen irakaskuntza eta prestakuntzaren esparruak hartzen ditu bere gain (Pàges, 2014: 35). Aldi berean, ikerketa historikoa eta aldaketa historiografikoa ere itzela izan da. Aitzitik, berrikuntza guzti horiek ez dira Bigarren Hezkuntzan zabaldu, aplikatu eta ikertu. Hau da gaur egun Geografia eta Historia ikasgaiak duen arazo handienetariko bat. Gehienetan, irakasleak bere gaian espezialistak dira (Pàges, 2014: 30); baina ez dute pedagogian ez didaktikan ikaspen tradizioz; Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzan ez bezala, zeinetan psikologia, pedagogia, didaktika jakintza eta apustua askoz aurreratua dagoen, nahiz eta ezagutza espezialista mugatuagoa izan. Horregatik, MAL honen sinesmen irmoa honakoa da: Bigarren Hezkuntzako Irakasleak bai Didaktikan bai gaian aditua izan beharko da.

Zertarako? irakaskuntza praktikak analizatzeko, irakaskuntzaren errealitatea, xedeak, metodoak zein arazoak detektatu, azaldu eta interbideak bilatzeko; orobat, ikaskuntza praktikak transformatu eta hobekuntzan ekiteko.

Gaiak aldatu dira, osatuago eta konplexuagoak bilakatu dira. Edozein arazo historiko perspektiba ezberdinetatik aztertzeke gai izan behar gara: horretarako, perspektiba historiko ezberdinak emango dituzten iturri historiko ezberdinak aukeratu dira.

Perspektibak zabaltzeko zereginetan, diziplinartekotasunak lagunduko digu. Antropologia, soziologia, geografia ekonomia, artea... Ikuspuntu kulturala, soziologikoa, psikologikoa, emozionala, soziala, norbanakoarena, ekonomikoa, ingurumenekoa, artistikoa, arkitektura eta paisaiaren arloko, juridikoa, genero ikuspegia, komunikatiboa, identitate kolektiboa, sinbologia, talde elkartasunak... tartekatuko dira. Bitarteko ezberdinei esker Historiara hurbilduko gara. Honek multikausalitatea indartu du. Kausa horien eragileak zein diziplina berri horien integrazioan protagonismoa izan duten pertsonaiak, sujetu historiko bihurtu dira. Hortaz, sujetu historikoak biderkatu dira. Sujetu historiko hauek, ikasleengandik gertuago daude, eta ikasleen arazo eta grinetatik hurbilago. Orainaldiko arazo eta problematikei irtenbidea bilatzeko, historiak baliatuko gara. Ikasleek iragana ikertuz oraina ulertzeko gaitasuna, abilezia eta konpetentzia eskuratuko dugu. Beraz, sozialki aipagarriak diren gaiak klasean ikertuko dira.

Kasu honetan, Historia (denboran kokapena) eta Geografia (espazioan kokapena) jakintzak dira ardatzak; “ubicarse en el mundo, interpretarlo y participar en él” (Pàges, 2014: 28) du xede. Beraz, hiritartasun demokratikorako hezkuntza da (Pagès, 2014: 20):

“Enseñanza orientada a la formación del pensamiento social, geográfico e histórico de los niños y de las niñas, de los y de las jóvenes para que puedan decidir consciente y libremente qué tipo de ciudadano y ciudadana desean ser. Para que en una sociedad democrática, puedan participar en la toma de decisiones defendiendo con argumentos consistentes sus puntos de vista de manera dialogante y pacífica”.

Xede horrek, erronka handi bat du: “el problema está en conseguir que los contenidos que se seleccionan, se secuencian y se enseñan sean significativos para quienes aprenden y respondan a aquello que cada persona y cada grupo puede aprender en un momento determinado de su escolaridad, sea porque los relaciona con su vida y su contexto, sea porque el profesorado los ha adecuado a sus competencias y a su desarrollo” (Pàges, 2014: 22). Horregatik, esan bezala gizarteak gaur egun dituen arazoak eta oraina, eraiki beharreko jakintzaren guneak dira: “El conflicto y su resolución, las diferencias, la desigualdad, la diversidad de géneros o de etnias, la justicia y el poder, la vida cotidiana o el medioambiente, deben estar presentes en la enseñanza. [...]. El profesorado de ciencias sociales ha de facilitar que el alumnado convierta su cultura vivida en un saber útil para el análisis de la realidad compleja y para la construcción de conceptos explicativos que pueda seguir utilizando en el futuro” (Pàges, 2014: 23).

Analesen eskolaren ekarpenari dagokionean, denbora eta espazio egitura handiak, ertainak eta historia txikiak ikasgelan uztartuko dira. Maila lokala eta globalaren elkarreragina aintzat hartuko da. Horixe da NUPen Historia eta Ondarea Gradua diseinatzeko erabili den irizpidea (Mendiola & Wilhelmi: 2020).

Amaitzeko, iraganeko gizarte aldaketa ulertuz, orainaldiaz gain etorkizuneko gizarte aldaketa martxan jartzeko oinarrizko faktorea izango da: “la historia debe permitir que la ciudadanía comprenda el cambio social en el pasado, para que pueda imaginar un cambio en el futuro, ya por las personas como objeto del conocimiento histórico y como agentes sociales e históricos” (Massip, 2020: 171).

3.2.1. PENTSAMENDU HISTORIKOA

Historiaren irakaskuntza magistralean, soilik datuak, gertakizunak, gai historikoak, edukiak lantzen dira. Eduki historikoak irakaskuntzan hegemonikoak dira. Eduki hauek “zer ikasi” galderari erantzuten diote. Hori ikasteaz gain, nola eta zertarako ikasten den planteatu zuten Peter Seixas eta Kate Morton ikerlariak 2013an. Galdera horiei erantzuteko pentsamendu historikoa asmatu zen, hots, denboraren pertzepzio eta kokapena bilatu, deduzitu, interpretatu eta imajinatzeke metakontzeptu konplexua. Historiaren irakaskuntzarako konpetentzia historikoak sailkatu zituzten. Irakaskuntzan aplikatu ahal izateko konpetentzia historikoak sei puntu nagusietan antolatu zituzten. Espainian, Gizarte Zientzien Didaktikaren autore nagusiek konpetentziak sinplifikatzeko joera izan dute baina proposamen didaktikoan eskema hau jarraituko da.

❖ Denbora historikoa

Aldaketak eta jarraikortasunak, eboluzioak/inboluzioak eta iraupenak identifikatzeko gaitasuna da. Prozesu historikoen erritmo historikoak ezberdinak dira eta aldiberekotasunak, gainjartzeak, dibergentziak, konbergentziak... espazio ezberdinetan gertatzen dira. Epe motzeko, ertaineko eta luzeko prozesu historikoak daude. Denbora ez da lineala ez ebolutiboa. Denborak errealitate konplexu eta aldakorrean kokatzen du ikasleria.

❖ Adierazgarritasun historikoa

Zer da guretzat garrantzitsua, interesgarria gaur egunetik iraganari buruz jakitea, orainaldian, etorkizun berdinzale eta jasangarri bat eraikitzeke orduan balia dezagun. Adierazgarritasuna garaiaren arabera aldakorra da. Gaur, Armadek, bortizkeria eta kolapso ekologikoaren arteko harreman sinbiotikoak, Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren gaia oso adierazgarria bilakatzen du, mundu mailako arazo sozialki adierazgarriari aurre egiteke harramintak direlako: “qué pueden aportar cada una de las ciencias sociales [...] a la ciudadanía, para que ésta pueda enfrentarse a los problemas de su presente y pueda construir su futuro” (Pàges, 2014: 21)

Oraina-iragana-geroa konexioa ezarriko da eta horrela Historia oraina interpretatzeko tresna erabilgarria da. Ikasleek etorkizun posibleak eta kontrafaktiko-alternatiboak proiektatzeko ahalmena izango dute.

❖ **Enpatia historikoa**

Historiaren dimentsio etikoa bezala ere ezagutzen da. Iraganeko gertaerak ez epaitzea da eta garai hartako balore, sinesmen eta etikaren azalean jartzeko gaitasuna. Gaurko perspektiba demokratikoarekin bereiztuz, baina hiritartasun demokratiko eta aktiboaren perspektibatik ere, iraganarekin loturaguneak sortzeko gaitasuna, irudimen historikoa erabiliz.

❖ **Metodo historikoa**

Iturri historikoak ikasle historialariak zerbaitetarako interpretatzen dituen ebidentzia edo froga historiko bihurtzen dira. Proposamen didaktiko honetan, iturri historiko anitzekin lan egingo dugu, lehen eta bigarren mailakoak, gaiari buruz ikuspuntu ezberdinak jasotzeko eta begirada historiko irekia eta zabala eskuratzeko.

❖ **Kontzientzia historikoa edo denboraren kontzientzia**


Gizabanako eta giza taldeen denboraren kontzientzia eratzen joatea ezinbesteko kompetentzia da, haurtzarotik landu beharrekoa. Denbora pertsonala, gizaki baten bizitza irauten duen denbora, denbora soziala eta denbora historikoa kokatuko dugu, eta haratago doan denbora geologikoa ere aintzat hartzea komenigarria da. Horrela, iraganaren ezagutza, etorkizunaren eraikuntzak proiektatu ahal izango da.

❖ **Adierazgarritasun historikoa**

Gertakizun historikoak bere testuinguruan eta perspektiban ulertzeko gaitasunari deritzo, gaur egungo balio sistemaren aurreiritzirik eratu gabe. Horretarako, ezinbestekoa da jakitea (jabe izatea) zeintzuk diren ikasle bakoitzaren eta ikastaldearen balio sistema.

3.2.2. BLOOMEN TAXONOMIA BERRIKUSIA (2001)

Ekintza kognitibo guztiek ez dute konplexutasun bera. Horregatik, Chicagoko eskolaren korrante pedagogikoaren barruan ikaskuntzak nola gertatzen ziren eta nola ebaluatu zehazteko, proposamen didaktiko honek, Bloomen Taxonomia berrikusiaren (2001) mailakatzea jarraituko du, Benjamin Bloomek eratua eta Lorin Anderson eta David R. Kratwholek berrikusia. Progresio kognitiboa erabat errespetatuko du: behetik gora 6 multzo nagusi daude: gogoratu, ulertu, aplikatu, aztertu, ebaluatu eta sortu. Zuhaitzaren multzo bakoitzaren barnean, adar berean dauden aditzek maila kognitibo bera dute. Ariketa bakoitzean aditzak belztuko dira eta irakasleriari instrukzio argiak eta zehatzak emango zaizkio, aipatu lez, aditzean, ariketa bakoitzaren eginbeharra zehaztuz.



Irudia 4: Bloom-en taxonomia berrikusiaren zuhaitza

Egileak moldatua. Iturria: irudian zehaztua.

3.3. BAKERAKO HEZKUNTZA

Bakerako Hezkuntzak, Europako 2020-30 Agendaren garapen jasagarrien 16. helburuarekin egiten du bat. Aurretik, Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren Gizarte Mugimenduak, 1977-82 artean bakerako hezkuntza jarri zuen martxan. Camino Pérez Larumbek, horrela definitzen du: “la formación en derechos humanos, el análisis crítico de las guerras, el terrorismo y los abusos de poder como vías injustas de resolución de conflictos” (Lacalle, 2020: 59).

Ikuspegi honetatik, gerra aktiborik egon ez arren, horrek ez du bake egoera automatikoa ekartzen, bakea ez baita gerrarik gabeko denbora tarte, askoz gehiago da: militaritasuna zilegiztatu duten gizartearen hainbat mekanismo, balore, ekintza... transmisio-katea apurtzea da. Orduan, bakerako hezkuntzak, weberismoak bezala, hezkuntza gizarte aldaketarako tresna ikusten du. Hezkuntza, kultura gerrazale eta militarari aurre egiteko modua da.

Giza-harremanetan, gatazka sahiestezina eta beharrezkoa da, sinesmenak, ikasketak, identitateak, zalantzan jartzeko, pentsamendu kritikoa sustatzeko, baina borroka eta biolentzia sahiestu daitezke (Lira, 2014: 125).

Paulo Freire (1921-1997) pedagogoa brasildarraren zapalduaren pedagogiaren eta ondorengo suminduraren pedagogiaren bidez, hezkuntza ez hezitzailearen ondorioak azaleratu zituen. Heziketa hezitzailea ez izateak, opresioa jasaten duenak zapaltzaile bihurtu nahiko du, eta hori da hain zuzen ere Armada bezalako erakunde hierarkiko eta hipermatxistan gertatzen zena. Antonio Muñoz Molina idazleak, berak erakunde militarrean soldaduskan bizi eta gogora ekarri duen barne gogoeta primeran adierazten du.

“Lo llamativo de aquella brutalidad era que no la ejercían los soldados profesionales, sino que eran otros soldados que sólo llevaban un poco más tiempo que nosotros. [...] (Rompan filas, 2018: 0:04:23-0:04:44).

“Una persona normal que se ve sometida a un régimen completamente arbitrario, regido por una especie de brutalidad permanente e innecesaria, y en el cual lo peor de todo es descubrir que las personas sometidas a un dominio despótico, en vez de unirse entre sí, lo que hacen es querer ganar la simpatía del que está encima” (Rompan filas, 2018: 0:22:02-0:22:33).

Hierarkian gorago zeudenekin ia kontakturik ez zutela gogoratzen du. Haien bezalako soldaduak zirenak ziren umilatu zituztenak, oihukatu, gaizki tratatu, hortik hara korrika bidaltzea, eta horrek ikaragarri harritzen du Muñoz Molina.

Aitzitik, Freireren arabera, “una de las tareas primordiales de la pedagogía crítica radical y liberadora es promover la legitimidad del sueño ético-político de la superación de la realidad injusta. Es fomentar la autenticidad de esta lucha y la posibilidad de cambiar” (Freire, 2010: 54).

Horretarako, bakerako hezkuntzaren proposamena gerra eta militarkuntzarekiko ikuspegi aldaketa da. Ez da gerra zerbat patologiko eta gaitzesgarri bezala ikusi behar, ezta gertakari natural eta sahiestezin bezala, aldian-aldiko agerraldiak gizakion biologian txertatua balego bezala (Bastida, 1996: 8). Gerrak eta Ejertzioak instituzio sozial bideragarriak izan dira gaur arte. Zein instituzio sozial eta mekanismoen bidez bultzatu eta planifikatu diren aztertu behar da eta nola sinestarazten duten beharrezko funtzio

soziala eta babes sozialaren funtzioa betetzen dutela. (Bastida, 1994: 9). Gainera, gaurko gizartearen ezaugarri gainjartzaileak dituzte: arrazionaltasuna, lehiakortasuna, zientzian konfiantza, teknologia erabilera, leialtasuna, abertzaletasuna edota adorea. Gerraren kausak ezagutu behar dira, gerra aztertu kausa horien jatorria deuseztatuko dituzten herramintak aurkitzeko. Gerrak haur erta nerabe asko txunditzen ditu, gizarte irudikapenetan horiekiko lilura nahiz sedukzioa pizten da. Bakerako hezkuntzak, militarkuntza modu desmitifikatuan irakatsiko du (Bastida, 1994).

3.4. TALDEKATZE KOOPERATIBO ETA KOLABORATIBOA

Taldekatze kooperatibo eta kolaboratibo ezberdinak daude. Talde heterogeneoekin osatzen dira. Proposamen didaktiko honetan, launakako talde txikia lehenetsi da (taulan hasierako taldea dena eta lehen saioan zehaztuko dena). Taldekatze ezberdinek ariketetan funtzio diferenteak betetzen dituzte. Proposamen didaktiko honetan, 4 taldekatze motak jarriko dira praktikan: 1, 2, 4 egitura, arkatzak erdira, adituen puzzlea eta ikerketa lankidetzak bikoteak. Bostgarren taldekatze motak, ikastaldearen ezagutza sakona eskatzen du eta irakasle bakoitzaren irizpideari utziko zaio lekua. Edozelan ere, gaur egun Nafarroako Institutu publikoetan aplikatzen ari diren IKKI metodologia kooperatiboari primeran egokitzen zaio: oro har, jakintsu aukeratuak biribilak diren ikasleak izango dira.

Taula 5: Lankidetzak taldeak

IZENA	NOLA?	ZERTARAKO?
1, 2, 4 EGITURA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ariketa planteatu. 2. Ikasle bakoitza modu indibidualean denbora tarte batez ariketa egin. 3. Talde txikiaren barruan, bikoteka bakoitzaren erantzuna komunean jarri. Bikoteak erantzun bakar bat lortu. 4. Bikote bakoitzak, beste bikotearekin erantzuna erkatu. Kotsentsuaren bidez erantzun bat bilatu. 5. Aukeran, talde handian erantzun emaitza guztiak komunean jarri. 	<p>Aurrezagutzak aktibatu</p> <p>Ikasgelaren informazioaren prozesamendua ziurtatu.</p> <p>Zalantzak argitu</p> <p>Informazioa sintetizatu edo laburbildu.</p> <p>Zuzenketak egin</p> <p>Erantzunak kontrastatu</p>
ARKATZAK ERDIRA	<p>Talde txikian daude.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Zeregin ezberdinak daude. 2. Zeregin bakoitzean taldekide batek zuzentzen du. 3. Arkatzak, boligrafoak... mahai erdian jartzen dituzte. Entzuteko eta hitz egiteko unea da, ez idatzi edo informazioa bilatzekoa. Gidariak zeregina gogoratu, mundu guztiak ulertu duela ziurtatu, zeregina nola burutu adostu eta adostasun hori guztiak ulertu 	<p>Lana planifikatu edo antolatu.</p> <p>Informazioaren prozesamendua ziurtatu.</p> <p>Zeregin bat ebazteko modu eraginkorrenaren inguruan gogoeta egin.</p>

	<p>dutela ziurtatu, zuzentzen duenak desadostasunak ebatziko ditu.</p> <p>4. Paperak, rolak, funtzioak... ezarrita daudenean, arkatzak erditik hartu eta ebatzi.</p> <p>5. Zeregin berriarekin, zereginaren gidari berria, errotazioan beti, errepikatu gabe. Prozesu bera errepikatuko da.</p>	
ADITUEN PUZZLEA	<p>1. Hasierako taldeak. Talde hauek zeregin bera dute. Zeregina, azpigaietan zatitu behar da, taldekide haina azpigai.</p> <p>2. Adituen taldeak. Azpigai bakoitzaren taldekidea, azpigai bera duten beste taldeetako ikasleekin bilduko da. Guztiek ikertzen dute eta informazioa partekatzen dute, guztiek gaia kontrolatzeko. Jatorrizko taldean informazioa transmititzeko konpromisoa dute.</p> <p>3. Hasierako taldeak berriz biltzen dira eta azpigai bakoitzean aditu bat dute. Zeregina ebatziko dute.</p>	<p>Zereginak ebatzi.</p> <p>Informazioa lortu.</p> <p>Informazioa antolatu.</p> <p>Informazioaren prozesamendua ziurtatu.</p>
LAU JAKINTSUAK	<p>1. Talde handian, klaseko 4 jakintsu aukeritzen dira. Arazo, zeregin, ariketa, proiektu bat ebatzeko lagunduko dien gai bat sakontasunean prestatuko dute.</p> <p>2. Dakitena euren ikaskideei azaltzen diete.</p> <p>3. Lan saioetan, talde txiki bakoitzak bozeramailea, jakintsuengana joko du zereginen laguntza behar duenean.</p> <p>4. Bozeramailea bera taldera itzultzen da, ikasitakoa bere taldekideei azaltzera.</p> <p>5. Jakintsuek talde txikiak laguntzen jarraituko dute lanean jarraitu bitartean.</p>	<p>Edukiak aurkeztu.</p> <p>Edukien ahozko aurkezpena sustatu.</p> <p>Ikaskideen arteko babes eta laguntza sustatu.</p>
IKERKETA LANKIDETZA BIKOTEAK	<p>1. Arazoa, egoera, gaia, kasua... planteatzen da.</p> <p>2. Taldearen antolaketa: bakarka / binaka / taldeka / talde handiak planteamendua ebatzeko hipotesia kontsentsu bidez atera.</p> <p>3. Hipotesia konprobatzeko plana diseinatu.</p> <p>4. Hipotesia konprobatu eta konklusio batera iritsi. Konklusioak kontratatu bakarra lortu arte, arazoari interbindea emateko.</p>	<p>Lanak edo ikerketa proiektuak egin.</p> <p>Hipotesiak planteatu, lan planak diseinatu eta exekutatu, estrategia ezberdinak erabiliz.</p> <p>Ondorioak atera eta komunikatu.</p> <p>Elkarrekiko laguntza eta babes sustatu.</p>

Egileak moldatua. Iturria: Estudios CREADE, 2011. Carlos Cirizaren klaseko apunteak. Innovación educativa irakasgaia. (2021eko otsailaren 22ko klasea). [PowerPoint aurkezpena]

3.5. AHOZKO ITURRIAK

Ahozko iturrien erabilera bi eratarata egin daiteke: ahazko historiaren metodo historikoa (elkarrizketak) erabilia edo hori egin gabe, elkarrizketen ikusi eta entzunezko iturriak ikasgeleratuz. Bi kasuetan, ahazkotasuna ikasgelan sartzeak abantaila batzuk ditu:

“Los alumnos adquieren, asimismo, una noción más compleja del tiempo y del espacio por medio del reconocimiento de que lo individual y lo social se entrecruzan en la sucesión, la duración y el cambio temporal, y en el espacio local y nacional. Por otra parte, pueden ampliar su conciencia histórica gracias a la percepción de que el pasado es un componente del presente inscripto en la memoria de los entrevistados y en sus propias experiencias de vida” (Benadiba, 2011: 31).

Horretaz gain, “Esta confrontación de temporalidades diferentes permite que los adolescentes comprueben la inexistencia de un tiempo lineal y uniforme” (Benadiba, 2011: 30). Hori da hain zuzen ere pentsamendu historikoaren funtsezko helburua.

Lan honetatik kanpo, amaiera ataza gisa paper interesgarria jokatuko lukeen ikerketa historikoa elkarrizketen bidez egitearen proposamena luzatzen da eta hori Intsumisioaren Memoria Leku garrantzitsuenen kanpo irteerarekin konbinatzea. Hau da, ibilibide bat Iruñean zehar egitea, eta Memoria Leku bakoitzean geldialdian elkarrizketak egitea espazio horietan bizitakoei buruz. Ondorioak eta eskolako ikus-entzunezko artxiboa egitea izango zukeen helburu. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako hainbat institutueta Gogoan proiektuaren antzeko proposamen didaktikoa izango litzateke. Horrek beste master amaierako lan baterako emango luke, elkarrizketa ikerketa historikoaren metodo historikoa aintzat hartuz eta Laura Benadiba historialari eta irakasle argentinarraren ekarpena aintzat hartuz.

4. MARKO KURRIKULARRA

Curriculumetik tiraka, curriculumaren zirrikietan murgilduz, feminismoak, aldaketa klimatikoaren kontrako borroak, antimilitarismoak, gerren kontrako mugimenduak eta orobat gaurko gizarte beharren onarpenak (Lacalle, 2020: 59), Estatuko curriculumean oinarritutako curriculum nafarra aberasten dute. Honela, curriculumak eduki historikoen abiapuntua edo oinarria izango da. Bertatik abiatuta, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuaren ikuspegi poliedrikoa garatuko da:

“El reto no es menor: que el currículum responda a criterios educativos y no a presiones políticas. Creemos que la solución va en la dirección de entender el currículum como no prescriptivo y que éste se desarrolle desde abajo, con participación del profesorado, y actualizado científicamente reconociendo los avances de la historiografía y de la didáctica” (Massip, 2020: 187).

4.1. NAFARROAKO CURRICULUM-A

Hezkuntzako Estatu mailako lege organikoa (LOMCE, 2013) du oinarri eta Foru Erkidego bakoitzak euren Autonomia Erkidegoari propio dagozkion edukiak osatzen da. Orobat, eduki historikoz osatuta dago. Zer ikasi behar dugun esaten du, zeintzuk izango diren ebaluazio irizpideak eta ikaskuntzako estandar ebaluagarriak zeintzuk diren. Ikaskuntzako estandar ebaluagarriek zer ebaluatu behar dugun zehazten dutenez, hezkuntzaren gehiegizko kontrol politikoa dakar. Edozein modutan, tokian tokiko zentroyen planek eta irakasleriaren sormenak curriculumaren egokitzapen berritzailea ziurtatzen du.

Material didaktiko hauek, DBH 4. mailan landuko bagenitu, 24/2015 Foru dekretuan, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculumak ezartzen duenaren baitan, eduki bloke, ebaluazio irizpide eta estandar ebaluagarri hauen bitartez landuko landuko genituzke:

Taula 6: DBH 4. mailako curriculum xedapenak

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK
2. MULTZOA. 1. XVIII. MENDEA EUROAPAN, 1789. URTEA ARTE		
		2.1. Bortizkeriaren inplikazioak eztabaidatzen ditu, hainbat motatako iturriekin. 4.1. Iraultzaileek jokatu zuten bezala jokatzeko zituzten arrazoiak baloratzen ditu. 4.2. Hainbat garaitako iturriak aztertuz, horien balioa ezagutzen du, ez bakarrik informazio gisa, baita historialarientzat ebidentzia diren aldetik ere.
4. MULTZOA. XIX. MENDEKO INPERIALISMOA ETA LEHEN MUNDU GERRA		
Gerra Handia		1.2. Eurozentrismoari eta globalizazioari buruzko eztabaidak

(1914-1919) edo Lehen Mundu Gerra.		lantzen ditu.
5. MULTZOA.–GERRA ARTEKO GARAIA (1919-1939)		
		<p>1.1. Hainbat jatorritako iturri historiko eta historiografikoen interpretazioak aztertzen ditu.</p> <p>1.2. Iraganeko auzi zehatz batzuk eta oraina erlazionatzen ditu, baita etorkizuneko aukerak ere.</p> <p>1.3. Emakumeen sufragioaren aldeko borrokaren zergatiak eztabaidatzen eta zerrendatzen ditu.</p>
6. MULTZOA.–BIGARREN MUNDU GERRAREN (1939-1945) ZERGATIAK ETA ONDORIOAK		
Asiako eta Afrikako deskolonizazio prozesuak.	<p>5. XX. mendean, gerraondoko deskolonizazioko gertaera inportanteenak antolatzea.</p> <p>6. Ulertzea zer muga dituzten deskolonizazioak eta independentziak mundu desorekatu batean.</p>	<p>5.1. Deskribatzen ditu deskolonizatzeko prozesuaren gertaera nagusiak.</p> <p>6.1. Prozesu beraren barneko testuinguru desberdinak bereizten ditu, esaterako Saharaz Hegoaldeko Afrika eta India (1947).</p>
7. MULTZOA. KAPITALISMOAREN EGONKORTZEA ETA BLOKE SOBIETARRAREN ISOLAMENDU EKONOMIKOA		
Francoren diktadura Espainian eta Nafarroan.	<p>3. Azaldu nola bilakatu zen Espainiako diktadura hori 1939tik 1975ra.</p> <p>4. Frankismoarenren bilakaera ere denboraren joanean azaltzea, Espainian; gertatu ziren aldaketa politiko, ekonomiko eta sozialak xehakatzea, eta horiek lotzea nazioarteko egoera aldakorrarekin.</p>	<p>1.1. Iturri historikoak eta historiografikoak erabiliz, Gerra Hotzaren garaian testuinguruko gatazka batzuk azaltzen ditu.</p> <p>1.3. Emakumeak soldatapeko lanera sartzearen ondoriozko aldaketa sozialak ezagutzen eta iruzkintzen ditu.</p> <p>2.1. Vietnamgo gerraren ondorioak deskribatzen eta iruzkintzen ditu.</p> <p>2.2. Ezagutzen ditu Espainiako gerraondoko egoera eta errepresioa, baita Francoren diktaduraren faseak ere.</p> <p>3.1. Eztabaidatzen du: nola ulertzen den Espainian eta European "memoria historikoa" kontzeptua.</p> <p>4.1. Eskema prestatzen du frankismoaren hasierako talde ideologikoei eta sostengu sozialei buruz.</p> <p>4.2. Etapak bereizten ditu Espainiak frankismoaren garaian duen bilakaeran, eta horietako bakoitzaren funtsezko ezaugarriak laburbiltzen ditu.</p> <p>4.3. Estatu frankistaren antolaketa politikoa azaltzen du.</p> <p>4.4. Eskema prestatzen du diktaduraren kontra Nafarroan dagoen oposizioaren indar nagusien eta haien ideologiaren gainean.</p>
8. MULTZOA. MUNDUA BERRIKITAN, XX. ETA XXI. MENDEEN ARTEAN		
Kapitalismoak munduan izanzen dituen eite ekonomiko eta sozialak. Espainiako trantsizio politikoa: diktaduratik	<p>1. Munduko aldaketa ekonomiko, sozial eta politikoetako prozesuak interpretatzea epe ertainean.</p> <p>3. Jakitea zer</p>	<p>3.2. Trantsizioan, mugarri izan ziren eta Espainiako gizartea aldarazi zuten gertaera batzuk zerrendatzen eta deskribatzen ditu: Joan Karlos I. are koroatzea, 1976ko erreforma politikorako Legea, 1977ko Amnistiaren Legea, Gorte Konstituziogileen irekiera, 1978ko Konstituzioaren onespina, lehenbiziko hauteskunde orokorrak, autonomien estatua sortzea, etab.</p> <p>3.3. Aztertzen du etapa horretan Espainian zegoen terrorismo arazoa (ETA, GRAPO, Terra Lliure, etab.): erakunde terroristen</p>

demokraziara (1975-1982). Europar Batasunerako bidea: batasun ekonomikotik etorkizuneko nazioz gaindiko batasun politikora.	gertaera nagusik ekarri zuten aldaketa politiko eta soziala, Espainian, 1975. urtearen ondoren, eta prozesu horri buruzko interpretazio desberdinak aztertzea. 4. Europar Batasuna eratzeko prozesuaren bilakaera ulertzea.	sorrera eta historia, biktimak defendatzeko lehenbiziko elkartzeko mugimenduak, etab. 4.1. Europar Batasunaren eraikuntzari buruz eztabaidatzen du, eta haren etorkizuna iruzkintzen.
10. MULTZOA. IRAGANAREN, ORAINAREN ETA ETORKIZUNAREN ARTEKO HARREMANA HISTORIAN ETA GEOGRAFIAN		
Iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko harremana Historian eta Geografian.	1. Ezagutzea iragana "ez dagoela hila eta lurperatua" baizik oraina ezartzen edo baldintzatzen duela, baita etorkizun posibleak eta espazio desberdinak ere.	

Material didaktiko hauek, Batxilergoan landuko bagenu, Nafarroako Curriculum, apirilaren 22ko 25/2015 Foru dekretuan, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculum ezartzen duena hartuko genuke oinarri gisa.

Lehen batxilergo Mundu Garaikideko Historiako ikasgaiari begira, material didaktikoek kontuan hartzen dituzten aspektuak hauek dira:

Taula 7: Batx. 1go mailako Mundu Garaikidearen Historiako curriculum xedapenak

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK
9. MULTZOA. MUNDU KAPITALISTA XX. MENDEAREN BIGARREN ERDIALDEAN		
Pentsamendua eta kultura XX. mendearen bigarren erdialdeko gizarte kapitalistan: Ongizate-estatua. Europar Batasuna eraikitzeke	1. XX. mendearen bigarren erdialdeko kultura kapitalistak defendatzen dituen oinarriak bereiztea, eta pentsamendu ildoak eta erdietsitako lorpenak ezartzea. 3. Europar Batasuna eraikitzeke prozesua	1.1. XX. mendearen bigarren erdialdeko kultura kapitalistaren pentsamendu ekonomikoaren ildoan zerrenda egiten du. 2.1. Ongizate-estatuaren ezaugarri eta sinboloak identifikatzen ditu modu arrazoituan. 3.1. Ardatz kronologikoak egiten ditu Europar Batasuna eraikitzeke prozesuaren gainean. 7.1. Herri bateko eredu kapitalista azaltzen du,

<p>prozesua: Europako Erkidegoetatik Batasunera. Xedeak eta erakundeak.</p>	<p>azaltzea, haren bilakaeraren mugarri nagusiak aipatuz. 7. Iturri desberdinetatik (bibliografikoak, Internet) informazioa eskuratzea eta hautatzea, mundu kapitalista halakatzen duten egitateak azaltzeko.</p>	<p>informazioa prestatu Interneten bilaketa gidatua efinetz.</p>
<p>10. MULTZOA. GAUR EGUNGO MUNDUA, IKUSPEGI HISTORIKOTIK BEGIRATUTA</p>		
<p>Berlingo harresiaren erorikoa eta New York-eko atentatuak: globalizazioa eta hedabideak. Mehatxu terrorista mundu globalizatuan. Zientiaren eta teknologiaren eragina.</p>	<p>1. Globalizazioaren ezaugarriak aztertzea, hedabideek fenomeno honen gainean duten eragina deskribaturik, baita baliabide zientifiko eta teknologikoen egungo gizartean uzten duten arrastoa ere. 2. Mehatxu terroristak (jihadismoa etab.) eguneroko bizitzan dituen ondorioak deskribatzea, eta haien ezaugarriak azaltzea. 9. Iturri desberdinetatik (bibliografikoak, Internet) informazioa eskuratzea eta hautatzea, egungo mundua halakatzen duten egitateak azaltzeko.</p>	<p>1.1. Interneten eta bestelako hedabide digitaletan dagoen informazioaren fluxuaren fidagarritasunari eta objektibotasunari loturiko ezaugarri nagusiak identifikatzen ditu. 1.2. Ondorioak ateratzen ditu egungo munduarekin ikusteko duten irudi eta material bideografikotik.</p>

Nafarroako Geografia eta Historia hautazko ikasgai zehazten da: “norbanakoek nola giza taldeek nahi dituzte historia eta sustraiak ezagutu, zeren nork iragana bere gain hartzea, barne direla asmatzeak eta huts egiteak, biderik onena baita etorkizunari heltzeko. Hori dela-eta da hain garrantzitsua gazteen artean nortasun historikoarekiko interesa piztea. Nafarroako historia ezagutzeak lagundu behar die aurreko garaietan eratu diren jokabide politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalen oinarria den erkidego batean bizi eta horren parte direla” (Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzen curriculum ezartzen duen Foru Dekretua, 2015: 150). Hortaz, ikasgai honetan landuko bagenu (lehenengo eta bigarren mailan aukerako ikasgaia izanda), eduki bloke, ebaluazio irizpide eta estandar ebalagarri hauek kontuan hartuko genituzke:

Taula 8: Batxilergoko Nafarroako Geografia eta Historiaren curriculum xedapenak

EDUKIAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	IKASKUNTZAKO ESTANDAR EBALUAGARRIAK
11. MULTZOA. GERRAONDOTIK TRANTSIZIO DEMOKRATIKORA		
<p>Gerraondoa. Francoren diktadura. Erregimenaren oposizioa. Hirurogeiko hamarkadako industrializazioa. Aldaketa sozialak eta gatatzak. Trantsizio demokratikoa Nafarroan: Espainiako 1978ko Konstituzioa.</p>	<p>1. Diktadura frankistaren euskarriak ezagutzea eta erregimenaren oposizioaren ekintzak Francoren heriotzara arte.</p> <p>2. Hirurogeiko hamarkadako industrializazioaren arazoak eta Nafarroaren garapen ekonomikoaren ulertzea.</p> <p>3. Demokraziaren trantsizioko prozesua eta egile nagusiak Espainian eta Nafarroan ulertzea.</p>	<p>1.3. Eskema bat egiten du Francoren diktaduraren alderdi politiko, sozial eta ekonomikoekin eta haien eboluzioarekin.</p> <p>1.4. Zerrenda bat prestatzen du, ideologiaren arabera, Francoren erregimenaren oposizioko alderdiekin, Espainian zein Nafarroan.</p> <p>2.1. Nafarroako industria bultzada berantiarra ezagutzen du, eta haren sektore nagusiak kokatzen.</p> <p>2.2. Nafarroako demografian eta hirigintzan hirurogeita hamarreko hamarkadan izandako aldaketak aztertzen ditu eta gatatzak sozialak ezagutzen.</p> <p>3.1. Espainiaren egoera politikoa Francoren heriotzaren ondoren azaltzen du. Suárezen eta Erregearen garrantzia demokrazian. Oposizio demokratikoaren eta erbesteko alderdien babesa.</p> <p>3.3. Espainiako 1978ko Konstituzioa prestatu eta promulgatzeko prozesua laburbiltzen du eta Nafarroari buruzko artikulua iruzkintzen.</p>
12. MULTZOA. GOBERNU DEMOKRATIKOAK GAUR EGUNDAINO		
<p>Demokraziako gobernuak Espainian eta Nafarroan. Nafarroako artea XX. eta XXI. mendeetan.</p>	<p>1. Espainiako eta Nafarroako demokraziaren eboluzioa ulertzea, hasieratik gaur egundaino: alderdi politikoak, gobernuak, aldaketa ekonomikoak, krisia eta ustelkeria, erregearen garrantzia eta prozesu separatista.</p>	<p>1.1. Denbora-lerro bat prestatzen du gaurdainoko Espainiako gobernu demokratikoekin, jarduketa eta arazo nagusiak kokatuz.</p> <p>1.5. Joan Karlos I.aren ondorengotza prozesua deskribatzen du, baita Vianako printzerriaren esanahi historikoa ere.</p> <p>2.3. Espainian eta Nafarroan joera politiko berrien ideologia laburbiltzen du, eta haren buruak aipatzen.</p>

4.1.1. Gaitasunak

Gaitasunak ekintza eraginkor bat lortzeko batera mobilizatzen diren zenbait osagai sozialen eta portaeraren konbinazioa dira. Gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko eta curriculumean benetan txertatzeko, proposamen didaktikoan ikasleei gaitasun bat baino gehiago aldi berean lantzeko aukera emanen dieten ikaskuntza jardura integratuak diseinatuko dira, ikasia errealitateari aplikatu diezaioten. Etapan zehar gaitasun hauen garapena indartuko da. Gaitasunak Nafarroako *Curriculum*-aren 6. artikuluan xedatzen dira, 7 nagusi ezberdintzen direlarik:

1. Hizkuntza komunikazioa. Gainerako gaitasunak eskuratzeko ezinbesteko faktorea denez gero, ikastetxeek ikasmaita guztietako irakaslanean bermatu beharko dute etapako irakasgai guztietan gaitasun hori irakurketaren bidez garatzeko denbora izanen dela. Geografia eta Historia ikasgaien bereziki esanguratsua da ahozko zein idatzizko adierazpena eta ahozko elkarreraginaren lanketa.

2. Matematika gaitasun eta zientzia eta teknologiako oinarriko gaitasunak. Gizarte Zientzietan kokatzen garen arren, metodo historikoak nahiz didaktikoak, metodo zientifikoaren metodologia jarraitzen dute.

3. Gaitasun digitala. Gaur egun, Nafarroako Gobernuaren *Ikasnova* digitala institutu publiko guztietan ezarrita dago eta ikasle bakoitzak bere *chromebook* ordenagailu eramangarria du. *Google classroom* ikasgela birtuala ere egunerokotasunean darabilte. Teknologia digitalak erabiltzeko gaitasuna egunerokoan zeharka lantzen da eta ariketa didaktiko batzuetan modu espezifikoa landuko da. Proposamen didaktikoan *Youtube* eta *Vimeo* plataformetan kokatuta dauden ikus-entzunezko iturri historikoak landuko ditugu. Gainera, Nafarroako Memoria Institutuaren artxibo historiko digitala arakatzeko aukera izango dugu. Horretaz gain, *tiki-toki* aplikazioaren bidez denbora-lerro digitalak eraikiko ditugu eta *kahoot* jolasean online jokatu da.

4. Ikasten ikastea. Ikaskuntza prozesuari buruzko gogoeta, norberaren prozesu kognitiboen identifikazioa, horri buruzko gogoeta eta ikaskuntza prozesuetan hobekuntzak egiteko aukera batez ere ebaluazio-sisteman jasoko da. Metakognizioaren entrenamendua arrakasta akademikoaren eta norbanakoaren ezagutzaren osagai garrantzitsua da.

5. Gaitasun sozial eta zibikoak. Talde txiki kooperatibo eta kolaboratiboetan ikasi beharko da, taldean lan egiteko gutxieneko asertibitate eta lankidetzaren gaitasuna eskatzen duena.

6. Ekimena eta ekintzailtza. Proposamen didaktiko honek gizarte zibilaren antolakuntza politiko eta soziala, herritartasun aktibo eta demokratikoaren funtsezko eta beharrezko tresna bezala kontsideratzen du. Kontzientzia Eragozleak eta Intsumituak partaidetza horren erakusle eta eredu dira; ezbiolentzia eta desobedientzia zibila, hiritartasun eta herritartasunaren ekimen eta ekintzailtza eraikitzailearen muina da.

7. Kontzientzia eta adierazpen kulturalak. Erakunde militarra eta militarkuntza, mendebaldeko kulturaren kodeetan kokatzen da. Adierazpen kultural baten ondorioa izatearen kontzientzia hartzea, beste aukera-kultura-filosofia edota bizitza-eredu antimilitaristak ezagutzeko eta horietatik ikasteko aukera eskeintzen du.

4.1.2. Konpetentziak

Hezkuntza etapa eta irakaskuntza honetako berezko edukiak modu integratuan aplikatzeko gaitasunari deritzo, ariketa eta problema konplexuen ebazpen eraginkor gauzatze egokia lortzeko helburuarekin. Kasu honetan, iturri historikoak ulertu, aztertu, kontrastatu eta interpretatzeko gaitasuna-abilezia landuko dute.

4.1.3. Aniztasunaren trataera

Aplikazio didaktiko honetan ez da aurreikusi behar berezirik, curriculum egokitzapenik edota laguntza espreski behar duen ikasleentzako jarraibiderik. Hori bai, proposamen didaktikoa prestatzerako orduan, adimen anizkoitzen teoria kontuan hartu da eta ikasleriari kontzeptu konplexu eta nahasgarriak argitzeko glosarioa eskeiniko zaio.

4.1.4. Helburu orokorrak

Esan beharra dago, DBH eta Batxilergoaren etapen helburu orokorrek proposamen didaktikoarekin curriculumarekin eduki, ebaluazio irizpide eta ebaluazioaren estandar ebaluagarriek baino askoz hobe egiten dutela bat. Proposamen didaktiko honetan landuko diren helburu orokorrak eta helburu didaktiko ezpezifikoak, zuzenean erlazionaturik daude Nafarroako curriculumeko bi etapetako helburuen laburpentxo honekin:


Taula 9: Bi etapetarako helburu orokorrak

DBH-ko ETAPAREN HELBURUAK (4. ARTIKULUA)	BATXILERGOKO ETAPAREN HELBURUAK (3. ARTIKULUA)
<p>a) Beren betebeharrak arduraz bereganatu, besteekiko errespetua gordez beren eskubideak ezagutu eta gauzatu; pertsonen eta taldeen artean tolerantzia, lankidetzeta eta elkartasuna praktikatu; eta herritartasun demokratikoa gauzatzeko prestatu.</p> <p>b) Diziplina, ikasketa eta lanerako azturak, bakarkakoak eta taldekoak garatu eta sendotu.</p> <p>c) Sexuen arteko aldeak eta sexuen arteko eskubideen eta aukeren berdintasuna balioetsi eta errespetatu. Gizonen eta emakumeen arteko bazterkeria dakarten estereotipoak arbuia.</p> <p>d) Gaitasun afektiboak indartzea nortasunaren</p>	<p>a) Herritartasun demokratikoa gauzatzea ikusmolde global batetik abiatuta, eta Espainiako Konstituzioko balioek eta giza eskubideek iradokitako kontzientzia zibiko arduratsua eskuratu, gizarte justu eta ekitatiboa egiterakoan erantzukidetasuna sustatuko duena.</p> <p>b) Heldutasun pertsonal eta soziala sendotu, modu arduratsuan eta beregainean jardun dezaten eta beren espiritu kritikoa gara dezaten. Gatazka pertsonalei, familiakoei eta sozialei aurrea hartu eta era baketsuan ebatzi.</p> <p>c) Gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatzea, gaur egun dauden berdintasun-eza eta diskriminazioak kritikoki</p>

<p>eta besteekiko harremanen esparru guztietan, indarkeria, edozein motatako aurreiritziak eta portaera sexistak arbuiatu eta gatazkak modu baketsuan ebatzi.</p> <p>e) Oinarrizko trebetasunak garatu informazio iturrien erabileran, zentzu kritikoz, ezagutza berriak eskuratzeko. Teknologien eremuan oinarrizko prestakuntza eskuratu, bereziki informazio eta komunikaziokoetan.</p> <p>f) Ezagutza zientifikoa jakintza integratu modura hartzea, eta ezagutzaren eta esperientziaren eremu desberdinetan arazoak identifikatzeko metodoak ezagutu eta aplikatu.</p> <p>g) Espiritu ekintzailea eta norberarenganako konfiantza, parte-hartzea, zentzu kritikoa, ekimen pertsonala eta ikasten ikasteko, planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta erantzukizunak bereganatzeko gaitasuna garatu.</p> <p>h) Gaztelaniazko eta euskarazko testu eta mezu konplexuak, ahoz eta idatziz, zuzen ulertu eta adierazi.</p> <p>j) Geografia, historia eta kultura unibertsala, oro har, eta Espainiakoa, bereziki, ezagutzea, balioetsi eta errespetatu.</p> <p>k) Nafarroako geografia eta historia eta Nafarroa berezi egiten duen hizkuntza, kultura eta ohituren aniztasuna ezagutu.</p> <p>l) Kontsumoarekin eta izaki bizidunak eta ingurumena zaintzearekin zerikusia duten aztura sozialak kritikoki baloratu eta haiek mantendu eta hobetzen lagundu.</p> <p>m) Sormen artistikoa preziatzea eta agerkari artistiko desberdinen hizkuntza ulertu.</p>	<p>aztertu eta balioetsi.</p> <p>d) Irakurketa, ikasketa eta diziplina azturak sendotu.</p> <p>e) Gaztelania eta euskara menderatu, ahoz nola idatziz.</p> <p>g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginkortasunez eta arduraz erabili.</p> <p>h) Mundu garaikidearen errealitateak, haien aurrekari historikoak eta haien bilakaeraren faktore nagusiak ezagutu eta kritikoki balioetsi.</p> <p>j) Ikerketaren eta metodo zientifikoen funtsezko elementu eta prozedurak ulertu eta ingurumenarekiko sentiberatasuna eta errespetua sendotu.</p> <p>k) Espiritu ekintzailea sendotu.</p> <p>l) Sentiberatasun literarioa garatu.</p> <p>ñ) Nafarroako ondare historiko eta kulturala balioetsi eta errespetatu.</p>
---	--

4.2. GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK

NBEk 2020-2030 urteen artean bete beharreko helmugak dira. Proposamen didaktiko honek, zeharka Agendaren hainbat helburu lantzen ditu, baina bete-betean hiru helburuetan zentratzen da (Onekin, 2021):



Irudia 5: MAL-eko garapen jasangarriaren helburuak

Egileak moldatua. Iturria: Onekin, 2021.

4.3. LOMLOE (2020)

Legearen izenarekin interpreta dezakegun bezala, 2006ko PSOEn Hezkuntzaren lege organikoaren modifikazioa da hau, 2019an onartua. Indarrean dagoen 2013ko PP partiduaren LOMCE legearen giltzarriak alboratzen ditu eta aurreko legedian sakontzen du; Ahal Dugu eta Partidu Sozialistaren koaliziozko gobernuaren izanik, PSOEk aurrera eramandako hezkuntza politikari jarraikortasuna ematen dio. Espainiako Estatuaren Hezkuntza legediaren aldakortasun politikoak legediari ezegonkortasun handia sortzen dio; horrek Hezkuntzari eta ikaskuntza komunitateari egiten dio kalte. Interes politikoak, hezkuntza behar, interes eta aurrerakuntzen gainetik jartzen direlako.

LOMLOE delakoan, gure gaiari dagokionean hainbat aspektuetan indar berezia egiten du, modu transbertsalean eta espezifikoa. Esan beharra dago, lege hau, gizarte zientzien didaktikari eta berrikuntza historiografikoei aurreko lege organikoa baino hobe egokitzen zaiola. Gidalerro nagusiak hauek dira:

Giza Eskubideen errespetua bermatzea legearen zutarria da, irmoa eta finkoa. “Ezbiolentzia” eta “bakea” bezalako kontzeptuak sarritan errepikatzen dira. Ezbiolentzia eta bakearen kultura bultzatzea du helburu. Horretarako, biolentziaren forma ezberdinak detektatzea berezikiko pausua izango da. Horretaz gain, bizitzaren esparru guztietan, ikasleriaren gatazken prebentzioa eta konponbide pazifikoa bultzatu nahi da.

Bestetik, hiritartasun aktiboa eta demokratikoa eta parte-hartzailea sustatzen du. Herritartasun edo hiritartasun demokratikoaren praktika, kontzientzia eragozle eta intsumituen ezaugarri behinenetarikoa izan zen.

Amaitzeko, balore zibiko eta etikoen irakasgaia aurreikusten da, DBH 3. edo 4. mailan ezartzekoa. Giza Eskubideen eta Haurtzaroaren eskubideetan, Espainiar Konstituzioetan bildutakoetan, garapen jasangarrien hezkuntza, munduko hiritartasuna eta gizon zein emakumeen berdintasuna sustatu gura dute, “fomentando el espíritu crítico y la cultura de paz y no violencia” (LOMLOE, 2020: 21-22). Zer esanik ez dago master amaierako lan hau horrelako irakasgaiaren xedapenetan bete-betean sartuko litzatekeela.

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioaren Gizarte Mugimenduaren proposamen didaktiko honetan, guztira hemezortzi saio aurkezten dira, gero azalduko dugun moduan, irakasleek nahi dituztenak aukeratu ahal izateko: saio edo klase bakoitzak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako iraupen estandarra du, 50 minutu. DBH 4. mailan 6 astez hiru saio astean, eta 1go Batxilergoan 6 astez lau saio astean.

Lehen saioa material didaktikoen sarrera izango da. Proposamen didaktikoa aurrera eramateko ikastaldea prestatzeko balio du. Bigarren saiotik hamabostgarren saiora, material didaktikoak TDF (Transposizio Didaktikoaren Fitxa) fitxen bidez buruturiko iturri historikoen transposizio didaktikoan oinarritzen dira: 14 saio hauen ardatza TDF da eta iturri historiko nagusi baten inguruan ardaztu dira. Proposaturiko iturri historikoak anitzak dira, TDF bakoitza lantzeko 2 saio erabiliko direlarik. Hala ere, proposamen honen aplikazioa malgua da: honek esan nahi du ez dela halabeharrez osotasunean klaseratu behar, fitxa bakarra edo zenbaiten arteko konbinaketa erabilita ere ulergarria eta didaktikoa delako. Aplikazioaren malgutasun honek, irakasle, ikastalde eta institutu ororen baldintza bereizgarriei egokitzeko asmoa du. TDF bakoitzak lau eginkizun bete ditu: lehenik eta behin, saioak zehaztuko ditu, bigarrenik helburua didaktiko espezifikoak (eduki sustantibo-historikoak eta estrategikoa-jarrerazkoak landuz) zehaztuko dira, hirugarrenik beharrezko baliabideak-materialak xedatuko dira eta azkenik ikasleei zuzendutako ariketa didaktikoen azalpena eskeini da (1-3 ariketa artean), instrukzio didaktikoak hain justu ere. Era berean, Bloomen taxonomia berrikusiaren progresio kognitiboa (aditz belztuen bidez adieraziz) errespetatu da.

Hona hemen material didaktikoen TDF eta saioen antolakuntzaren egitura:

Taula 10: Proposamen didaktikoaren TDF eta saioen egitura

	TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXAK	SAIOA	T
1	Proposamen didaktikoaren aurkezpena	1	50'
2	<i>Insumisión. Abestia.</i>	2-3	110'
3	<i>Ochéntame otra vez. Rompan filas.</i> Dokumentala	4-5	110'
4	<i>Bi urte, lau hilabete eta egun bat.</i> Dokumentala	6-7	110'
5	<i>Ejertzitoen aurkako desobedientzia I.</i> Idatziko testua	8-9	110'
6	<i>Ejertzitoen aurkako desobedientzia II.</i> Idatziko testua.	10-11	110'
7	<i>Derecho al delirio.</i> Ikus-entzunezko literatura. Arte adierazpenak. Irudiak.	12-13	110'
8	Armadaren iragarkiak + EOM taula eta grafikoak	14-15	110'
AMAIERAKO PRODUKTUA ETA EBALUAZIOA			
9	Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren banakako gogoeta	16-17	110'
10	Ebaluazio-fitxak eta talde handiaren ondorioak	18	50'

Proposamen didaktikoaren amaieran, 16. saioa eta 17. saioa amaierako ebaluazio gisa proposatu dia. Ahoz ala idatziz gogoeta pertsonala prestatu eta aurkezteko erabili dira,

ohiko bukaerako azterketa balitz bezala baina egin bitartean edozein motatako iturriak kontsultatu ahal dituzte, klasean bertan ala klasetik kanpo. Pentsamendu kritiko, sortzaile, afektibo eta kognitiboaren sormen lan indibiduala eta orijinala sortuko dute. Horrela, lankidetzaren taldeetako lan desorekak detektatu eta kalifikazioan islatuko dira. Azken produktuaren nondik norakoak, ebaluazio-sistemaren atalean garatuko da. Amaitzeko, 18. saioa ebaluazio-fitxak betetzeko eta ikasketa-zikloaren talde handiko konklusioak ateratzeko eguna izango da.

5.1. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURU OROKORRAK

Proposamen didaktiko honek, pentsamendu historikoarekin erlazionaturiko 8 helburu orokor ditu. Eduki sustantiboak/historikoetan oinarritutako helburuak eta eduki estrategikoak/prozedimentalak/jokaerazkoetan oinarritutako helburuak, ezinbestekoak biak, tartekatzen dituzte:

1. Ezbiolentzia eta desobedientzia zibila iragan eta orainaldiko testuinguruetan **identifikatu**.
2. Lehen eta bigarren mailako iturri historikoak **ulertu, kontrastatu** eta **interpretatu**.
3. Multikausalitatea, enpatia, denbora eta kontzientzia historikoa iturrietan **aztertu**.
4. Lankidetzaren metodologia kooperatiboekin lan egiten **trebatu**.
5. Gizartearentzat aipagarriak diren arazoak, gerra eta militarismoa kasu, **landu**.
6. Gizarte partaidetzaren ez bortitzaren eragin sozial eta politikoa **balioetsi**.
7. Bortizkeriaren egunerokotasuna, naturalizazioa eta normalizazioa **zalantzan jarri**.
8. Iturri historikoen azterketan pentsamendu kritikoa **garatu**.

5.2. SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

Segidan, proposamen didaktikoaren aurkezpenaren sarrera saioa, dokumentuaren analisirako 7 fitxen lanketaren sekuentzia didaktikoa eta ebaluazio sistemaren atalean amaierako produktuaren nondik norakoak eskeintzen dira:

5.2.1. AURKEZPENA

Iraupena	1go saioa (50')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Proposamen didaktikoaren iturri historikoen bidezko (abestia, dokumentalak, testu idatziak, literatura testu literarioa eta iragarkiak) lan metodologia eta kronograma aurkeztu. • Taldekatze txikiak egin eta taldekatze motzak esplikatu. • Tiki toki eta kahoot harraminta digitalak erakutsi. • Jenga jolasa ezagutu. • Ebaluazio tresnak eta portzentaiak azaldu. • Ebaluazio fitxak eta errubrikak azaldu.

Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Internet konexioa. • Iturri historikoak formatu material eta digitalean. • Ebaluazio fitxak eta errubrikak.
--------------------	---

5.2.2. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXA 1

Iraupena	2. saioa eta 3. saioa (110')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Umorearekin Intsumisioaren kanpaina (1989-2011) lehen hurbilketa egin. • Intsumituek soldaduskari nola eta zergatik kontra egin zioten jakin. • Gizarte mugimenduaren sujetu nagusien (intsumituak, botere militarra eta judiziala) ekintzak eta balioak ezagutu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Eskutitza • Abestiaren transkripzio fitxa • Margoak (egurrezkoak, plastidecor edo errotulagailuak) • Argazkiak • Guraizeak eta celho-a • Abestia entzuteko gailua

1. Dokumentuaren fitxa teknikoa	
1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/07/31
1.3. Dokumentuaren "izenburua"	Insumisión
1.4. Dokumentuaren egilea	Kojón Prieto y los Huajolotes
1.5. Hartzailea	Entzuleak
1.6. Dokumentuaren data	1993
1.7. Dokumentu tipologia	Abestia
1.8. Idazketa hizkuntza	Gaztelania
1.9. Orri kopurua	1
1.10. Euskarriaren materiala	Entzunezkoa eta idatzia

2. Deskribapen motza

Kojon Prieto y los Huajolotes nappar mex musika taldea izan zen 1993tik 1995ra. Musika estiloak izenean dioen bezala, mexikanak, punk-a, folklorea, hardcorea eta euskal rock-a nahasten zuen taldea zen. Talde ironikoa, dibertigarria, ganberroa, zinikoa, festazalea eta katxondoa izan zen.

1993. urtean 12 abestiz osatutako lehen diska atera zuten: [¡Agárrense que llegan los reyes del Nappar Mex!](#) Izenburu horrekin kaleratu zuten disko horren abesti ospetsuenetako bat “[Insumisión](#)” izan zen. Espainiako Derrigorrezko Zerbitzu Militarren kontrako adierazpen dibertigarria izan zen.

Espainiako Derrigorrezko Zerbitzu Militarra, LA MILLI, soldaduska edo soldadutza bezala ezagutua, XIX. mendetik 2001. urtea arte, bi mende baino gehiagoz, Estatu-Nazio guztietan, bere mugak “babesteko” derrigorrez gizonetzko gazte orok 18 urte betetzean, Estatuari egin beharreko zerbitzu militarra zen. Bere bizitzaren tarte batean (bi urte hasieran eta geroztik 18 hilabete eta 9 hilabetera murriztu zen) gizonak gerra egoerarako prestatu behar ziren. Euren herrialde gerra egoeran sartuz gero, herrialdea “babesteko” erabiliko zituzten. Horretarako, Defentsa Ministerioak gutun bat bidaltzen zuen etxeetara eta zerbitzu militarra non eta noiz egin behar zuten zehazten zen (“soldadua” izango zenaren jatorrizko udaletxean, urte berean jaiotako en zozketa baten bidez, “sorteo de quintos” izenekoa), normalean etxetik urrun. Lehen 2-3 hilabeteetan kanpamentu batean oinarritako militarra jasotzen zuten. Ondoren, zegozkien kuarteletan lekualdatzen ziren.

Gauzak honela, 1970ko hamarkadatik aurrera XXI. mende hasiera arte Derrigorrezko Zerbitzu Militarrekin bukatzeko eta orokorrean munduko militarismoaren kontra bukatzeko asmoz, Intsumisioa izeneko Gizarte Mugimendu bat garatu zen Espainian. Izan ere, gazte askok euren buruei galdetzen hasi zieten zergatik egin behar ote zuten hori. Derrigortasun horren zilegitasuna zalantzan jarri zuten eta antolatzen hasi ziren. Mugimendu hori bereziki ahaltsua izan zen Nafarroan. Zergatik? Nafarroan izan zuen gizarte babes zabalagatik eta baita sufritu zuen errepresio bortitzagatik ere.

Testuinguru horretan, horren kontra protesta egiteko Nafarroan kultura adierazpen ugari sortu ziren, abesti hau kasu. Abesti honen bidez, Intsumisioaren Gizarte Mugimendua ezagutzen hasiko gara. Derrigorrezko Zerbitzu Militarra salatzen du, intsumitu izatearen arrazoiak azaltzen ditu, jendea intsumitu izatera azaltzen ditu eta intsumitu bihurtzeko eman beharreko urratsak azaltzen ditu.

3. Dokumentuaren eskuragarritasuna	
3.1. Erreproduzio digitala	Youtube plataforma. Gor discos. (2016ko otsailaren 5a). KOJON PRIETO Y LOS HUJALOTES Insumisión. [Bideo-artxiboa]. Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=31PHSLs6oCI
3.2. Transkripzioa	Bai. Interneten hainbat musika itzultzaile orrialde daude: <ul style="list-style-type: none">• Azzurro Tube. (2016ko abuztuaren 16a). KOJON PRIETO Y

LOS HUAJOLOTES - Insumisión (letra). [Bideo-artxiboa].

Hemendik eskuratua:

<https://www.youtube.com/watch?v=52wpdX4I9dw>

- Cancioneros.com letras. Todas las letras de las canciones.
<https://www.cancioneros.com/letras/cancion/1753000/insumision-kojon-prieto-y-los-huajolotes>
- Álbum Canción y letra.
https://www.albumcancionyletra.com/insumision-de-kojon-prieto-y-los-huajolotes_192431.aspx

4. Erreferentzia bibliografikoak

4.1. Dokumentuari

Lacalle, Joxe. (2020: 52-55). Si te mandan una carta. La insumisión retratada por un foteru desobediente. Txalaparta, Tafalla.

4.2. Testua ulertzeko

Oliver Olmo, P. (2021) “El movimiento de objeción de conciencia e insumisión en España (1971-2002)”, Hispania Nova, 19 (2021): 353-388.
<https://doi.org/10.20318/hn.2021.5885>

5. Pentsamendu historikoa

5.1. Testuinguru historikoa

Abestia 1993an kokatzen da. Intsumisioaren kanpaina (1989-2001) bete-betean txertatzen da, Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren gizarte mugimenduaren 1990 hamarkadako epe motzeko 3. fase historikoan hain zuzen ere.

Momentu horretan, gizarte mugimenduak hedabideetan eguneroko presentzia zuen. Gizarte mugimenduarekiko gizarte zibilaren oinarria zabaltzen ari zen. Ondorioz, adierazpen kultural ugari sortu ziren, batez ere musika alorrean. Intsumisioaren kontrako ehunka abesti daude, Euskal Rock Erradikalaren inguruan batez ere. Esan dezakegu kanta hau Intsumisioaren himnoa bihurtu zela. Gaur egun arte Nafarroako imajinario kolektibo nafarran iraun du, herri kulturaren, jaietan, gaupasetan... oraindik entzuten den abestia baita eta gaztetxo askok ezagutzen dute.

Hirugarren graduaren urraketaren (plantoa) estrategian kokatzen da. Mugimendua desaktibatzeko Estatuak intsumituei ezartzen zien kartzela zigorra 2. graduan kokatzea zen eta intsumitu askok, Estatuaren boztizkeria eta errepresioa agerian uzteko, 3. gradua urratu zuten, tartean, Antonio de la Puerta, Toñin edo Tonino Carotone abesti honen abeslariak egin zuen.

5.2. Ideia nagusiak

- Soldaduska egin nahi ez duten gazteei (soldaduskara joateko gutuna etxera iristen zaienean hasten den prozesua), Iruñeko

KEM-MOC eta Kakitzat kolektibo antimilitaristetara jotzeko esaten die. Han, informazioa eta laguntza jasoko dute. Jasotako gutuna, berriz, itzuliko dute.

- Soldaduska, Armada zein militarismoaren baloreak, praktikak eta ahotsak agertzen dira: gizonkeria, tradizioa, biolentzia, aginduak, uniformeak, obedientzia.
- Antimilitarismoaren baloreak, praktikak eta ahotsak adierazten dira: desberdina izatea (artaldearen ardi beltza), alaitasuna, festa, parranda, bizitza-grina, umorea, askatasuna.
- Aipatutako militarkuntza eta antimilitarkuntza alderatzen ditu.
- Problematika honetan, botere judizialak Nafarroan betetako paper errepresiboa azaltzen du. Epailleek gazte intsumituak masiboki kartzeleratzen zituzten. Nafarroan, Iruñeko espetxearen presoek 2/3ak intsumituak izatera iritsi ziren.

5.3. Aldaketa eta jarraikortasuna

- Aldaketa derrigorrezko zerbitzu militarren gainbeheran kokatzen garelako.
- Aldaketa feminismoak aldarrikatzen duen gizontasun eredu anitz eta zabalak kontuan hartzen dituelako, gizonkeria eredu militaristatik at.
- Jarraikortasuna Armadak biziraun eta garai berrietara egokitu zelako. Aldi berean, Armadaren transformazio prozesua: babes sozialik gabeko soldadutzaren derrigorrezko eredutik, PSOE partiduaren armada-eredu mistoaren saiakeraren porrotetik igaroz, eredu profesionala gizartean finkatu arte.
- Jarraikortasuna, orainaldian gizartearen militarkuntza igoera joeran dago: gastu militarren, natura baliabideak ustiatzeko gerrateak, herrialde aberastuen mugen sekuritazioa, migrazio masiboak... prozesu historikoa amaitu zenetik goraldean daude.
- Jarraikortasuna Gizarte Mugimendu Intsumituak herri memorian aztana utzi duelako.

5.4. Dimentsio etikoa

- Ezbiolentzia eta desobientzia zibilaren filosofia eta praktikak hiritartasun demokratikoa eraikitzen du.
- Erakunde militarren boztizkeriari ez dio zilegitasunik ematen, ez Estatuaren Indar Errepresiboei (Guardia Zibila, militarren...) ezta Askapenerako Mugimendu Nazional (ETA) gisa eratzten direnei. Ezbiolentziaren helburu eta bitartekoen arteko koherentzia ezinbestekoa da gizarte mugimenduak zilegitasuna eskura dezan.
- Dena den, maila etikoan ez da gauza bera antifaxismoaren borroka, giza eskubideak lortzeko biolentzia erabili arren, Estatu batek elite politiko eta ekonomikoaren pribilegioak

5.5. Perspektiba historikoa	<p>mantentzeko erabiltzen duen bortizkeriarekin.</p> <ul style="list-style-type: none"> Gizarte mugimenduaren akzio kolektiboetan gizarte mugimenduaren sormena, umorea, poztasuna, alaitasuna, dantza, performance ahalmena... gizarte zibilaren borroka estrategia, metodo eta formak eraldatzen ditu: bizipoza berriaren afektibotasun eta adierazkoratasuna dakar.
	<ul style="list-style-type: none"> Orduko eta gaurko militarkuntza zalantzan jartzen du. Botere formalarekiko obediencia itsua kolokan jartzen du, obediencia borondatezkotasuna azaleratuz.

6. Aukeratutako testua

<p>¡Señoras y señores, que llega el rey del vodevil!</p> <p>Uhhhh...</p> <p>¡Ay, cabrones!</p> <p>Toñín, To-toñín, To-toñín, To-toñín,</p> <p>Toñín, To-toñín, To-toñín, To-toñín.</p>	<p>Y tienes que hacerte un macho, bromuro en el zafarrancho.</p> <p>No lo vas a resistir. (Mi sargento, mi sargento, se me cayó el chile).</p> <p>¡Di que no!</p> <p>¡Di que no!</p> <p>Que la mili no me gusta, y que a mí nadie me asusta, lo que yo quiero es vivir.</p>	<p>Que se vayan a la mierda, que nos vamos de merienda</p> <p>¡y que viva el vacilón!</p> <p>(¡Y viva el amor!)</p> <p>No me gusta la corneta, pa eso me hago de la ETA.</p> <p>¡Viva la revolución!</p> <p>(Éntrele, cansado).</p> <p>¡Di que no!</p> <p>¡Di que no!</p> <p>Que la mili no me gusta y que a mí nadie me asusta,</p> <p>lo que yo quiero es vivir.</p>
<p>Si te mandan una carta (Y no viene perfumada).</p> <p>Y si tu madre se espanta, (Uy, uy, uy...).</p> <p>Que está la Guardia Civil.</p> <p>(¡Ajuya!)</p> <p>Que te vayas a la mili, que te estás haciendo un gili[pollas], que te vas a pervertir.</p> <p>(Ah sí, ¡cómo no!).</p>	<p>Insumisión, insumisión. La juerga me gusta mogollón.</p> <p>Insumisión, insumisión y al sargento que lo tiren al pilón.</p> <p>Luego te vienen los jueces, que te meten al talego, que te comes un marrón,</p> <p>(Que se los lleven ya flojitos de la mingorría)</p>	<p>(Errepika)</p> <p>Si te sales del rebaño (Beeeee...)</p> <p>y no te va el uniforme (Me tira la sisa).</p>

Vete directo al MOC. (Ahí ya vamos pues)	Y devuélveles la carta, que la mili no te encanta, simplemente di que no.	asusta, lo que yo quiero es vivir.
O sino vete a Kakitzat, que te informan y te explican lo que es la insumisión.	¡Di que no!	(Errepika)
(¿Ya toman nota, mis cuates?)	¡Di que no!	(Errepika)
	Que la mili no me gusta y que a mí nadie me	Si te mandan una carta...

Hitz gakoak

Corneta: Aire-metalezko musika tresna, jazz, brass band britainiarretan, musika kofradean, musika klasikoan eta nagusiki, XIX. mendeaz geroztik Europako banda militarretan erabiltzen dena.

Flojitos de la Mingorría: Mingorriako (Avilako herri txiki bat, Nafarroako Mendigorria herria bezala euskal toponimiatik datorrela teoria dago) da alfer edo nagiak.

Pilón: Harrizko ontzi ahurra, paretan atxikia. Sarritan, iturri bateko ura erori eta pilatzen da, bereziki garbitegi eta animalientzako edanleku bezala erabilia.

Sargento: Subofizialen taldeko militarra. Lehen kaboaren gaineko kategoria eta lehen sargentu kategoriaren azpian kokatzen da. Konpainia oso edo parte baten diziiplina eta ordenaz arduratzen da.

Talego: Hizkera kolokialean kartzela edota espetxeari deritzo.

Toñin: Garai hartako ezizena. Antonio de la Puerta (Burgos, 1970) benetako izena. Kojon Prieto y los Huajolotes taldearen kidea eta aurretik Tijuana in Blue taldean ibili zen. Intsumitu aktiboa izan zen. Iruñeko kartzelan urtebeteko kartzelaldia bete zuen eta Madrileko Alcala Meco kartzelan dispertsioa sufritu zuen. Honen ostean, bakarlari bilakatu zen Tonino Carotone izen artistikoa hartuz, Italian ospe handiko artista bihurtu zelarik.

Vacilón: Parranda, mozkorra.

Zafarrancho: Alor militarrean, itsasoan, itsasontzi bateb borrokaldiari hasiera emateko prestaketari dagokio. Gerra-bukeetan burutzen da eta itsasontzietako langileria guztiak parte-hartzen du.


7. Irudia



8. Ariketak

1. FASEA: ABESTIA ENTZUN AURRETIK EGOERAREN PLANTEAMENDUA

1.1. Iturramako ikasleei gutunazal bat iritsi zaie. Hemen proposatutako gutuna beharbada Toñinen benetako gutun batekin ordezkaz litekeordezkaz liteke:



1.2. Talde handian, gutuna ireki eta ikaskide batek irakurriko du:

Kaixo gazteak,

Espainiako Derrigorrezko Zerbitzu Militarra, soldaduska, soldadutza edo LA MILI bezala ezagutua, XIX. mendetik 2001. urte arte espainiar gizonezko gazte guztiek (18 urte betetzean) egin behar zuten betebeharra zen. Estatuari zerbitzu hori derrigorrez eskeini behar zioten Armadan, Estatu-Nazioaren mugak “babesteko”. Gure bizitzaren tarte batean (9 hilabetetik 2 urtera) gerrarako prestatu behar genuen, hiltzen ikasi behar genuen, armak erabiltzen ikasi behar genuen, gerra egoeran sartuz gero herrialdea “defendatzeko”.

Gauzak honela, 1970ko hamarkadatik aurrera XXI. mende hasiera arte Derrigorrezko Zerbitzu Militarrekin bukatzeko eta orokorrean munduko militarismoaren kontra, Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioa izeneko Gizarte Mugimendu batean parte hartu genuen Espainian. Nafarroan bereziki ahaltsua izan zen. Zergatik? Nafarroan izan zuen gizarte babes zabalagatik eta baita sufritu genuen errepresio bortitzagatik ere, kartzelaldia eta guzti.

Testuinguru horretan, Nafarroan kultura adierazpen ugari sortu ziren. Guk, “Kojon Prieto y los Huajolotes” musika-taldeak hain zuzen, 1993.urtean “Insumisión” abestia sortu genuen, adibidez; intsumisioaren himnoa bilakatu zena. Abesti honen bidez, Intsumisioa gehiago ezagutuko dugu. Derrigorrezko Zerbitzu Militarra salatzen du, baina Intsumitu bihurtzeko eman beharreko pausuak ere azaltzen ditu.

Lehen urratsa “si te mandan una carta”, gutun hori itzultzea izango da... baina, zergatik borrokatu genuen, zertarako eta nola jakiteko, abestia hor duzue...

Ez adiorik,

1.1.3. Aurrezagutzak aktibatuko dira. Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioari buruzko galdetegiaren erantzunak atera eta **hipotesiak egin**. Borroka hori nola imajinatzen duzue? Nola egingo zuten? 5 minutu. Ikasleei azaldu hemen intuizioak, taupadak, hitzak, datak, irudi bat... burura datorkiena bota dezaketela. Ez da errealitatea deskribatu behar ezta inon erantzuna bilatu behar.

2. FASEA: ABESTIA ENTZUN BITARTEAN

2.1. Talde handian abestia lehen aldiz entzungo dugu. Zein da abestiaren ideia nagusia? Zer iritzi du musika-taldeak soldaduska eta intsumisioari buruz?

2.2. Abestiaren letra banatu. Abestiak bi zati ditu. Batetik, Mexikorekin erlazionatutako hitzak (Mexikon hitz egiteko modua (jerga), "ranchera" hizkera. eta esaldiak ditu. Bestetik, Insumisioaren errealitate historikoarekin erlazionatutako esaldiak ditu. Rantxerekin, Mexikorekin zerikusia duten zatiak **ezabatu**. Abestian nabarituko dugu lexikoarengatik eta baita abestean jartzen duen ahoskeragatik. Gure ikertzaile historikoaren papererako ez dira esanguratsuak izango.

2.3. Hirugarren entzunaldia. Abestiak, bi ahots ditu, bi perspektiba: militarista eta antimilitarista. Entzunaldi honetan, entzuten duguna gorputzarekin adieraziko dugu:

- Eskuak gora.... Intsumisioa eta perspektiba antimilitarista **identifikatu**ko dugu.
- Eskuak behera... milia eta militarkuntzaren aldeko perspektiba **identifikatu**ko dugu.

2.4. Laugarren entzunaldia. Ikasgelaren hormetan abestiarekin erlazionatutako irudiak itsatsita daude (Ikusi

8.2. TDF 1 eranskina). Intsumisioen bilakaera kronologikoa ezagutzeko, abestia entzun ahala, argazki hauek **ordenatu**. Behar izanez gero 2-3 entzunaldi gehiago egingo ditugu.

2.5. Bostgarren entzunaldia. Abesti idatziaren fitxan **marratzu** eta **margotu**: ekintzekin erlazionatutako edukia laranja azpimarratu, emozioekin erlazionatutako edukia borobil berdearekin biribildu, ideia-balio militaristekin erlazionatutako edukia karratu morearekin inguratu eta ideia-balio militaristarekin erlazionatutako edukia karratu urdinarekin inguratu.

ALORRA	KOLOREA		FORMA
Ekin	Gertakizunak-aditzak		
Sentitu	Emozioak - sentipenak		
Pentsatu	Ideia-balio militaristak	Ideia-balio antimilitaristak	 

3. FASEA: ENTZUNALDIEN OSTEAN

3.1. Ezkerreko zutabearen hitza eskuineko zutabearen definizioarekin gezi batekin **lotu**:

HITZA	DEFINIZIOA
Corneta	Garai hartako pertsona ezizena. Antonio de la Puerta (Burgos, 1970) benetako izena. <i>Kojon Prieto y los Huajolotes</i> musika taldearen kidea eta aurretik <i>Tijuana in Blue</i> taldean ibili zen. Intsumitu aktiboa izan zen. Iruñeko kartzelan urtebeteko kartzelaldia bete zuen eta Madrileko Alcalá Meco kartzelan dispertsioa sufritu zuen. Honen ostean, bakarlari bilakatu zen Tonino Carotone izen artistikoa hartuz, Italian ospe handiko artista bihurtu zelarik.
ETA	Aire-metalezko musika tresna, jazz, brass band britainiarretan, kofrade-musikan, musika klasikoan eta nagusiki, XIX. mendean geroztik Europako musika-banda militarretan erabiltzen dena.
KAKITZAT	Subofizialen taldeko militarra. Lehen kaboaren gaineko kategoria eta lehen sargentu kategoriaren azpian kokatzen da. Konpainia oso edo parte baten diziplina eta ordenaz arduratzen da.
MOC	Alor militarrean, itsasoan, itsasontzi baten borrokaldiari hasiera emateko prestaketari dagokio. Gerra-bukeetan burutzen da eta itsasontzietako langileria guztiak parte-hartzen du.
Sargento	Euskadi Ta Askatasuna. Euskal Herriaren askapenerako erakunde militarra (1958). Frantzia eta Espainia Estatuetatik askatzea eta euskal Estatu sozialista eta abertzale burujabea zuen helburu. Helburuak lortzeko metodo eta estrategia sorta bortizkerian oinarritu zen.
Toñin	Movimiento de Objeción de Conciencia (Kontzientzia Eragozpenaren Mugimendua). Estatu mailako koordinakundeaz (1977) gain, Iruñeko kolektiboaren izena da (1977-78). Gizarte Mugimenduan gidaritza eta lidergotza, ziklo historiko guztian zehar mantendu zuten. 1980ko hamarkada hasieran Nabarrerian informazio-bulegoa ireki zuten.
Zafarrancho	Euskal Herriko koordinakunde antimilitarista (1986). Anti-OTAN kanpainaren baitan jaio zen. Orduz geroztik KEM-MOC-ekin gizarte mugimendua koordinatu zen, erakunde horrekin lehiakortasun eta laguntza harremana garatu zuelarik. Ikaslearia-gaztedia nafarraren mobilizazioan funtzio itzela bete zuen. Perspektiba antimilitarista eta soldadukari buruzko informazioaren hedapena bere lanaren ardatz nagusiak ziren.

3.2. Ariketa honetan, lankidetzaren taldekatzearen 1, 2, 4, egitura erabiliko da. Banaka, binaka, launaka hurrenez-hurren eta amaitzeko talde handian erantzuna **arrazoitu** eta **eztabaidatu**:

- ❖ Abesti honetan zein eragile, sujetu historiko ezberdintzen dituzu?
- ❖ Zergatik esaten dute intsumitua izatea artaldetik ateratzea dela?
- ❖ Orokorrean abestiak zer emozio transmititzen du? Zer emozio lotzen ditu ejertzitoarekin eta zeintzuk ejertzitoari ez esatearekin?
- ❖ Armadan “macho” bihurtuko zara? Gizon “izatea” zerekin lotzen da? Intsumisioan eta Armadan feminismoak eta matxismoa garrantzitsuak izango dira? Zertan?
- ❖ Zergatik esaten du ez duela ez duela Armadara joan nahi, eta nahigo duela ETA?
- ❖ Zertan dira berdin eta ezberdin Ejertzitoa eta ETA?

3.3. Talde handian. Hasieran egin duzuen hipotesia eta gaur ezagutu duzuen borroka antzekoak dira? Zertan berdin? Zertan ezberdin? **Konparatu** eta **aipatu** bi antzekotasun eta bi ezberdintasun.

9. Material gehigarriak


Me mandaron la carta de las narices
y estas fatiscas reflejan la que lle
Tortin de a Cueta

Como otros tantos muros, fui a mis principios, no acudí al juicio,
precisamente por desobediencia, pues ya estaba escrito el veredicto con
anterioridad y aleccion. En mi caso, lo hice acompañado de mis cuates
Kijón Prieto y los Lujales, entonces, entre otros canciones, la música
de Agustín Oña, que ya para entonces se había convertido en himno popular y,
de alguna manera, en bandera de todos los movimientos juveniles. Respondí,
desde las puertas de la injusticia, como buen rey del bodol que era, con
una pasacaja y participé serenata dedicada al juez, que decía así:

SERENATA
Si pedía, señor juez, lo merecido a usted lo mereceré
Pues esto es una vergüenza
Y en el mundo no hay justicia
Con mi derecho de testigo yo lo voy a decir
Que no soy un canalla, por no tener a la calma
Y por eso estoy aquí.
Señor juez, me deshecho en rebeldía,
Yo sé que soy rebelde mas no tanto la luz del día
Si me quieren encontrar
Mándame a su policía
Que no me echen por el monte
Mi conciencia está tranquila

Yo no soy ningún canalla y vivo con alegría
Y no me yo me pregunto
Por qué he de cumplir condena
SI MI PUNO NO ES DE ESTE MUNDO.

Claro ejemplo, un texto belicista de cómo muchos de nosotros vivimos
y combatíamos la fiesta con la lucha y victoria.




Alí, se veía con 23 años en
el momento en que debía
ser juzgado por sus delitos,
a cambio del servicio
militar obligatorio. Me pedían
libres de condena y la
condena, en realidad, a un
año de cárcel. Pero terminé
en prisión a pesar de la libertad
condicional conseguida en
condiciones que eran parte
de un sistema de corrupción
desarrollada por los que
estaban en puestos superiores
de la justicia. El mes y un día
por cumplir el servicio castro
que yo.

Septiembre de
1953. Paseo
Santana, frente
a la antigua
Audiencia
Provincial de
Pinar del
Río.

Balón del PSOE carcelero
 Unos meses después, encadenados al balón de la sede del PSOE en Iruña, tuvo lugar una acción que contaba con el apoyo y estaba animizada por Kojón Prieto y los Huelgoles. Pretendíamos denunciar el encarcamiento de inermes y la represión desproporcionada por parte del Gobierno socialista hacia todo el movimiento antimilitarista. En esta protesta fuimos detenidos El Gavilán, que no tenía la papeleta (DNI), y yo, que estaba en balaustrada y capturas.

Después de congeñarnos toda la noche juntos en los sótanos de comisaría, Manu Anzuino salió libre y yo ingresé en prisión en tercer grado para a los pocos días, cuadrantar la condena en el primer penitenciar, siguiendo la estrategia colectiva para intentar romper la dinámica represiva del PSOE.

Tras el fracaso de la política de ayudas sociales, como castigo y alternativo a la mili y a la PSS o prestación social sustitutoria, se nos otorgaba el privilegio de acudir todo a dormir a la cárcel, con el objetivo de inquietar o sauzvar la resaca social a tan elevado número de condenas—que entonces se acercaban a las 2.000—. Una parte del colectivo ocelinos renunció al chantaje y hacer frente con la estrategia de «el panza», que trataba de quebrantar o tercer grado para luego presentarnos en juicios policiares, an balaustrada y captura, y así crear caudales contra las detenciones arbitrarias y dispensas y dar más voz y mostrar a la sociedad la realidad de la situación y el problema latente. Entregamos lica en contra de mis principios, resultaba contradictorio por los motivos que ya he explicado anteriormente.




PSN-PSOINen balaitan eta aurreko elkartan egon diren alderararen erantzun kolektiboa. Huelgoletan aliantza honen irudak erantsi ditugu. data: 1994/01/07

5.2.3. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXA 2

Iraupena	4. saioa eta 5. saioa (110')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte Mugimenduaren aldeko eta kontrako jarrera militarista eta antimilitaristak identifikatu. Epe motzeko gertakizun historiko adierazgarriak identifikatu. Gizarte Mugimenduaren errealitate konplexuaren multikausalitatea deduzitu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> Galderen fitxak Apunteak hartzeko koaderno edo orria eta boligrafoa 5-6 chromebook Tiki-toki gidalerroa egiteko ordenagailua eta internet konexioa

1. Dokumentuaren fitxa teknikoa

1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/07/30
1.3. Dokumentuaren “izenburua”	Rompan filas. Ochéntame otra vez.
1.4. Dokumentuaren egilea	RTVE
1.5. Hartzailea	Ikus-entzuleak
1.6. Dokumentuaren data	2018

1.7. Dokumentu tipologia	Dokumentala
1.8. Idazketa hizkuntza	Gaztelania
1.9. Euskarriaren materiala	Ikus-entzunezkoa

2. Deskribapen motza

RTVE-ko telebista saio hauek, dokumental formatuan, *Cuentame cómo pasó* kate bereko seriearen jarraipena dira. 2014tik gaur arte 7 denboraldi eman dira, 6. denboralditik aurrera *Noventame otra vez* izendapena jasoz. Espainiako 1980ko hamarkadaren prozesu historiko garrantzitsuen kronika egiten da. Horretarako, RTVE artxiboaren aukeraketa eta gaurko lekuko ezagun zein famatuen testigantza (ahozko elkarrizketak) helarazten du. Kritika eta ikusleria datu onak izan ditu eta hainbat sari jaso ditu.

Modu deskriptiboan, Espainia mailan, erakunde militarren analisia eta protesta ziklo historikoaren 30 urteko bilakaera egiten du. Garai hartako iturriak (artxibo-irudiak, artxibo-bideoak, pertsonaia famatu zein ahots anonimoen ahozko testigantzak, katearen programa ezberdinen zatiak...) gaur egungo pertsonaia ospetsuen (abeslariak, marrazkilariak, kazetariak, zinemagileak, politikariak...) testigantzekin tartekatzen dira. Perspektiba zabala, luzea eta nahiko anitza ematen du. Dokumentalaren bukaeran, iragan hurbiletik orainaldirako haria jorratzen da. Dena den, ez du gaurko errealitatearen inguruko ikuspegi kritiko ezta eraldatzailerik somatzen.

3. Dokumentuaren eskuragarritasuna

3.1. Erreproduzio digitala	Youtube plataforma: https://www.youtube.com/watch?v=s1FF3sX4nm0 RTVE webgunea: https://www.rtve.es/play/videos/ochentame-otra-vez/ochentame-otra-vez-rompan-filas/4798938/
----------------------------	---

4. Erreferentzia bibliografikoak

4.1. Dokumentuari	El Periódico. (2018ko urtarrilaren 24a). 'Cuéntame cómo pasó', en 1987 [El Correo de Burgos El Mundo egunkariaren artikulua online]. Hemendik eskuratua: https://elcorreodeburgos.elmundo.es/articulo/gente/cuentame-como-paso-1987/20180124130122260648.html
4.2. Testua ulertzeko	Oliver Olmo, P. (2021) "El movimiento de objeción de conciencia e insumisión en España (1971-2002)", <i>Hispania Nova</i> , 19 (2021): 353-388. https://doi.org/10.20318/hn.2021.5885

5. Pentsamendu historikoa

5.1. Testuinguru historikoa	Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioaren Gizarte Mugimenduaren (1971-2001) hiru faseak azaltzen dira: 1. 1970ko hamarkada (Ikusi 2.4.2.1. 1970ko hamarkada)
-----------------------------	---

	<p>2. 1980ko hamarkada: (Ikusi 2.4.2.2. 1980ko hamarkada)</p> <p>3. 1990ko hamarkada (Ikusi 2.4.2.3. 1990eko hamarkada)</p>
5.2. Ideia nagusiak	<ul style="list-style-type: none"> • Derrigorrezko Zerbitzu militarren abantailak eta desabantailak. • Antimilitarkuntza eta miliaren kontrako jarrera eta aldeko kausak azaltzen ditu.
5.3. Aldaketa eta jarraikortasuna	<p>Aldaketa epe motzeko gertakari historiko garrantzitsuak: 1981ko Estatu kolpe militar saiakera, anti-OTAN mugimendua nahiz 1986ko erreferenduma eta Golfoko Gerra (1990-1991)</p>
5.4. Dimentsio etikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabide publikoen menpekotasun politikoa. Espainian komunikabide publikoen menpekotasun politikoa haintzat hartzekoa da. • Iragana-oraina konexioa eta elkarreragina. Iraganaren oso perspektiba nostalgikoa eta perfektua helarazten dutelako, orainaldiarekin konexiorik eta orainaldian eragin sozial eta politikorik gabekoa. Soldaduska eta militarkuntza iraganeko kontua, eta kultura espainiarraren ezinbesteko faktore bezala iruzkintzen dute. Iragana-oraina konexio eta jarraikortasuna ez da erakusten. Ez du ikuspegi kritikorik, eta neutraltasuna mantentzeak posizionamendu ideologikoa adierazten du, isiltasunak bermatzen duena, botorearen aldekoa.
5.5. Perspektiba historikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Dokumentuaren perspektiba historikorik eza apigarria da. • Ovidio Bustilloren ahotsa da zentzu horretan entzuten den bakarra, batez ere arma nuklearren arriskuarekin, gaur egun arrisku nuklearra eragin urriko afera denean. • Aipagarria da historialari profesionalik eza, zorroztasun edo doitasun historikoa lortu nahi duen gai batean.

6. Irudia



7. Ariketak

7.1. Lehen saioa. Dokumental hau aztertzeko adituen puzzlea taldekatze kooperatiboa erabiliko da. Talde txikian (4-5 ikasle) egongo dira eta beheko galdera hauei erantzuna eman beharko diete. Euren artean galderak banatuko dituzte.

Orduan, talde txiki bakoitzeko galdera bera duten taldekideak bilduko dira eta dokumentala elkarrekin ikusiko dute. Dokumentala ikusi bitartean euren artean **mintzatu** eta informazio **partekatu** ahalko dute.

GALDERAK	PUZZLE ZATIAK
1. Zergatik daude soldaduskaren kontra hainbat pertsona? Zer arrazoi ematen dute?	ANTIMILI(TARISTAK)
2. Zergatik daude soldaduskaren alde hainbat pertsona? Zer arrazoi ematen dute?	MILI(TARIST)AK
3. Zer da Kontzientzia Eragozpena? Zer da Intsumisioa? Zein da bi kontzeptuen arteko ezberdintasuna?	DEFINITZAILEAK
4. Zeintzuk dira gizarte mugimendu honi eragin zioten gertakari historiko garrantzitsuenak? Nola eragin zioten?	APURTZAILEAK
5. Orokorrean Espainia Estatuari buruz hitz egiten du. Baina Europari buruz zer dio? Nafarroako egoera bereziari buruz zerbait diote?	EURONAPARRAK

7.2. Bigarren saioa. Euren dokumental zatia ikusi ostean, erantzunak **kontrastatu** (10').

7.3. Jatorrizko taldera itzuli eta informazioa **partekatu** eta **azaldu**. Taldekideen zalantzak **argitu**.

7.4. Talde txikietan, Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioaren kanpaina **definitu**. Horretarako, beheko taula **bete**:

METAKONTZEPTUA	ZER	NORK	NON	NOIZ	NOLA	ZERGATIK
Kontzientzia Eragozpena						
Intsumisioa						

7.5. Gizarte Mugimendu honetan 3 fase historiko ezberdin daude, bakoitza hamarkada bati dagokio. Zein bi prozesu nagusiei lotuta agertzen dira? Talde txikietan **eztabaidatu** eta talde handian **akordio batera iritsi**.

7.6. Protesta sozialaren ziklo historiko honek zer ondorio ditu? Talde handian zatitxo hau (00:46:19- 0:49:15) berriz **ikus** eta **entzun**. Jarraian, erantzunak denon artean **ondorioztatu**.

7.7. Orain, Tiki-toki denbora-lerroa **osatzen** hasiko gara. Saio ezberdinetan poliki-poliki **osatu**. Saio honetan zer informazio ipiniko dugu? Denbora-lerroa egiteko esteka: <https://www.tiki-toki.com/>

- Gizarte Mugimenduaren hiru fase historikoak: sorrera, hazkundera, gorena, gainbehera eta DZM bukaera markatuko dute.

- Espainian gertakari historiko garrantzitsuenak, protesta zikloan eragin handikoak.
- Nazioarteko testuingurua: aldaketa eta jarraikortasuna.
- Nafarroako berezitasunaren aipamena.

5.2.4. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXA 3

Iraupena	6. saioa eta 7. saioa (110')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Antimili eta antimilitarismoaren kausa anitzetan sakondu. • Komunikabideen posizionamendua ezagutu. • Emakumeen papera ezagutu. • Iraganeko borroka ez bortitzak orainera nola heltzen den konturatu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Bi jenga jolas • Jolasa prestatzeko fitxa • 5-6 chromebook

1. Dokumentuaren fitxa teknikoa

1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/07/29
1.3. Dokumentuaren "izenburua"	Bi urte, lau hilabete eta egun bat
	Lander Garro zuzendaria
1.4. Dokumentuaren egilea	IZAR Films eta Labrit Multimedia ekoizleak
1.5. Hartzailea	Intsumisioa ezagutu ez zuten gazteak
1.6. Dokumentuaren data	2020
1.7. Dokumentu tipologia	Dokumentala
1.8. Idazketa hizkuntza	Euskara
1.9. Euskarriaren materiala	Ikus-entzunezkoa

2. Deskribapen motza

Iruñeko espetxe zaharra 2012. urtean eraitsi zuten. Han, intsumisioen gizarte mugimenduan parte hartzeagatik espetxeratuak izan ziren 6 lagunen (musikari bat, bi kazetari, NUP Unibertsitateko irakaslea, suhiltzailea eta elikadura burujabetzarako ekintzailea) ibilbidea eta testigantza kontatzen digu.

Memoria horren berreskurapen eta difusioa bermatzeko dokumentala da. Gaurko gazteei zuzendua, hori bizi eta gogoratzen ez duten errealitatea ezagutu dezaten, gaurko arazo eta borroka lokal eta globalei aurre egiteko erabilgarriak direlako.

Memoria leku honen oroitzapen zinematografikotik abiatzen da memoria intsumituaren hainbat aspektu ukituz.

3. Dokumentuaren eskuragarritasuna

3.1. Erreproduzio digitala Vimeo plataforman (momentuz ez dago irekian eskuragarri. Lan hau egiteko egileek esteka bat erraztu zuten).

4. Erreferentzia bibliografikoak

4.1. Dokumentuari

- Golem zinemak: [https://golem.es/golem/pelicula/Bi-urte-lau-hilabete-eta-egun-bat-\(V.O.S.E.\)](https://golem.es/golem/pelicula/Bi-urte-lau-hilabete-eta-egun-bat-(V.O.S.E.))
- 2 urte 4 hilabete. Intsumisioaren garaipena. [Peliku dokumentalaren webgunea]. Hemendik eskuratu <https://www.2urte.com/>

4.2. Testua ulertzeko

Azparren, I. (2020ko ekainaren 20a). Seis voces insumisas para reivindicar la desobediencia. [Gara egunkarian artikulua online]. Hemendik eskuratua: https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/2020-06-20/hemeroteca_articles/seis-voces-insumisas-para-reivindicar-la-desobediencia?fbclid=IwAR16TdeOZ5fKw3JsVasqvUVWj0lqDaJESsvELNuxlCpHILdX50MfB

5. Pentsamendu historikoa

5.1. Testuinguru historikoa Memoria intsumitua berreskuratu eta belaualdi berrietan hedatzea.

5.2. Ideia nagusiak

Intsumitu bihurtzeko kausa anitzak azaleratzen dira. AFOINA senideen kolektiboa eta emakumeen papera balioesten da. Ekintza kolektiboaren nolakotasuna eta ezaugarriak erakusten dira. Espetxeratzearen kausak plantoaren estrategiaren barnean testuingurutzen da. Gogoeta sakonerako tartea uzten du: obediencia eta askatasunari buruzko gogoetak antolakuntza politiko eta sozialean. Botere erakundeak eta komunikabideen papera agerian geratze da eta derrigorrezko zerbitzu militarra amaitzarearen kausak anitzak. Guzti honen ondorioak, epe motz, ertain eta luzean, maila indibidual eta kolektiboan xedatzen dira. Azkenik, militarkuntzaren kontrako gaurko borroken beharrezkotasuna eta jarraikortasunaren haria (Bardeetako tiro-eremuan, armen trafikoa konplizitateari uko egitean, Lesbos-eko errefuxiatuen kanpamenduetan) ezartzen da.

5.3. Aldaketa eta jarraikortasuna Eboluzio historikoaren aspekturen batean dokumentu honek aldaketaren bat markatzen duen adierazi, edo kontrari, prozesu edota egituraren batean jarraikortasuna adierazten duten.

5.4. Dimentsio etikoa Dokumentuaren erlazionatutako balizko eztabaidak eta dilema

5.5. Perspektiba historikoa


etikoak.

- Ezbiolentziaren eta desobedientzia zibilaren metodo eta estrategiak gaur egungo gizarte borrokentzako eredu izaera aldarrikatu eta memoria hori berreskuratzea.
- Gizarte Mugimenduen eragin politiko eta sozialaren gaitasuna goraiatu gizarte-aldaketa tresna lez.

6. Aukeratutako testua

Momentuz ez dago eskuragarri (laster egongo da).

7. Irudia



8. Ariketak

8.1. KAUSEN FASEA

8.1.1. Zerbitzu militarra egiteko hainbat kausa ezberdin egon ziren, ideologia, ikuspuntu ezberdinetatik sortu zirenak. Dokumentalaren zatitxo txiki bat ikusiko dugu eta kausa batzuk deduzitzen saiatuko gara. Ikusi bitartean zein kausa entzun dituzun **apuntatu**. Ez dituzu guztiak apuntatu behar, ongi ulertu dituzun 1-2 arrazoi apuntatu.

8.1.2. Orain, kausen azalpena eta esparruak banatuko ditugu (Ikusi [8.3.1. Lehenengo ariketan moztu beharreko kausaren esparrua eta azalpena.](#)). Kausaren esparru bakoitza bere azalpenarekin **ordenatu** eta **elkarlotu**.

8.1.3. Segidan, beste iturri historiko, dokumental batzuetako kausak banatuko ditugu (Ikusi [8.3.2. Bigarren ariketan moztu beharreko kausaren esparrua eta azalpena.](#)). Orain, kausa horien esparrua **deduzitu**.

8.1.4. Jengarekin jokatzeko talde txikietan beheko **taula bete**. Kausa bakoitzak egurrezko zati bat balio du, jenga dorretik atera ahalko duzuen pieza hain zuzen ere. Ondoren, jenga jolasarekin bi talde txikiren artean **jokatu**.



Oharra: Esparruak askotarikoak dira: politika, gizartea-soziala, ekonomia, kultura, artea, militarra, generoa, judiziala, komunikabideak, etika, erlijioa, sinbologia, etab.)

Gogoratu: kausa batek, esparru bat baino gehiago izan ditzazke.

ESPARRUA		KAUSA
1		
2		
3		
4		
5		
6		
7		
8		
9		
10		

8.2. BILAKAERAREN FASEA

8.2.1. Gizarte mugimendu honek, performance, antzekia sormena eta umore handiko izan zen. Dokumentalaren zatitxo honetan (34:27-34:40) Mabel Cañada eta Jaxin G. Viniegraren elkarrizketaren bidez borroka honen poztasun eta ailatasuna ezagutuko dugu.

8.2.2. Gizarte mugimenduak hainbat botere erakundeen aldetik kriminalizazioa jasan zuen. Dokumentalaren zatitxo honetan (59:12-1:00:36), Estatu eta komunikabideen papera islatzen da. Nola deitzen zieten intsumituei? Zer leporatzen zieten? Gaurko komunikabideetan horrelako zerbait entzun al duzu?

8.2.3. Intsumituen mugimendua ez zen soilik mugimendu maskulinoa izan. Dokumentalaren zatitxo honetan (17:05-18:06 eta 49:13-49:53) emakumeentzat erakunde militarra zer suposatu zuen azaltzen du. Ondoren, galdera hauei **erantzun:** zergatik da emakumeentzat Ejertzittoa gizonentzat baino are bortitzagoa? 1988. urtean emakumea Armadan sartzearen eskubidea eskuratu izana berdintasunaren aldeko urratsa al da?

8.2.4. Plantoaren strategiaren garrantzia lantzeko, dokumentalaren zatitxo hau (24:15-26:19) berriz ikusiko dugu. Jarraian, galdera hauei **erantzun:** Zertarako egin zen plantoa? Zer lortu zuten plantoarekin? Estatuari zer gertatu zitzaion ezbiolento batzuen aurka bortizkeria eta errepresioa erabili zuenean? Intsumituei zer gertatu zitzaion?

8.3. ONDORIOEN FASEA

8.3.1 Gizarte borroka protagonistengan eragindako ondorio eta gogoeta ezberdinak daude. Dokumentalaren zatitxo honetan (1:24:29-1:26:38) agertzen dira. Bi-hiru aldiz **ikus**i, lana taldekideen artean **banatu** eta erantzunak **idatzi**.

8.3.2. Dokumentalaren zati honetan (45:12-45:49), Fernando Mendiola irakasleak, espetxean zeuden funtzionario askoren jarrera azaleratzen du. Hemendik abiatuta,

gizakiaren hautu eta askatasunari buruz **eztabaidatu**.

- Sistema injustu batean zaudenean, ezer ez egitea eskutik eta sisteman zaudenean eta ezer ez egitea konplize izatea da?
- Nork mantentzen du intsumitu honen iritziz sistema injustu hori?
- Kasu honetan, zertarako balio dute desobedientzia zibilak eta ezbiolentziak?

8.3.3. Gizarte mugimendu intsumituak, dokumentalaren zatitxo honetan, Mabel Cañadaren hitzetan (21:11-22:40) gizarte antolakuntzaren inguruan, askatasunaren eraikuntza eta ardura kolektiboaren inguruan gogoeta egiten du. Ados zaudeten ala ez **adierazi, iritzia eman** eta iritzia **arrazoitu**.

5.2.5. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXA 4

Iraupena	8. saioa eta 9. saioa (110)
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko lehen mailako iturri historikoa ulertu eta interpretatu. • Intsumisioaren borroka eredugarria gaurko gizarte borrokan aplikatzeko orduan erlazionatu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko testuaren fitxa. • Material gehigarria (egilearen biografia). • Argazkiak

1. Dokumentuaren fitxa teknikoa	
1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/07/29
1.3. Dokumentuaren "izenburua"	Ejertzitoen aurkako desobedientzia I
1.4. Dokumentuaren egilea	Fernando Mendiola Gonzalo
1.5. Hartzailea	Publikoa
1.6. Dokumentuaren data	1994
1.7. Dokumentu tipologia	Iritzi artikulua edo entsegua
1.8. Hizkuntza	Euskara eta gaztelania
1.9. Artxiboa	NMIaren artxibo historiko digitala
1.10. Signatura	MOC 18 9
1.11. Orri kopurua	1
1.12. Euskarriaren materiala	Idatzizkoa

2. Deskribapen motza

Iruñeko KEM-MOCeko kide eta Iruñeko kartzelan preso egon zen Fernando Mendiola Gonzalo (Santurtzi, 1966) intsumituak 1994. urtean idatzitako iritzi artikulua da. Prentsan eta *En Pie de Paz* 1994ko aldizkari bakezalean argitaratu zen. Fernando Mendiola Gonzalok Salamancan Historia lizentziatura ikasi zuen eta horren ostean Iruñan ezarri zen. Geografia eta Historia ikasgaiaren Bigarren Hezkuntzako irakaslea izan da eta gaur egun NUPeko Historia Garaikearen irakasle titularra da.

Hasieran kontzientzia eragozle egin zen eta gero intsumitu. Iruñeko KEM-MOCeko kidea izan zen. 1994ko irailean atxilotua eta espetxeratua izan zen, ekintza kolektibo batean parte hartu ondoren. Hirugarren gradua jaso ostean, horri plantoa egin, eta espetxean jarraitu zuen bigarren graduan.

Testu honetan, gizarte mugimendu antimilitaristaren borrokaren ezaugarri nagusiak azaltzen dira: desobedientziaren gaitasunaren kontzientzia hartzea, ezbiolentzia eta desobedientzia zibila ekintza kolektiboaren protesta metodoa eta gizarte zibilaren oinarria zabaltzea. Horretaz gain, perspektiba eta adierazkortasun historikoa iragartzen duela ematen du, demokrazia parte-hartzailearen aldeko beste borrokak bide horretatik joan daitezkeela adierazten baitu.

3. Pentsamendu historikoa

3.1. Testuinguru historikoa	<ul style="list-style-type: none">• Intsumisioaren kanpaina (1989-2001) kokatzen da.• Kanpaina honen baitan, 1993an hasi zen plantoaren estrategiaren erakuslea da.• Nafarroako Foru Erkidegoan botere judizialaren errepresio bortitzaren adierazlea da.
3.2. Ideia nagusiak	<p>Hirugarren graduaren urraketa, hau da, plantoaren estrategiak hainbat intsumitu kartzelaldi luzeak jasan behar izan zituzten baina aukera hori zergatik eman zen azaltzen du.</p>
3.3. Aldaketa eta jarraikortasuna	<ul style="list-style-type: none">• Jarraikortasuna Intsumisioaren kanpaina (1989-2001) eta aldaketa plantoaren estrategian, botere formalarekin zuzeneko talka eta norbanakoaren sakrifizio altua suposatu zuena.• Jarraikortasuna KEM-MOC kolektiboaren antimilitarismoan, 1970ko hamarkada bukaeratik hasi zena.• Jarraikortasuna gizarte zibiletik sistema kapitalistaren egiturazko biolentziaren kontrako borrokan, giza eskubideen lorpenaren bilakaeran.• Aldaketa botere judizialaren paperean. Intsumisioaren zigor penal txikietatik kartzela zigor luzeetara antzaldatu zen.
3.4. Dimentsio etikoa	<ul style="list-style-type: none">• Gizarteak eta gizarte horretako gizakiek gizartea aldatzeko ahalmen eraldatzailea dute?• Desobedientzia zibila gizabanakoen askatasun eta kontzientzia eratzaileren tresna da. Beraz, praktikatik kontzientzia eratzen da.

	<ul style="list-style-type: none"> • Sistemaren egiturazko bortizkeria eta injustizia mantentzearen aurrean deus ez egitea hori bera mantentzea al da? • Demokrazia ordezkatzailerik eta parte-hartzailearen arteko eztabaida, konparaketa eta ezberdintasuna. • Ezbiolentziaren estrategia soziopolitikoak, Estatuaren errepresioa bere kontrako arma bihurtzeko gaitasuna. • Mugimendu iraultzaileak gutxiengo abangoardista batekin aurrera egin dezake ala gizarte oinarri zabalagoa eskatzen du?
3.5. Perspektiba historikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Gizartearen ahalmen iraultzaileak gizarte injustizia askori aurre egiteko erabili beharreko estrategia da. • Ezbiolentzia eta desobedientzia zibila giza eskubideak eta gizarte aldaketak lortzeko tresna egokia da, etikoa eta eraginkorra aldi berean.

4. Aukeratutako testua

Gure gizartean, modan dagoen pesimismo horrek jota, normalizat ematen dira mende bukaera honetako injustizia asko, eta batez ere berak mantentzen dituen sistema ekonomikoa bera, kapitalismoa, edota berak behar duen indar militarra, ejertzitoak. Ematen du ez garela ausartzen gizartea beste modu batera antolaturik asmatzera, eta boteretik berehala baztertu edo zigortzen zaio horri ekiten dionari. Erraz onartzen da ezin dugula nahi duguna egin, eta are errazago ahazten gara gure jarrerarekin behin eta berriro laguntzen dugula injustizia horiek mantentzen.

Gizarteak oso ahazturik dauka ahalmen handia dugula nahi ez duguna egiteko, eta askatasun hori inork ezin digu kendu. Eta askatasun horrek injustiziaren tresnetan parte ez hartzera eramaten gaitu, nahiz eta delitutzat hartua izan, askatasun horrek desobedientziara eramaten gaitu. Hori izan da, intsumisioaren borrokaren armarik inportanteena, eta bere arrakastaren arrazoi funtsezkoenatariko bat. Desobedientzia zibilak pertsona bakoitzari ematen dio bere botere eta askatasunaren kontzientzia. Horrela ikusi ahal izan dugu gure jokabideak sekulako garrantzia izan duela, asko pentsatu behar dugula edozein erabaki hartzeko, ez baita gauza bera soldaduskara joatea ala ez joatea. Gure portaerak, normalki erabiltzen ez dugun askatasunaz baliatzen da ejertzitoei ez laguntzeko, hirugarren gradua ez onartzeko, eta horren ondorioz kartzeleratzen bagaituzte, (orain ehun preso baino gehiago daude), horrek gure kontzientzia eta portaeraren askatasuna azpimarratzen du. Era honetan demokraziari bere benetako zentzua ematen diogu, boterea berreskuratzen dugu, ez ordezkari kontrolaezin batzuen bidez, baizik eta gure parte-hartzearen bidez. Gero eta ustelduago dagoen demokrazia ordezkatzailerik, parte-hartzaile bihurtzen dugu. Gizartetik dator, beraz, partidokraziak behar duen bultzakada demokratikoa.


Beste alde batetik, estrategia ezbiolento hau erabiliz, gero eta zailagoa egiten zaio botereari errepresioa legitimatzea. Argi eta garbi dago Estatuak gogor eutsi nahi diola biolentziaren monopolioari, defentsarako ezarrita dagoela esanez. Orain, berriz, intsumisioen bila ongi armaturiko poliziak doazenean, argi ikusten da non dagoen sistemaren biolentzia, zeintzuk erabiltzen duten, eta zaila egiten zaie mugimendu

antimilitaristaren aurka, desobediente batzuen aurka, biolentzia erabiltzea, gizarteak ez baikaitu etsaitzat jotzen. Ezbiolentziak, horrela, sistemaren indarkeriaren aurkako tresna zuzena dela erakusten du, ez bakarrik inportanteak diren argudio etikoengatik, baizik eta bere emaitzengatik ere.

Azkenengoz, azpimarratzekoa da, borroka honetan ageri geratu den aspektu garrantzitsu bat. Intsumisioa aurrera eramateko ezinbestekoa izan da jende askoren parte-hartzea, ezinezkoa baita mugimendu iraultzaile baten arrakasta oinarri zabal bat ez badu. Urte hauetan ikusten ari gara jende asko dagoela sistemaren zutabe garrantzitsu baten aurka jotzeko, ejertzitoaren aurka. Beraz, pentsatu ahal dugu beste mundu baten alde borrokatzen dugunok, ezin dugula aurreratu abangoardia isolatu baten modura, gizartearen gogor finkaturiko pertsona eta taldez osaturiko sare batean baizik. Hala gertatu da kasu honetan, intsumisioa mota guztietako taldeek (politiko, sindikal, kultural, elkartasunekoak, etabar.) bultzatu baitute. Nire ustez, intsumisioak gizartearen ahalmen iraultzailea erakutsi du, eta ziur aski halako tresnak erabiltzen jarraitu beharko dugu, ez bakarrik ejertzitoen aurka jotzeko, beste injustizia askoren aurka baizik.

Fernando Mendiola Gonzalo
KEM-MOCeko kidea

5. Irudia



6. Ariketak

Adituen puzzlearen taldekatzea erabiliko dugu. Talde txikietan **elkartu**. Testuak 4 paragrafo ditu. Talde txiki bakoitzari paragrafo bat banatuko diogu eta bere testuaren zatia landuko du. 1go paragrafoa sarrera modukoa da, injustizien munduari buruz ari da, eta taldearen izendapena injustuak izango da. 2. paragrafoa, desobedientzia zibila esplikatzeko du, desobedienteak deituko dira. 3. paragrafoa, ezbiolentziaren nolakotasuna azaltzen du, taldea ezbiolenttoak deituko delarik eta 4. paragrafoa, gizarte mugimenduek izan behar dituzten ezaugarrietan zentratzen da, azken taldearen izendapena parte-hartzaileak izango da.

6.1. Lehenik eta behin, zuen talde txikiaren taldekide bat **aukeratu eta** binaka jarri. Testua ozen irakurri. Beharrezkoa dena, 1, 2, 3 aldiz. Guztiek **ulertu** duzuela **ziurtatu**.

6.2. Beheko galderak **erantzun**. Galdera gehienak egileren ustea islatu behar dute. Erantzunak testuan **bilatu**. Zuen ustea eskatzen den galderetan, zuen **iritzia eman**.

1go paragrafoa: injustuak

- Paragrafoak zeri buruz hitz egiten du? Kokatu espazio geografikoa (espazioa) eta historikoa.
- Zeintzuk dira XX. mende bukaerako injustiziak?
- Zeintzuk dira XXI. mendeko hasierako injustiziak zuen ustez?
- Ezberdinak dira ala antzekotasun handiak daude?
- Modan dagoen pesimimo hori zertan nabaritzen du egileak?
- Gaur egun pesimismoa dago, eta modan gainera, zuen ustez?
- Injustiziak kapitalismoarekin erlazionatuta daude?
- Injustizia horiek kapitalismoa mantentzen dute?
- Zer da kapitalismoa?
- Zein da kapitalismoak behar duen indar militarra?

2. paragrafoa: desobedienteak

- Paragrafoak zeri buruz hitz egiten du? Kokatu espazio geografikoa (espazioa) eta historikoa.
- Zein da gizartearen ahalmena?
- Gizarteak badaki ahalmen duela?
- Zein jarrerarekin mantentzen ditugu injustiziak?
- Zer kontsideratzen da delitua?
- Zerk daramatza antimilitarista eta antimiliak desobedientziara?
- Nola definitzen du desobedientzia zibila?
- Nork zuen biolentziaren monopolioa
- Zeren ondorioz kartzeleratzen zituzten?
- Zer da defentsa egilearen ustez?
- Bizitzan hartzen diren erabakiak garrantzitsuak dira? Zergatik?
- Gauza bera zen soldaduskara joatea ala ez?

3. paragrafoa: ezbiolenttoak

- Paragrafoak zeri buruz hitz egiten du? Kokatu espazio geografikoa (espazioa) eta historikoa (denbora).
- Zertan datza intsumituen estrategia ezbiolenttoa?
- Zergatik da hain zaila errepresioa legitimatzea?
- Ezbiolentzia zeren kontrako tresna da? Zergatik?
- Mugimendu antimilitarista zer ez da gizartearentzat?

4. paragrafoa: parte-hartzaileak

- Paragrafoak zeri buruz hitz egiten du? Kokatu espazio geografikoa (espazioa) eta historikoa.
- Nola ezin dute aurreratu beste mundu baten alde borrokatzen dutenek?
- Zer izan behar dute gizarte borrokek aurrera egiteko?
- Zer motatako taldeek osatu behar dute?
- Intsumisioaren borroka beste injustizien aurka borrokatzeko tresna izan daiteke?
- Intsumisioa mugimendu iraultzailea al da?
- Zer da iraultza zuen ustez?

6.3. Jatorrizko taldeetara **itzuli**. Erantzunak **partekatu**.

6.4. Orain, ikasgelaren talde handian, gizarte borroka batzuen argazkiak **behatu**.

Galda hauei erantzun:

- Zer da borroka ezbiolentoa eta zer ez? Argazkietan **identifikatu**. Ikasgelaren erdian lerro bat egin, ikasleak bata bestearen atzetik. Ados zauden ala ez erabaki. Ados zaudetenak, ezkerretara pausu bat eman. Ados ez zaudetenak, eskuinetara pausu bat eman. Bi ilara osatu eta iritzia **arrazoit**.

- Uste al duzue argazki hauek intsumisioaren borrokarekin antzekotasunak edo/eta desberdintasun handiak dituela? **Arrazoit** eta **ondorioztatu**.



Zuhaitz besarkatzaileak (India, 1970ko hamarkada)



Gatzaren martxa (India, 1930)



Zentinelak (AEB, 1917)



Pentsionistak kopagoaren kontra (Euskal Herria, XXI. mendea)



Abiadura Handiko Trenari Ez! ekintza zuzena



Altsasuko Gurasoak, 2016



Lekarozeko Aroztegia, 2021



MINUSMA. NBen misio humanitarioa (Mali, 2013)



Txile, 2019



Kolonia, 2021

6.5. Zein lege (agian ez da legea, agian jarrera edo gizartearen portaera edo praktika kultural bat izan daiteke) da absurdua zuentzat gaur egun? Behintzat 3 **exenplu jarri**.

6.6. Nola izango zinatekete zuek ezbiolento eta desobediente? Ekintza ezbiolento berritzaile bat **asmatu, marraztu** edo/eta **margotu** eta **dramatizatu**.

6.7. Zeintzuk dira ekintza ezbiolentoaren ezaugarriak? Ikusi ditugun adibideekin **ondorioztatu**.

6.8. Talde handian **eztabaidatu** eta **gogoeta egin**. Iragana itxia ala/eta irekia da? Iragana orainaldia baldintzatzen du? Intsumisioaren borroka iraganeko borroka bat da? Gaur egun aplikagarria da?

7. Materiale gehigarriak



- www.kahoot.com
- www.tikitoki.com

1. Dokumentuaren fitxa tekniko

1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/07/30
1.3. Dokumentuaren "izenburua"	Ejertzitoen aurkako desobedientzia II
1.4. Dokumentuaren egilea	Fernando Mendiola Gonzalo
1.5. Hartzailea	Publikoa
1.6. Dokumentuaren data	1994
1.7. Dokumentu tipologia	Iritzi artikulua edo entsegua
1.8. Idazketa hizkuntza	Euskara eta gaztelania
1.9. Artxiboa	NMIaren artxibo historiko digitala
1.10. Signatura	MOC 18 9
1.11. Orri kopurua	1
1.12. Euskarriaren materiala	Idatzizkoa

2. Deskribapen motza

Egileari dagokionez, Iruñeko KEM-MOCeko kide eta Iruñeko kartzelan preso egon zen Fernando Mendiola Gonzalo (Santurtzi, 1966) intsumituak 1994. urtean idatzitako iritzi artikulua da. Prentsan eta *En Pie de Paz* 1994ko Estatu mailako aldizkari bakezalean argitaratu zen. Fernando Mendiola Gonzalok Salamancan Historia lizentziatura ikasi zuen eta horren ostean Iruñan ezarri zen. Geografia eta Historia ikasgaiaren Bigarren Hezkuntzako irakaslea izan da eta gaur egun NUPEko Historia Garaikearen irakasle titularra da.

Hasieran kontzientzia eragozle eta gero intsumitu egin zen. Iruñeko KEM-MOCeko kidea izan zen. 1994ko irailean atxilotua eta espetxeratua izan zen, ekintza kolektibo batean parte hartu ondoren. Hirugarren gradua jaso ostean, horri plantoa egin, eta espetxean jarraitu zuen bigarren graduan.

Testu honetan, antimilitarismoa ulertzeko, hots, Ejertzitoen abolizioa bilatzearen ideologia, hasteko, jarrera antimili eta antimilitaristaren arteko ezberdintasuna argitzen du eta gero, sakontasunez militarismoaren analisia burutzen du. Horretarako, bere azterketa perspektiba historikoak gidatzen du.

Militarismoa kapitalismoaren sistema ekonomikoarekin estuki lotua dago. Bi sistema hauek patriarkatua eta naturaren suntsipena bermatzen dute, garapen-eredu jasangaitz horretan oinarritzen baita, soilik etengabeko hazkunde ekonomiko baliabide mugatuaren biosferan, lehiakortasuna, etekina, pertsonen zerbitzu publikoen eta naturaren etengabeko pribatizazio eta merkantilizazioa eratuz. Militarismoaren oinarritzko defentsa eta etsaiaren erakuntzaren oinarritzko kontzeptuak deseraikitzen ditu eta Antropozenoaren epe motz, ertain eta luzeko hito eta prozesu historiko

garrantzitsuenak errealitate konplexuan kokatzen ditu (duela 500 urte hasitako kolonialismoa, neokolonialismoa, Hirugarren mundua eta azpigarapena Hego Globala eta Ipar Globalaren aitzindarien errealitate politikoa azaleratuz, Industrializazioa, Gerra Hotza eta bere lasterketa armamentistikoa, globalizazioaren orden berriaren militakuntzaren azelerazioa guda azkar zein teknologiaz beterikoen ereduarekin, etab.

3. Dokumentuak planteatutako zailtasunak

3.1. Erreproduzio digitala	Bai. Nafarroako Memoria Institutuaren Kontzietzia Eragozpen eta Intsumisioaren artxibo historiko digitala, dokumentazioa esparruan.
3.2. Artxibo-deskribapen tresnak	Bai. NMI-aren artxibo historiko digitalean.
3.3. Transkripzioa	Bai. Gaztelaniara (testu elebiduna). NMI-aren artxibo historiko digitalean eskuragarria da.

4. Erreferentzia bibliografikoak

4.1. Dokumentuari	Gehitu hemen erreferentzia nabarmenen eta inportanteenak orrialdeak seinatuz.
4.2. Testua ulertzeko	Gehitu hemen erreferentzia nabarmenen eta inportanteenak orrialdeak seinatuz.

5. Pentsamendu historikoa

5.1. Testuinguru historikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Mugimendu eta Estatuaren arteko borroka garai indartsua da. PSOE Gobernuaren Kontzientzia legea (1984), 1988tik aurrera aplikatu zen. Lege horretan, Kontzientzia Eragozpena ez zen giza eskubide kontsideratzen, delitu baizik. KE egitea zigortzen zuen eta ordezkotza zerbitzu sozialak lanpostuak kentzen zituen eta boluntarismoan ezartzen zuen. Horren aurka intsumitualetan altxatu ziren eta zerbitzu sozialari uko egin zioten, hori da itsumisioa. Orduan, Estatua saiatu zen zigor hori gizartean ikustezin bilakatzen, kartzela zigor oso lausoak eta presoak 2. graduan sailkatuz (soilik espetxera lotara joaten ziren), mugimendua desaktibatuko zutelakoan. Horrela, plantoaren estrategia burutu zuten 1993tik Aurrera. Lehenengo plantoa Txantreako San Kristobal parrokiaren burutu zen eta testuaren egileak hiri bereko 1995eko bi plantoetan hartu zuen parte. • Britainia Handiaren XIX. mendeko potentzia nagusiaren gainbehera. • Vietnamgo Gerra (1955-1975) eta gerra honen aurkako gizarte mugimendua mugimendua. • Ejertzitoaren eredu-aldaketaren bilakaera: derrigorrezko ereditik XIX. mende hasieratik, eredu mistoaren saikera Demokrazia Formalaren lehen urteetan PSOE partiduaren aldetik eta eredu-profesionalaren finkapena 2001etik
-----------------------------	---

5.2. Ideia nagusiak	<p>aurrera.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Golkoko Gerra (1990-1991) • Misió humanitarioak: Bosniako Gerra (1992-1995) eta Somaliako Gerra (1991tik aurrera). <hr/> <ul style="list-style-type: none"> • Intsumisioaren helburua ez da soldaduskaren bukaera, zapalkuntzarik gabeko mundua baizik. Balore eta praktika militaristak salatzen dira eta Intsumisioa mugimendu antimili eta antimilitarista bezala errebeindikatzen da. • Sistema kapitalista sistema militarrekin elkarlotzen da injustizia sozialaren kausa bezala eta horiek garapenereduarekin eta gerra-eredu aldaketarekin. Momentu horretan Gerra
5.3. Aldaketa eta jarraikortasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Jarraikortasuna epe luzeko mundu mailako prozesu historikoa, Mundu Berriaren aurkikuntza, kolonizazio baliabide naturalen ustiakuntzarekin hasi zena. • Jarraikortasuna, epe ertaineko XIX. mendeko industrializazio prozesuak, kolonialismotik gaurko neokolonialismoaren bideak dirau. • Aldaketa, Gerra Hotzaren bukaeran eta Mundu Globalizatu berriaren hasiera. • Armadaren jarraikortasuna, baina aldaketarekin, XIX. mendeko derrigorrezko eredutik eredu profesionalera. • Aldaketa, Europa Batasunaren mailan Euroejertzitza eta gero NATOren ejertzitza bateratua finkatzea. • Aldaketa, gerra-ereduaren aldaketa: Golfoko Gerra, Bosniako Gerra eta Somaliako Gerraren adibideak.
5.4. Dimentsio etikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Ejertzitza defedatzeko ala mundu injustu honen bortizkeria mantentzeko balio dute? • Militarren defentsa kontzeptua eta etsaiaren existentzia kolokan jartzea. • Bake misio eta laguntza humanitaria zalantzan jartzea. • Herrialde garatu edo industrializatuen (Ipar Globala), Hego globalaren azpigarapenarekin duen harreman zuzena. Garapen-ereduak azpigarapena sortzen du.
5.5. Perspektiba historikoa	<p>Dokumentuaren garrantzia orainaldian edo gaurko egunarekin erlazionatuta dago:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Neokolonialismoa, kolonialismoaren azken fasea Bigarren Mundu Gerratik (1939-1945) aurrera. • Antropozenoa Industrializazioaz geroztik, gizakiaren jarduerak eragindako aro geologiko berria. Natura eta pertsonen ustiakuntza zein esplotazio etengabe oinarritzen da.

5. Aukeratutako testua

EJERTZITZEN AURKAKO DESOBEDIENTZIA (II)

Zein da intsumisioaren helburua? Zergatik ejertzitoen aurkako borroka? Batzuen ustez gure borroka soldaduskaren kontra doa, eta gure helburua ejertzito profesional bat lortzea da. Horrela ikusita, gure borroka eta kartzelera joateko jarrera erakunde militarra beste modu batez antolatzearen aldekoa izango litzateke. Britainia Handia eta Estatu Batuetako ereduari begiratzen badiogu, nekez ikusten da ejertzito profesionala duten estatu horiek borroka antimilitarista helburua izan dezaketela.

Militarren helburua, euren esanetan, defentsa da. Aztertu behar dugu zertan datzan bere defentsa kontzeptua. Militarren mentalitatea bestearekiko mesfidantzan oinarriturik dago; besteak, etsaiak dira beti, edo gutxienez balizko etsaiak, gaiztoak, gu inbaditzeko edo erasotzeko prest daudenak. Haiengandik defendatu behar dugu, haiek baino arma, tanke, bonba edota misil gehiago edukiz. Mentalitate honek lasterketa armamentistiko itzela sortu du, dirutza galduz eta planetan zehar inseguritate eta gerratea zabalduz; lurraren etorkizuna ere kolokan legoke “defentsarako” eginak dauden arma horiek erabiliz gero. Gainera, defentsa efikaza izateko diziplina itsuan eta maskulinitate berezi batean oinarriturik dago. Defentsa kontzeptu hori menperakuntza eta kompetentziaren ondorioa da, ez bestearekiko elkarlanaren ondorioa, honen bidez konfidantza sortzen baita.

Beste aldetik, gero eta bateratuago dagoen mundu honetan oso eztabaidagarria da defendatu behar dugun balorerik garrantzitsuena lurralde integritatea den. Badirudi gosea, miseria eta inguruaren suntsipena gainean dugun mehatxurik larrienak direla eta ez du ematen ejertzitoek horren aurka borrokatzeko balio dutenik, mantentzeko baizik.

Defentsa-kontzeptua aztertu ondoren, ikusi behar dugu zein den momentu honetan beharrezkoa duten etsaia. Gure inguruari begiratzen badiogu agerian dago Europa mailan (Mendebaldeko Europan) etsairik ez dela ikusten. Europa potentzia ekonomikoa izateko bidean estatuen arteko gatatzak desagertzen dira; baterakuntzara goaz euroejertzitoaren bidez.

Etsaia, berriz, Hegoaldetik omen dator eta Europar Batasunak (Amerikako Estatu Batuen moduan) Hegoaldea menperatzeko tresna berriak prestatzen ditu. Asmo zaharrentzako estrategia berriak, hirugarren mundua menperatzeko premia hau ez baita batere berria. Orain dela 500 urte, Amerikaren aberastasunen lapurketa hasi zen eta horretarako Afrikako esklabuak eramaten ziren hara.

Industrializazioaren garaitik mundu garatuak lehengaien behar handia ikusi zuen. Lehengaiak lortzeko, XIX. mendean inperio kolonialak sortu ziren hirugarren mundua era zuzen batean kontrolatuz eta azpigarapenaren sustraiak ezarriz. Bigarren gerra mundialaren ondoren sortu zen orden berriarekin herri askok beren independentzia lortu zutenean ezin izan zuten eredu ekonomikoa apurtu. Neokolonialismo batean murgildurik gehienek gobernu militar eta sasimilitarrak jasan behar izan zituzten, munduko potentzien sostenguekin. Gobernu hauek dirutza gastatu dute Iparraldean egindako armak erosiz, gehienetan euren herrien aurka beranduago erabiltzeko. Honen ondorioz herriek, errepresio eta gerra zibilak jasateaz aparte, gastu militarrek eragindako kanpo-zorraren arazoak (ajuste-planak) jasan behar izan dituzte.

Orain ere, Gerra Hotza amaitu ondoren, ejertzitoak dira gure garapenak behar duen azpigarapena mantentzeko arma inportante bat, beste neurri ekonomikoen artean. Adibidez, Golfoko Gerran ejertzitoak arduratu ziren gure petroleoaren hornidura mantentzeaz. Gerra hau hasiera baino ez da izan, eta ordutik gure gobernariak “hegoaren mehatxua” (integristoa, arma nuklearrak, emigrazioa, etabar) behin eta berriro aipatzen baitute indar militarrek berrantolatzeko; munduko arazoak armen bidez konponduko baitira. Horrela ulertu behar da EEBB eta NATOren estrategia berria, superpotentzia baten kontrako estrategia utziz eta 3. munduan parte-hartzeko unitate bereziak prestatuz Golfoko Gerraren ereduari eusteko: gerra azkarrak, teknologia asko erabiliz, etsaia lehenbailehen suntsitzeko, irabazlearen biktima gutxiarekin.


Birmoldaketa hau, Legioaren kasuan bezala, itxura humanitario batez disfrazatu nahi dute, baina bere ondorioak oso argi daude. Somalia eta Bosniako adibideek arrazoa eman digute antimilitaristooi, militarren logikak eta ejertzitoen parte-hartzeek erakartzen dituzten ondorio larriak erakutsiz.

Beraz, ejertzitoek gure garapen-eredua (jadanik iraunkorra ez den garapena), miseria, jendearen sufrimendua eta ingurugiroaren suntsipena mantentzen dute, lurra eta jendearen etorkizunerako mehatxu handiak izanik. Ez gaituzte defendatzen, erasotu baizik. Honetarako, berdin du ejertzitoa profesionala ala derrigorrezkoa izan.

Hemen dago, beraz, intsumisioaren helburua, beste gizarte eredu bat, zapalkuntzarik gabekoa, azpigarapenik gabekoa eta hau mantentzen duten edozein ejertzitorik gabekoa. Badakigu ezin dugula horrelako mundua bat-batean sortu, gizaki guztion lana baita. Bitartean, ejertzitoek ez dute gure laguntzarik izango. Askatasun hori inork ezin digu kendu, kartzelara eramaten bagaituzte ere.

Fernando Mendiola Gonzalo
KEM-MOCeko kidea

6. Irudia



7. Ariketak

Arkatzak erdira talde txikien lankidetzara taldekatzea erabiliko da.

7.1. Zeintzuk dira testuaren ideiak nagusiak? 2-3 ideia nagusi 2-3 lerroetan **laburbildu**.

7.2. Nolakoa militarkuntza? Zeintzuk dira bere ezaugarri nagusiak? Zertan oinarritzen da (baloreak, mentalitatea, ideiak, funtzionamendua...)? Nolakoa da antimilitarismoa? Testuan **bilatu** eta **sailkatu**.

7.3. Egileak zergatik argitzen du antimilitaristen helburua? Nahasmendua dago? Bere ustez zein da intsumisioaren helburua?

7.4. Mundu globalizatuan herrialdeak, territorio, estatu-nazioa defendatzen duten ejertzitoek zentzurik al dute? Zeintzuk dira orain benetan munduaren arazoak? Globalak dira? Lokalak dira? 3-4 **adibide jarri**.

7.5. Etsaia edo arerioa kontzeptualizazioa: besteak etsaiak ala balizko etsaiak dira beti, gaiztoak, inbaditzeko edo erasotzeko prest daudenak dira. Defendatu behar gara, nola? Arma, tanke, bonba, misilak pilatuz. Ados zaudete? Zer motatako gizartean gaude? Zure eguneroko bizitzan guztiak etsaiak direla **imajinatu**. Nola biziko zinateke? Nola sentituko zinateke?

7.6. Zertan inbertitu daiteke militarkuntzaren mantentzera zuzentzen den Estatuaren dirutza? Imajinatu Espainiako aurrekontua kudeatu behar duzuela. Zertan gastatuko zenukete dirua? Zer da garrantzitsua Estatu batean, gizarte batean? 5-6 aspektu behintzat kontuan hartu eta banaketaren proportzioak erabaki:

7.7. Golkoko gerraz geroztik, petrolioaren hornidura ziurtatzeko gerra nagusiak zeintzuk izan dira? Google bilatzaileak “guerra” eta “recursos naturales” hitzak **idatzi** eta **bilaketa egin**.

7.8. Kahoot.it gunean sartu eta irakasleak erraztutako kodea **sartu**. Esteka honen bidez (<https://create.kahoot.it/details/dca2c8cf-dc89-45f7-8ab9-6063f4b0c8b4>) testu honen ulermena finkatzeko errepasso galderei **erantzun**:

7.9. Informazioa **antolatu**. Beheko urrats hauek segituz, tiki-toki denbora lerroa **osatu**: Testuan, prozesu historiko garrantzitsuenak gorri **azpimarratu**.

Prozesu horiek kronologikoki **datatu**.

Epe luze, ertain eta motzeko bezala **sailkatu**.

Gaia (geologia, ekonomia, kultura, (geo)politika, gizartea, militarra) **sailkatu**.

www.tikitoki.com

5.2.7. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXA 6

Iraupena	12. saioa eta 13. saioa (110')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Pentsamendu historikoaren konpetentziak etorkizuneko testuinguru batean aktibatu, batez ere kausak eta ondorioak eta irudimen historikoa. • Garapen osteko alternatibak irudikatu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • 5-6 chromebook eta internet konexioa. • Arte adierazpenen argazkiak.

1. Dokumentuaren fitxa teknikoa

1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/08/01
1.3. Dokumentuaren "izenburua"	Derecho al delirio
1.4. Dokumentuaren egilea	Eduardo Galeano
1.5. Hartzailea	Irakurleak
1.6. Dokumentuaren data	2001
1.7. Dokumentu tipologia	Literatura testua
1.8. Idazketa hizkuntza	Gaztelania. Uruguaiar geolektoa.
1.9. Orri kopurua	1
1.10. Euskarriaren materiala	Idatzizkoa eta ikus-entzunezkoa

2. Deskribapen motza

Eduardo Galeano (Montevideo, 1940-2015) kazetari eta idazle uruguayarra esker latinoamerikarraren ordezkari nagusienetarikoa izan zen. XX. mende amaieran idatzitako literatura-testu honetan, giza-eskubideak etengabe urratzen diren mundu batean bizi garela salatzen du, nahiz eta paperean idatziak egon, diskurtso eta praktikaren arteko aldea lotsagarria da.

Globalizazioaren fase historiko neoliberallean (1989az geroztik), unibertso bat bakarra hegemoniko bihurtu da, eta badirudi, pentsamendu bakarraren ideologia gailendu dela. Alabaina, gizadiak, giza eskubideak errespetatu eta sustatuko diren gizarateak irudikatu eta sentitzeko ahalmena goraiatu nahi du, pentsatu, idatzi, sentitu eta imajinatzen ez dena, ez baita existitzen.

Testu honetan, gizatasuna, izaki bizidun guztion arteko elkarbizitza, naturarekiko

errespetua, haurtzaroaren babesa, aberastasunaren kontzentrazioaren uko egitea nahiz Historiaren humanizazio beharra aldarrikatzen du. Bizitza duinek giza eskubideek errespetua eskatzen dute. Horretarako, garapen-eredu suntsitzailea baztertu behar da eta bizikidetzarako oinarri global hezitzaile eta enpatikoak ezarri. Testuan, pertsona intsumituei eta industria militarri bere lekua ematen die.

Irrotasunez eta xamurtasunez, datozen belaunaldientzako itxaropen manifestua da.

3. Dokumentuaren eskuragarritasuna	
3.1. Erreproduzio digitala	<p>Bai. Youtube plataforma: https://www.youtube.com/watch?v=ZyYce8JTlcY</p> <p>Dailymotion plataforma: https://www.dailymotion.com/video/xthyt</p>
3.2. Transkripzioa	<p>Bertsio anitz daude:</p> <p>Educ. [Escritos de un caballero]. (2021eko abuztuaren 15a). El derecho al delirio — Eduardo Galeano [Letra] Escritos de un caballero.</p> <p>Hemendik eskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=o5eRrBYn7SE</p>

4. Pentsamendu historikoa	
4.1. Testuinguru historikoa	Gizarte eskubideen deklarazio unibertsala (1948 eta 1976).
4.2. Ideia nagusiak	Gaur egun urratze diren giza eskubide guztiak etorkizun utopiko batean errespetatuak izango dira.
4.3. Aldaketa eta jarraikortasuna	<p>Eboluzio historikoaren aspekturen batean dokumentu honek aldaketaren bat markatzen duen adierazi, edo kontrari, prozesu edota egituraren batean jarraikortasuna adierazten duten.</p>
4.4. Dimentsio etikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Hazkunde ekonomikoa VS giza eskubideen errespetua. • Beste mundu posibleak irudikatzeko gaitasunak pentsamendu ideologiaren egiten dugu talka. Errealitatea naturala da, izan behar dena... edo eraikitze aukera dugu? • Mundu berriak, mundo hobeez hitzak behar dituzte. Hizkuntzaren bidez komunikatu ahal dena egin ahal da, eta horretarako sormen lana eta diseinatu behar da. • Kontsumoak bizitza maila neurtzen al du? • Pobrezia, miseria naturala al da? • Hezkuntza, elikadura, giza eskubidea al dira eta ez merkatal-produktuak? Giza eskubideak pribatizatu daitezke? • Justiziarik gabe askatasunik ba al dago?


5. Aukeratutako testua

Aunque no podemos adivinar el tiempo que será, sí que tenemos, al menos, el derecho de imaginar el que queremos que sea. En 1948 y en 1976, las Naciones Unidas proclamaron extensas listas de derechos humanos; pero la inmensa mayoría de la humanidad no tiene más que el derecho de ver, oír y callar. ¿Qué tal si empezamos a ejercer el jamás proclamado derecho de soñar? ¿Qué tal si deliramos, por un ratito? Vamos a clavar los ojos más allá de la infamia, para adivinar otro mundo posible:

- El aire estará limpio de todo veneno que no venga de los miedos humanos y de las humanas pasiones.
- En las calles, los automóviles serán aplastados por los perros.
- La gente no será manejada por el automóvil, ni será programada por la computadora, ni será comprada por el supermercado, ni será mirada por el televisor.
- El televisor dejará de ser el miembro más importante de la familia.
- La gente trabajará para vivir, en lugar de vivir para trabajar.
- Se incorporará a los códigos penales el delito de estupidez, que cometen quienes viven por tener o por ganar, en vez de vivir por vivir nomás, como canta el pájaro sin saber que canta y como juega el niño sin saber que juega.
- En ningún país irán presos los muchachos que se nieguen a cumplir el servicio militar, sino los que quieran cumplirlo.
- Los economistas no llamarán nivel de vida al nivel de consumo, ni llamarán calidad de vida a la cantidad de cosas.
- Los cocineros no creerán que a las langostas les encanta que las hiervan vivas.
- Los historiadores no creerán que a los países les encanta ser invadidos.
- El mundo ya no estará en guerra contra los pobres, sino contra la pobreza, y la industria militar no tendrá más remedio que declararse en quiebra.
- La comida no será una mercancía, ni la comunicación un negocio, porque la comida y la comunicación son derechos humanos.
- Nadie morirá de hambre, porque nadie morirá de indigestión.
- Los niños de la calle no serán tratados como si fueran basura, porque no habrá niños de la calle.
- Los niños ricos no serán tratados como si fueran dinero, porque no habrá niños ricos.

-
- La educación no será el privilegio de quienes puedan pagarla.
 - La policía no será la maldición de quienes no puedan comprarla.
 - La justicia y la libertad, hermanas siamesas condenadas a vivir separadas, volverán a juntarse, bien pegaditas, espalda contra espalda.
 - En Argentina, las locas de Plaza de Mayo serán un ejemplo de salud mental, porque ellas se negaron a olvidar en los tiempos de la amnesia obligatoria.
-

6. Irudia



7. Ariketak

Ikerketa lankidetzaz bikotearen taldekatze kooperatiboa erabiliko da.

8.1. Testua lehen aldiz entzungo da. Eduardo Galeanoren [Derecho al Delirio](#) literatura testu motzaren narrazioa **entzun**. Testu poetiko honetan E. Galeanok zer kontatzen du?

8.2. Testu idatzia banatuko dugu. Testuan zaharkituta dauden zatiak ezabatu eta **gaurkotu**.

8.3. Militarkuntzari buruz hitz egiten al du? Zatiak horiek **azpimarratu**.

8.4. Hemen behean hainbat argazki dituzu, gaurko munduaren bortizkeria eta militarkuntza salatzen dutenak, Armadarekin eta kapitalismoaren elkarlotuta daudenak. Orain arte egindako ariketekin, binaka, irudi bat aukeratu, Kontzientzia Eragozpena eta Intsumisioaren Gizarte Mugimenduaren esanahia hoberen zuentzat hoberen adierazten duena. Zer behatzen duzue argazkian? Zer adierazten du artelanak? Zein emozio sentitzen duzue? Irudiari izenburua **asmatu** eta talde handian **azaldu**.



8.5. XXI. mendeko bigarren hamarkadan sartu berri gara. Gaur, kapitalismoari alternatibak daude, maila lokalean eta globalean. Alternatibak zure auzoan, herrian edota hirian. Talde txiki bakoitzak, beheko bideo motz hauetako bat ikusiko du.

BIKOTEA ETA BIDEOA	
1.	Desazkundera
2.	Ongi bizitzea
3.	Ekonomia feminista
4.	Urbanismo feminista
5.	Eko-feminismoa

8.6. Galeanok, mundu hobeto baterako bere desioak adierazi zituen. XXI. mende hasierarako desioak. Guk, testu hori berridatziko dugu. XIX. mendearen 2. hamarkadarako gure desioak **sortuko** ditugu. Gure denbora bizitza, denbora sozial eta irudimenarekin. Hemen eta orain testua **berridatzi** eta **aberastu**.

8.6.1. Testu talde txikietan sortzeko teknika (zailtasunak izanez gero): Paper zati bat hartu. Taldekide bakoitzak esaldi bat idatzi. Hurrengo taldekideak soilik aurreko

ikaslearen esaldia ikus dezake. Hurrenez hurren esaldiak idatzi. Taldekide bakoitzak bi aldiz egin. Taldekide batek sortutako testua ozen eta poliki-poliki irakurri. Hobekuntzak egin.

8.6.2. Emaitza (audio aedo/eta bideoa), Youtube plataforman igoko dugu. Horrela, beharbada, gure ahotsak, ahots propien bozgorailuen bidez entzungo dira.

8. Materiale gehigarriak



5.2.8. TRANSPOSIZIO DIDAKTIKOAREN FITXA 7

Iraupena	14. saioa eta 15. saioa (110')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo militarkuntzaren egoera (gastu militarrek, DZM munduan, gerren ondorioak) aztertu. • Ejertzitoen iragarkien mezuen analisi egin. • Mapen analisi egin. • Iturri historikoak kontrastatu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> • Mapa eta grafikoen fitxak. • Youtube plataformako iragarkiak. • 5-6 chromebok eta internet konexioa.

1. Dokumentuaren fitxa teknikoa

1.1. Fitxaren egilea	Ainara Hermoso de Mendoza San Juan
1.2. Fitxaren idazketa data	2021/08/12
1.3. Dokumentuaren "izenburua"	Anuncios reclutamiento Fuerzas Armadas

1.4.	Dokumentuaren egilea	Espainiako Defentsa Ministerioa
1.5.	Hartzailea	Gizarte Zibila
1.6.	Dokumentuaren data	1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003
1.7.	Dokumentu tipologia	Publizitate Kanpaina
1.8.	Idazketa hizkuntza	Gaztelania
1.9.	Euskarriaren materiala	Ikus-etzunezkoa

2. Deskribapen motza

Prozesu bat deskribatzen duten funtsezko galderak kontuan hartuz bete: zer, nor(k), nola, non, noiz eta zergatik. Hau da, testuaren testuingurua ere iruzkindu.

3. Dokumentuaren eskuragarritasuna

3.1. Erreproduzio digitala Youtube.

4. Erreferentzia bibliografikoak



4.1. Testua ulertzeko Martínez de Guevara, E. (2013ko martxoaren 31a). La abominable cara oculta de los “ejércitos humanitarios”: actuaciones del ejército español. [Artikulu online Arainfo-n, Gara egunkaritik berreskuratua]. Hemendik eskuratua: <https://arainfo.org/la-abominable-cara-oculta-de-los-ejercitos-humanitarios-actuaciones-del-ejercito-espanol/>

5. Pentsamendu historikoa

- 5.1. Testuinguru historikoa
- 1998-2003 artean Derrigorrezko Zerbitzu militarren gainbehera eta bukaeraren urteak dira. 2001. Urtean dekretuz Federico Trillok soldaduskaren amaiera iragarri zuen.
 - Intsumisioaren azken kanpainaren, Intsumisioa kuarteletan (1997tik aurrera) kokatzen da, arrakasta eta eragin urriko kanpaina.
- 5.2. Ideia nagusiak
- Testuek Armada erakargarri egitea eta gizartean funtzio sozialaren beharrezkotasuna konbentzitu eta saltzea du helburu, erreklutamendurako jendea animatzeaz gaian.
- 5.3. Aldaketa eta jarraikortasuna
- Aldaketa Espainiako Armadaren zilegitasun berrituan.
 - Aldaketa, derrigorrezko erreklutamendu oinarri zuen Ejertzitoaren eredutik, eredu profesionalizatura.
- 5.4. Dimentsio etikoa
- Armadaren iragarkiak egitea zilegia al da? Iragarkiek

5.5. Perspektiba historikoa	<p>muga etikoak izan beharko lituzkete ala ez?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Armadak, derrigorrezko zerbitzu militarra, Estatuaren gastu militarra eta gerrak eta gerren hondamendiak erlazionatuta daude?
	<p>Armadak 1990ko hamarkadatik gaur arte zentzu berria bereganatu du, gizartean beharrezko funtzio sozial bat betetzen duela ematen baitu. Irudi hori nola eraiki den jakitea garrantzitsua da, nola zilegiztatu eta finkatu den eta horren atzean zer ideia dauden jakitea.</p>

6. Irudia eta aukeratutako testua

IRAGARKIAREN BIDEOA ETA ESTEKA	TRANSKRIPZIOA
 <p>Segundo anuncio reclutamiento Fuerzas Armadas 1998</p>	<p>“Por enseñarte una profesión, no cobramos, pagamos. Mecánico de motor, ofimática, comunicaciones, electrónica, sonarista, legionario, paracaidista, montañeros, esquiadores. Elige tu futuro entre más de 100 especialidades y empieza a cobrar desde el primer día. Únete a las nuevas Fuerzas Armadas profesionales. Profesionales con futuro para nuestra mejor defensa”.</p>
 <p>Anuncio reclutamiento Fuerzas Armadas 1999</p>	<p>“Si pensabas que aprender una profesión era aburrido. Fuerzas Armadas Profesionales. Prepárate. Más de 100 especialidades con salida civil. Estarás preparado para tu vida y para proteger la de los demás. Fuerzas Armadas Profesionales: todo lo que te propongas”.</p>



Anuncio reclutamiento fuerzas armadas 2000

“La vida que te gusta, la tienes aquí.

Ven a las Fuerzas Armadas Profesionales. Aquí hay trabajo, aquí hay futuro. Aprende una profesión. Ven.

Aquí hay un mundo para ti”.



Anuncio reclutamiento Fuerzas Armadas 2001

“Si piensas que puedes llegar donde quieras, prepárate para lo mejor en las Fuerzas Armadas profesionales.

Todo lo que te interesa está a tu alcance en unas FAS totalmente profesionales.

Aquí tienes lo que buscas”.



Anuncio reclutamiento Fuerzas Armadas 2002

“(Nuestra autoescuela. Uno de nuestros campus. Una de nuestras aulas. Un equipo de trabajo. Nuestros cursos de idiomas. Una clase práctica. La sala de estudio).

En las Fuerzas Armadas, tenemos la tecnología, los medios, y los especialistas para formarte en una profesión con futuro.

Fuerzas Armadas. El valor de un profesional”.



Anuncio reclutamiento Fuerzas Armadas 2003

“Nuestras Fuerzas Armadas, siempre están donde se las necesita”.

7. Ariketak

Lankidetzta taldekatzearen 1, 2, 4 egitura erabiliko da.

7.1. IRAGARKIEN FASEA

7.1.1 Bi aldiz, iragarki bat **ikusi** eta **entzun**. Zer lortu nahi du iragarkiak? Zein da iragarkiaren helburu zuzen, zehatza eta esplizitoa? Iragarkiak atzetik beste helburu implizitoren bat badu?

7.1.2. Armadak zein funtzio sozial betetzen duela ematen du iragarkiak?

7.1.3. Hirugarren entzunaldia. Ejertzitoaren zein irudi transmitzen du? Zein dira irudi horren zutabe nagusiak?


7.1.4. Iragarkiak musikarik gabe ikusi. Zer gertatzen da musika kentzean? Aldaketaren bat somatzen duzue?

7.2. MAPEN FASEA

7.2.1. Talde txiki bakoitzak bere mapa edo/eta grafikoa (material gehigarriak) **aztertu**. Galdera hauei **erantzun**: Mapetan zer datu ateratzen dira? Non kokatzen dira datu altuenak eta baxuenak? Herrialde horiek komuneko ezaugarriak dituzte? Zeintzuk?

7.2.2. Beste talde txikiei **azaldu**.

7.2.3. Orain, talde handian, aztarna ekologikoaren mapa **erakutsi**.



- Begibistaz, zer herrialde dira aztarna ekologiko handiena dutenak?
- Aurreko irudietan ikusitakoaren arabera, zer beste ezaugarri dituzte herrialde horiek?

7.3. ONDORIOAK: IRAGARKI ETA MAPAK ALDERATZEAREN FASEA

7.3.1. Iragarkiak eta datu errealak **kontrastatu**.

- Errealitatea eta iragarkiek gauza bera islatzen dute?
- Iragarkiak eta mapak bateragarriak ala kontraesankorrek dira?
- Bi errealitate daudela esan dezakegu? Errealitate bakarra? Zergatik?




7.3.2. Proposamen didaktikoan ikusitakoaren ondoren, galdera hauei erantzun:



- Ulertzen al duzu Ejertzitoen kontrako jarrera?
- Zein izango ote zen bilakaera historikoa Kontzientzia Eragozpen eta Intsumisioaren






Mugimendua gabe?

- Nolakoa izan ahalko litzateke mundua Ejertzitorik, Armadarik, armarik gabe? Ezberdina izango litzateke? **Imajinatu eta adierazi.**

8. Materiale gehigarriak







5.2.9. AMAIERAKO PRODUKTUA

Iraupena	16. saioa eta 17. saioa (110')
----------	--------------------------------

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Ikaskuntza prozesua islatuko duten amaierako produktua eratu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> Chromebook-a eta Internet konexioa (Ikusi 5.3.3. Amaierako produktua)

5.2.10. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK

Iraupena	18. saioa (50')
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Ebaluazio-fitxak bete. Talde handiaren kritikak, ondorioak, iradokizunak... bildu.
Baliabideak	<ul style="list-style-type: none"> Ikaslearen autoebaluazio-fitxa. Ikaslearen koebaluazio-fitxa. Taldeen arteko heteroebaluazio-fitxa. Irakaslea ebaluatzeko inbentarioaren fitxa.

5.3. EBALUAZIO SISTEMA

Zer eta nola ebaluatu? Nola egin ebaluaketa proposamen didaktikoan ikasitakoarekin koherentea eta kohesionatua izan dadin? Ebaluazio-sistemak nola eragin dezake ikaskuntza-irakaskuntza prozesuen hausnarketa eta hobekuntza etengabeen?

Proposamen didaktiko honetan ebaluazio-sumatiboa eta ebaluazio formatiboa integratu dira, biak beharrezkoak, bateragarriak eta osagarriak baitira. Hala, bai ikaskuntza prozesua (ebaluazio jarraitua) bai amaierako emaitzak, baita irakaslearen lana ere ebaluatuko dira. Era berean, ikasle bakoitzaren, talde txikien eta talde handiaren ikaskuntza prozesuaren balorazioa neurtuko da. Irakasleak eta ikasleak burutuko dute.

Hasierako ebaluazioan, ikastaldearen komunitate paisaia eratuko da: gaiaren inguruko ikasleen aurrezagutza eta ikasketa estiloen azterketa eginez. Ebaluazio jarraian, irakasleak talde txikien behaketa gauzatuko du. Behaketa horretan, irakaslea ikaskuntza prozesuaren gidaria-bitartekaria denez, ezin du itxaron ebaluazio amaiera arte. Ikasten ari diren bitartean, iradokizunak, zuzenketak, proposamenak... egingo dira.

Gainera, ikasleek euren gogoeta metakognitiboa burutuko dute, autoebaluazioa eginez, talde txikiari buruzko koebaluazioa eginez eta taldeen arteko heteroebaluazioa burutuz.

Azkenik, amaierako produktuak prozesuaren mamia bilduko du. Idatzizko edo ahozko produktuaren iradokizunak nahiz zuzenketak idatziz izango dira, eta ez soilik zenbakizko kalifikazioa jarriz. Irakaslearen feedback pertsonalizatu hau ezinbestekoa da.

Ikasgelako ebaluaketa bukatu ostean, eskuratutako emaitzekin irakasleak irakaskuntza prozesuaren eraginkortasunaren eta curriculumaren diseinuaren balorazioa neurtuko du. Horrela, “berrikuntza” edota hobekuntza proposamenak hartu ahalko ditu hurrengo ikastaldeetan proposamen didaktikoa doitzen joateko.

Demagun, transposizio didaktiko fitxa guztiak landu direla. Orduan, gutxi gorabeherako portzentaiak hauek izango lirarteke. Dena den, portzentaia hurbilduak dira lehen esan bezala irakasle guztiak ez dituztelako material didaktikoak erabiliko. Ebaluazio tresna eta portzentaien banaketak, zeregin bakoitzaren hurbilketa izatea du helburu, gero kasuan-kasuan moldatu ahal izateko.

Taula 11: Ebaluazio tresna eta bere portzentaia

EBALUAZIO-TRESNA	%
Soziograma	%0
Ikaslea: Interesak, motibazioak, gustuak, ikasketa-estiloa... ezagutzeko galdetegia	%0
Zer dakizu Nafarroako Intsumisioaren mugimenduari buruz? Galdetegia	%0
Jenga jolasa	%10
Kahoot jolasa	%5
Tiki toki denbora-lerroa	%10
Literatura podcast edo bideoa	%10
Ikaslearen talde txikien eguneroko lanaren behaketa fitxa	%20
Amaierako produktua: gogoeta indibiduala	%30
Talde-lanaren errubrika (koebaluazioa) errubrika	%5
Norbanakoaren lanaren ebaluazioa fitxa (autoebaluazio-fitxa)	%5
Taldeen arteko heteroebaluazio-fitxa	%5

5.3.1. Hasierako ebaluazioa edo ebaluazio diagnostikoa

Lehenik eta behin, hasierako ebaluazioa burutu da. Ebaluazio diagnostiko hau Iturrama Institutuan egindako praktketan, 3 ebaluazio tresnen bidez burutu da. Google Formularioen bidez egindako galdetegiak izan dira.

5.3.1.1. Soziograma

Psikologiatik datorren harraminta da. Irakasleak ikasgelako gizarte harremanei buruzko irudikapena lortzen du. Ikasgelaren taldekatzea erraztuko du. Taldean ikaslearen perfilak eratzten ditu: liderrak, polemikoak, ikustezinak etab. Bateriaezinak diren ikasleak talde berean ez jartzeko aukera ematen du, ikasleren batek gizartzeko arazoak dituzten aukera ematen du edota ikasle bereziki gatazkatsu nahiz polemikoak identifikatzen laguntzen du.

[Galdetegia](#)

[Erantzunak](#)

5.3.1.2. Ikaslearen gustu interes eta motibazioen galdetegia

Proposamen didaktikoa hasi aurretik, ikaslearen ikasketa-estiloak, ikasketa ohiturak, gustuak, interesak eta motibazioak ezagutzea ezinbestekoa da. Iturrama Institutuetako praktikan jarraian dagoen galdetegia bete zuten. Aipatu beharra dago, galdetegi hauek ikasturtearen lehen hiruhilabetearen zehar betetzeko prestatuta dagoela, ikasturtearen aurrera goazen heinean, proposamen didaktikoetan informazio guzti hau kontuan hartzeko. Aitzitik, datu hauek ez zeuden bilduta eta lan hori 3. hiruhilabetearen amaieran galderak Google formulario batean jaso ziren eta ikasleek Google Classroom bidez bete zuten:

[Galdetegia](#)

[Erantzunak](#)

5.3.1.3. Zer dakigu Intsumisioari buruz? Galdetegia

Galdetegia aurrezagutzak aktibatzeko erabilgarria da. Galdetegi honen bidez, gaiaren inguruan (eduki historikoak) dituzten aurrezagutzak aktibatuko dira eta hauetatik abiatuz zabalduko dira. Modu honetan, aurrezagutza batzuen akats kontzeptualak identifikatzeko baliagarria izango da. Proposamen didaktikoa hasi aurreko astean egitea komenigarria da:

[Galdetegia](#)

[Erantzunak](#)

5.3.2. Ebaluazio jarraia

Ikaskuntza prozesua erdigunea duen ebaluazio mota. Prozesu osoan zehar irakaslearen feedback-a jasotzeaz gain ikaskuntza prozesua ebaluatzeko proba objektiboak osatuko dira.

5.3.2.1. Irakaslearen talde txikien behaketa fitxa

Irakaslearen talde txikien behaketa fitxa, irakasleak klasea bitartean edota bukatu eta berehala bete beharreko fitxa da. Semaforoaren koloreak erabili dira eta irakasleak gometsak jarriko ditu, denbora aurrezteko. Oso garrantzitsua izango da ohar aipagarriak apuntatzea, ondoren ikasleei xehetasunez jositako feedback-a eskaini ahal izateko.

Taula 12: Irakaslearen talde txikien behaketa fitxa

IRAKASLEAREN TALDE TXIKIEN BEHAKETA FITXA															
TALDEA: _____	TALDEKIDEAK: _____														
BEHAKETAREN ASPEKTUA															
Norbaitek lan guztia egin du?															
Norbaitek ez du lanik egiten?															
Taldekildeen ideiak errefusatzan dituzte?															
Taldekildeen ideiak onartzen dituzte?															
Argumentuekin arrazoitzen du?															
Argumenturik gabe arrazoitzen du?															
Jarrera asertiboa du?															
Errespetuz eztabaidatzen dute?															
Irakasleari feedback-a eskatzen diote? Nork?															
Irakasleari ez diote feedback-arik eskatzen?															
Feedback-aren ostean akatsak zuzentzen dituzte?															
Erraz eta asko despistatzen dira? Beste gauzei buruz hizketan hasten dira eta ez dira gelditzen?															
Despistatu arren, lanera itzultzeko gai dira?															
Euskaraz aritzen dira?															
Interesa erakusten dute?															
Norbaitek ez du inongo interesik erakusten?															
Taldekidereen batek irtenbide sortzaileak bilatzen ditu edo eskatutakoaz haratago doaz?															
Bakoitzak bere zeregina betetzen du? Nork bai eta nork ez?															
Arazoak edo zailtasunak daudenean bata besteari laguntzen diote?															
Orokorrean giro ona dute?															
Momentu gazkatsuak bizi izan badituzte, konpontzeko gai izan dira?															
Euren harremana hobetu dela ematen du?															
<table border="1" style="width: 100%;"> <thead> <tr> <th style="width: 25%;">SAIOAK</th> <th style="width: 75%;">OHARRAK</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>1. SAIOA</td> <td></td> </tr> <tr> <td>2. SAIOA</td> <td></td> </tr> <tr> <td>4. SAIOA</td> <td></td> </tr> <tr> <td>5. SAIOA</td> <td></td> </tr> <tr> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>				SAIOAK	OHARRAK	1. SAIOA		2. SAIOA		4. SAIOA		5. SAIOA			
SAIOAK	OHARRAK														
1. SAIOA															
2. SAIOA															
4. SAIOA															
5. SAIOA															

Egileak egina. Iturria: Irakaskuntza Masterra 2020-2021. Innovación docente ikasgaiaren egileak sortutako fitxaren moldaketa

5.3.2.2. Ikaslearen autoebaluazio fitxa

Ikasten ikastea ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren oinarritzko gaitasuna da. Ikasturtean programazio didaktiko osoan horrelako autoebaluazio fitxak egin beharko lirateke, ikasturteak aurrera dihoan ahala, ikasleak bere aurrerapenen jabe izan dadin.

Ikasturtearen ebaluazio fitxa guztiak portfolio modu batean jasotzea, gordetzea eta ikasturte amaieran ikasleari aldaketak analizatzeko aukera ematea gomendagarria da.

Taula 13: Ikaslearen autoebaluazio fitxa

AUTOEBALUAZIO FITXA		
Autoebaluazio fitxa bete. Erantzun motzak (1-2 lerro) eta argiak izan behar dira. Fitxa honek proposamen didaktikoaren %10a balioa du.		
1. Proposamen didaktiko honetan zer ikasi duzu?		
2. Zein aspektu hobe ditzazkezu?		
3. Talde txikian zer ekarpen egiten duzula pentsatzen duzu?		
4. Talde lanean zer kostatzen zaizu egitea? Zeregiten duzu kostatzen zaizunari aurre egiteko?		
5. Zein izan da proposamen didaktiko honen momenturik hoberena eta txarrena?		
6. Zerekin ikasi duzu hobe eta zergatik (bat baino gehiago aukeratu dezakezu)? Irakaslearen azalpenarekin? Abestiarekin? Dokumentu idatziarekin? Dokumentalekin? Bideo motzekin?		
7. Nolakoa izan da zure lan egiteko modua?		
8. Zer aldatuko duzu zure lan egiteko moduari dagokionean datorren proposamen didaktikoan hobetzeari begira?		
9. Azaldu zure taldekide bakoitzaren bertute bat behintzat (zer egiten duen ongi, zer ikasi duzun beragandik, zer miresten duzun bere lanari buruz...) eta zuretzat nahiko zenukeena:		
TT.	IZENA	BERTUTEA
1		
2		
3		

Egileak moldatua. Iturria: Irakaskuntza Masterra 2020-2021. Innovación docente ikasgaiaren egileak sortutako fitxaren moldaketa

5.3.2.3. Ikaslearen koebaluazio-fitxa

Taula 14: Ikaslearen koebaluazio-fitxa

NIRE TALDEA	Tk. 1	Tk. 2	Tk. 3	Tk. 4
Taldearen lanaz				

pozik eta harro dago.				
Taldekidearen funtzionamendua eta antolaketa egokia izan da.				
Nire iritziak eta beste taldekideenak kontuan hartu ditu.				
Modu aktiboan parte hartu du.				
Errespetuzko eta elkartasunezko jarrera izan du.				
Kalifikazio orokorra eta OHARRAK				

Egileak egina. Hezkuntza prozesuak eta testuiguruak irakasgaiako fitxen moldaketa.

5.3.2.4. Taldeen arteko heteroebaluazioa

Talde txikiek talde barruko lana ebaluatzeko errubrika izango da, taldekideen arteko, lan, jarrera eta ahalegin desorekak detektatzeko eta taldekideak euren lan propioaz eta taldekideen lanaz jabetu eta arduratzeko tresna. Errubrika hau erabiliko dute:

Taula 15: Taldeen arteko heteroebaluazio-fitxa

TALDE TXIKIA	4	3	2	1
1. Antolamendua eta taldearen koordinazioa	Taldea ongi koordinatu da, ariketen banaketa berdinzalea eta guztiok hitzartua.	Taldeak modu koordinatuan funtzionatu du, baina ariketen kudeaketan arazoren bat egon da.	Taldearen ariketen koodrinazioa nekez egin da eta beti ez da egon kideen arteko elkar ulermenik.	Taldea ez da lankidetzan lan egiteko gai izan, eta ariketen zatiak banatu ditu, euren artean konexiorik burutu barik.
2. Autonomia	Taldeak planteatutako erronka guztiak ebatzi ditu, irakaslearen gidaritzarekin edo gabe.	Taldek planteatutako erronka gehienak ebatzi ditu, irakaslearen laguntza zuzenarekin.	Taldeak, planteatutako erronka batzuk ebatzi ditu, baina maiz irakaslea gainean eta taldeari tiraka egon behar izan da.	Taldea ez da gai izan planteatutako erronka ugari ebazteko, nahiz eta irakasleak aktiboki lagundu. Talde lan pasiboa eta zatikatua izan da.
3. Sormena	Taldea eskatutako zereginaz	Taldeak eskatutako zeregina ongi	Taldeak eskatutako zeregina bete du	Taldeak ez du inongo interesik erakutsi, zeregina ez du bete

	haratago joan da, interes handia erakutsi du eta ekarpen berritzailea egin du.	bete du, eta momento batzuetan berrikuntza zantzuak somatu dira.	baina interes handirik gabe. Betebeharra justu eta gainditzeko egin dute.	eta oinarrizko gaitasunak ez dira bereganatu.
--	--	--	---	---

TALDEKIDEAK	4	3	2	1
4. Jarrera	Lanarekiko jarrera baikorra eta aktiboa izan du.	Gehienetan lanarekiko jarrera baikorra eta aktiboa du, noizbehinka despistatu arren.	Lanarekiko jarrera baikor zein aktiboko uneak, despiste momentuekin tartekatzen ditu.	Askotan despistatzen da, nekez du lanarekiko jarrera baikor eta aktiboa.
5. Parte-hartzea	Beti ideia erabilgarriak ematen ditu, talde eztabaidan eta lan taldean lan egiterakoan.	Orokorrean ideia erabilgarriak ematen ditu, talde eztabaidan eta lan taldean lan egiterakoan.	Batzuetan ideia erabilgarriak ematen ditu, talde eztabaidan eta lan taldean lan egiterakoan.	Oso gutxitan ideia erabilgarriak ematen ditu, talde eztabaidan eta lan taldean lan egiterakoan.
6. Ekarpinak	Zegozkion ariketa eta material guztiak egin eta ekarri ditu.	Zegozkion ariketa eta material gehienak egin eta ekarri ditu.	Soilik, zegozkion zenbait ariketa eta material egin eta ekarri ditu.	Ez ditu zegozkion ariketak eta materialak ekarri eta egin.
7. Lankidetzak	Taldekieekin informazioa partekatu, azaldu eta zuzentzen eta hobekuntzak egiten ditu, modu asertiboan eta errespetuz.	Askotan informazioa partekatu, azaldu, zuzendu eta hobekuntzak egin ditu, nahiz eta gutxitan frustrazio edota asperdura momentuak eduki.	Batzuetan errespetuz eta besteetan ez hainbeste partekatzen du informazioa, galderak egiten ditu. Ez die besteei apenas laguntzen.	Taldekieei modu txarrean eta haserre komunikatzen da. Ez die besteei azalpenik eman, bakarrik berea egin du. Besteak ez ditu batere lagundu.

IKASLE-EBALUATZAILEA: _____

Taldekide izena	Nota							Guztira
	1	2	3	4	5	6	7	
1.								
2.								
3.								

Oharrak:

Egileak moldatua. Iturria: Cesar Layana (Innovación docente ikasgaia, NUP: 2021).

5.3.3. Amaierako produktua

Amaierako produktua gauzatzeko, ikasleei bi aukera eskeintzeko aukera dago. Bi aukerek pentsamendu historikoaren oinarrizko aspektuak ebaluatuko dituzte.

5.3.3.1. A aukera

Imajinatu lagun taldean eta familia bazkari batean zaudela eta lagun edo familiakide batek bat-batean botatzen du: “HISTORIAN, BETI, ALDAKETAK LORTZEKO, ESKUBIDEAK ESKURATZEKO, BETI BIOLENTZIA BEHARREZKO DA”. Inguruan dituzun 144 histori guztiek baietz erantzuten dute, ahoz edo baiezko keinua eginez. Segidan, isilune triste bat. Une horretan, zure lagun edo familiakideari eta besteei, zuk erantzun bat argudiatu eta azaldu beharko diozu, aste honetan klasean ikasi duguna kontuan hartuz.

Horretarako, galdera hauek zuen gida izango dira:

- Zer ulertu duzu Nafarroako Intsumituen Gizarte Mugimenduari buruz? Zerk harritu zaitu? Zer gustatu zaizu? Zeintzuk dira ideia nagusiak?
- Uste al duzu prozesu historikoak konplexuak direla, multikausalak, erritmo ezberdinak dituztela, prozesu historiko horiek ondorioak dakartzatela, hainbat aspektu gaur egunera arte berdin jarraitu dutela eta beste batzuk berdin jarraitzen dutela? Erantzuna adibideen bitartez arrazoitu.
- Zeintzuk izan ziren zuretzat Intsumituen Gizarte Mugimenduaren protagonista nagusiak, eta zer eta nola izan zen bete zuten papera?
- Intsumisioen borroka-ereduari buruz zerbait ikas daiteke XXI.mendeko erronkei aurre egiteko (migrazio masiboak, emergentzia klimatikoa, gerrak...)? Zer ikas daiteke?
- Zer da intsumitu izatea XXI. mendean?

Ez dut nahi kopiaketa, proposamen didaktiko honetan barneratu, asimilatu duzuna baizik. Informazio dexente PowerPoint-ean duzue. Baliatu hori zerbait propio eta orijinala sortuz, zuen familiakide edo lagunaren iritzi hori kolokan jartzeko.

- ❖ Idatziz. Luzera: 1-2 orrialde. Times New Roman 12. Lerro-tartea (1,15)
- ❖ Argazkirik gabe.
- ❖ PowerPoint-ean informazioa eta iturri historikoak ikus ditzakezu.
- ❖ Iturri historikoak, esaldiak kopiatuz gero, beti kakotsen artean idatzi. Esaldiak ez kopiatuz gero, hori esaten zuen 144 histori aipatu behar duzue. Adibidez: Conchita Salinas AFOINA-ko kidearen arabera, Intsumituen familia guztiek familia erraldoi bat osatuz zutenez euren elkarlana itzela izan zen.

5.3.3.2. B aukera

Nafarroako Memoria Institutuaren KONTZIENTZIA ERAGOZPENA eta INTSUMISIOA NAFARROAN artxibo digitalean sartu, aztertu eta iturri historiko bat aukeratu. Ikasgelan, beste iturri historiko batzuekin egin dugun bezala, iturriaren pentsamendu historikoa ikertuko duzu.



Luzera: 1-2 orrialde. Times New Roman 12. Lerro-tartea 1,15. Argazkirik gabe.

Lana gidatzeko galderak:

- Zein da dokumentuaren egilea? Non egin zen dokumentua? Zergatik? Zertarako?
- Dokumentuan epe luze, ertain eta motzeko prozesu historikoak aipatu.
- Kausa ezberdinak eta ondorio ezberdinak deduzitu.
- Zein balio-sistemaren barruan idatzi ziren? Zeintzuk dira gaurko balio sistemak? Konparatu eta ondorioak atera.
- Zergatik eta zertarako da garrantzitsua frogatzea historiko hau? Eman zentzia zure orainaldi eta errealitatetik.
- Zer ikasiko dugu etorkizunean gertatutakoari buruz iturri historiko honetan?

5.3.3.3. Proposamen didaktikoaren azken produktua ebaluatzeko errubrika

Taula 16: Proposamen didaktikoaren azken produktua ebaluatzeko errubrika

ASPEKTUA	ESKAS (1-2,5)	NAHIKO (2,5-3)	ONGI (3-4)	OSO ONGI (4-5)
Multikausalitatea eta ondorioak	Ez ditu ez kausak ezta ondorioak aipatzen.	Kausa eta ondorioren bat isolaturik aipatzen du. Lan deskriptiboa da.	Kausak erlazionatzen ditu modu sinplean, soziala, politikoa, militarra, komunikabideak...	Multikausalitate konplexua, erritmo historiko ezberdinen bilakaerak ezberdindu eta harremantzen ditu.

Taula 18: Amaierako produkturaren pentsamendu historikoaren errubrika

AMAIERAKO PRODUKTUAREN PENTSAMENDU HISTORIKOAREN ERRUBRIKA									
Perspektiba historikoa				Kausalitatea			Iturriak		
Mailak	Deskribapena	Zenbat ikasle	%	Deskribapena	Zenbat	%	Deskribapena	Zenbat ikasle	%
1	Gaurkotasunetik narrazioa egin eta iragana epaitzen du.			Ez du kausa-ondoriorik aipatzen.			Ez du iturririk aipatzen.		
2	Zenbait balore, sinesmen eta praktika bere testuinguruan azaltzen ditu, baina erlazioz gabe.			Isolatutako kausa bakarra aipatzen du.			Isolatutako iturriren bat aipatzen du.		
3	Modu sinplean, perspektiba historiko ezberdinak azaltzen ditu.			Elkarerlazioz gabe aipatzen ditu kausalitate sinpleak.			Iturri batzuk aipatu eta kontrastatzen ditu.		
4	Denbora historikoaren kontzientzia demostratzen du eta konplexutasunarekin erlatibizatzen du.			Kausalitate konplexua.			Iturri ezberdinak aipatu, kontrastatu eta interpretatzen ditu.		

Egileak egina. Aprestizaje de Geografia e Historia ikasgaia. NUP, 2020-21.

5.3.4. Irakaslea ebaluatzeko inbentarioa

Baieztapekin hauekin ados zaude ala ez? Biribildu zure iritziarekin hobekien bat datorren zenbakiarekin, kontuan hartuz 1 zenbakiak guztiz desadostasuna eta 6 erabateko adostasuna adierazten duela. Gogoratu, inbentario hau anonimoa dela (irakasleak ez du jakingo nork bete duen).

Taula 19: Irakaslea ebaluatzeko inbentarioa

Guztiz desados	1	2	3	4	5	6	Erabat ados				
1 Irakasleak errespetuz tratatzen zaitu?						1	2	3	4	5	6
2 Irakasleak klasean giro ona sortzen du eta motibatuta dago?						1	2	3	4	5	6
3 Irakasleak argibide argiak eta ulergarriak ematen ditu?						1	2	3	4	5	6
4 Galderak eta zalantzak esaten dizkiozunean erantzuten ditu?						1	2	3	4	5	6
5 Irakasleak gaiari buruz asko dakiela iruditzen zaizu?						1	2	3	4	5	6
6 Irakasleak azalpenak ongi ematen ditu?						1	2	3	4	5	6
7 Irakasleak ongi pasatzen du?						1	2	3	4	5	6
8 Irakaslea ikasgelan maiz urduri jartzen da?						1	2	3	4	5	6
9 Galderak eta zalantzak azaltzen ez dakienean, erantzunak bilatzen saiatzen da?						1	2	3	4	5	6
10 Iturri historiko ezberdinak erabiltzen ditu?						1	2	3	4	5	6
11 Ariketa eta dinamikak beti berdina dira?						1	2	3	4	5	6
12 Klaseetan aldaketak satzen ditu?						1	2	3	4	5	6
13 Egun guztietan klasean eman beharreko edukia ematen da edo ikasleen jarrera eta animoak baldintzatzen du?						1	2	3	4	5	6
14 Azterketa eta lanen entrega-datekin						1	2	3	4	5	6

15	Ikasle guztiak berdin tratatzen ditu?	1	2	3	4	5	6
-----------	---------------------------------------	---	---	---	---	---	---

Egileak egina.

6. ONDORIOAK

Proposamen didaktiko hau oso interesgarria da. Bigarren Hezkuntzako irakasleriak curriculum presioa alde batera uzten badu, eta benetan material didaktiko hauei bere leku emanez gero, militarkuntza eta sistema kapitalistaren artean jasagarria ez den binkulua ezarriko da; eta sistema jada ez da iraunkorra gizakion biziraupenerako. Beraz, kolapso ekologikoaren munduan, sozialki oso arazo aipagarria da. Ikasleriak hori identifikatuz gero, hau da, bere errealitateko ikaskuntza esanguratsua izango da. Zer esanik ez ezbiolentziak eta desobedientzia zibilak eskaintzen duten koherentzia, helburu eta bitartekoen, hezkuntza demokratiko eta parte-hartzailearen funtsezko elementua dela (aldi berean, ikasgelan lankidetzak kooperatiboan taldeetan eskatzen dena da).

Gainera, material didaktikoen aplikagarritasuna erreza da Bigarren Hezkuntzaren errealitate anitz eta ezberdinetan moldatzeko gaitasuna dutelako, TDF bakoitza modu indibidualean, beste batzuekin konbinatuta edo osotasunean landu daitekeelako. Horretaz gain, iturri moten aniztasuna (abestia, ikus-entzunezko dokumentalak, idatzizko testuak, argazkiak, ahozko iturrien testigantzak...)

Ahulgune nagusi bezala, ikasleek gerra eta Ejertzittoa oso errealitate urrun eta kontsideratzea gerra eta militarismoa adierazgarria den arazo bat bezala ez ikustea izang litzateke.

Lan honen ondorioz galdera guztiak gelditzen dira irekiak. Egia esan, gai honek milaka aukera didaktiko irekitzen ditu. Ekoizpen kulturalaren alorrean pilaka adierazpen daudelako, bai musikan, bai alor artistikoan. Baita oso ongi egokituko litzaioke Proiektu bati ahozko iturriak eta elkarrizketaren baliabide metodologikoa erabiliz gero edota arazoaren oinarritutako ikaskuntzari, adibidez Nafarroako armagintza fabrikei buruzko ikerketa, ikerketa bat egitea suposatuko lukeena eta alternatibak egin gaitzaileentzat.

Proposamen didaktiko hau hasiera besterik ez da. Proposamen didaktikoa praktikan jarri beharko litzateke, proben emaitzak eman, irakasle ezberdinen iradokizunak kontuan hartu eta proposamen didaktikoa estadarizatua hobetzen saiatzen joan, nahiz eta ikastalde bakoitzean, leku bakoitzean eta momentu bakoitzean ezberdin aterako den.

7. BIBLIOGRAFIA

7.1. BIBLIOGRAFIA AKADEMIKOA

- Abrisketa, J. Pérez de Armiño, K. (2021eko uztailaren 26an ikusia). Acción humanitaria: concepto y evolución. Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo Hegoa Institutua. EHU. Hemendik eskuratua: <https://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/1>
- Abrisketa, J. (2021eko uztailaren 26an ikusia). Operaciones de Paz. Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo Hegoa Institutua. EHU. Hemendik eskuratua: <https://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/164>
- Agirre Aranburu, X., Ajangiz, R., Ibarra, P. y Sainz De Rozas, R. (1998). La Insumisión, un singular ciclo histórico de desobediencia civil, Tecnos, Madrid.
- Ahmed, Nafeez. (2019). Guerra en el Antropoceno. La hiperrealidad de la economía biofísica-militar. Papeles de de relaciones ecosociales y cambio global. Nº 146, pp. 57-69.
- Apalategi Begiristain M.J. (2006). Ikastetxeen egitura intelektual, "Ikastetxearen analisia eta ikerketa-proposamena eredu sistemikotik", 93-175. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Bastida, A. (1994). Desaprender la guerra. Una visión crítica de la educación para la paz. Icaria, Barcelona. Hemendik eskuratua: https://books.google.es/books?hl=es&lr=&id=GgrT8j0n47cC&oi=fnd&pg=PA7&dq=educaci%C3%B3n+para+la+paz&ots=EvetyCYL58&sig=RFrT_esnTdk4ZHII4SBVMKIXXQ#v=onepage&q=educaci%C3%B3n%20para%20la%20paz&f=false
- Bauman, Z. (2007). Modernidad Líquida. Z. Bauman, Los retos de la educación en la modernidad líquida (9-46 or). Barcelona: Editorial Gedisa, S.A., 2008. Hemendik eskuratua: <file:///C:/Users/propietario/Desktop/retos-educacion-modernidad.pdf>
- Benadiba, L. (2011). La Historia Oral como recurso metodológico para que los estudiantes puedan apropiarse de su pasado reciente. Palabras y Silencios. Vol. 6, Núm. 1. Pp. 28-32.
- Beorlegui, Óscar. (2012). La insumisión en Navarra. Memoria para tiempos de desmemoria. Pamiela Etxea. 36 BEO, Nafarroako Memoria Institutuaren liburutegia.
- Bergantiños, N. eta Ibarra, P. (2007). *Eco-Pacifismo y Antimilitarismo. Nuevos Movimientos Sociales y Jóvenes en el Movimiento Alterglobalizador*. Revista de

estudios de juventud. Jóvenes, globalización y movimientos altermundistas. 2007ko martxoa. 76. zenbakia. 113-127 orr.

Breve Historia de la mili. (2006ko otsailaren 26a, gaurkotua 2016ko irailaren 25a). *Las canciones de la Mili*.

<https://cancionesdemili.webcindario.com/Breve%20Historia%20de%20la%20Mili.htm>

Castañar Perez, J. (2013). Teoría e Historia de la revolución Noviolenta. Virus Editorial, Barcelona.

Centre Delàs d'Estudis per la Pau. (2021). Militarismo y crisis ambiental. Una reflexión necesaria. Coordinación: Chloé Meulewaeter · Pere Brunet. Autoría: Gemma Amorós, Xavier Bohigas, Teresa de Fortuny, Anna Montull, Albert Orta Mascaró, Pere Ortega, Ainhoa Ruiz Benedicto, Quique Sánchez Ochoa. Informe 47 (1-84. or.).

Cervera, A. L. (2009, 2015ean gaurkotua). La España de 1898. El servicio militar y la redención en metálico. *Almirantecervera.com*. <http://almirantecervera.com/la-espana-de-1898/el-servicio-militar-y-la-redencion-en-metalico/>

Ciriza Mendivil, C. *Investigación educativa* irakasgaiaren apunteak. NUP, 2020-2021 ikasturtea.

Domínguez Castillo J. (2015), *Pensamiento histórico y evaluación de competencias*, Barcelona: Graó.

Educación para la paz. (s.f.) *Wikipedian*. 2021eko uztailaren 19an eskuratua. https://es.wikipedia.org/wiki/Educaci%C3%B3n_para_la_paz#cite_note-Seminario==_Unidas==1

ELA sindikatua. (2021eko apirilaren 2an ikusia). ALDA. Hemendik eskuratua: <https://www.ela.eus/alda/artxiboa/y-al-sargento-lo-tiraron-al-pilon>

ELA sindikatua. (2021eko apirilaren 2an ikusia). ALDA. Hemendik eskuratua: <https://www.ela.eus/alda/artxiboa/y-al-sargento-lo-tiraron-al-pilon/201cjustizia-sozialaren-alde-lerratzeko-unea-da201d-2>

ELA sindikatua. (2021eko apirilaren 2an ikusia). ALDA artxiboa. Hemendik eskuratua: <https://www.ela.eus/alda/artxiboa/y-al-sargento-lo-tiraron-al-pilon/201c-pero-tu-eres-pres-201d-201cbeldur-naiz-beldur-baina-ziur201d>

Estudios CREADE, C. (2011). Actuaciones de éxito en las escuelas europeas. Secretaría General Técnica. Centro De Publicaciones. Ministerio De Educación y Ciencia, 9 (Instituto de Formación del Profesorado, Investigación e Innovación Educativa), 1–105. orr.

Freire, P. (2010). Pedagogía de la indignación. Morata, Madril.

